

ttipi-ttapa



EGUBERRIAK / 31

Pako TERREROS ARCE

«INORK EZIN DU UKATU LESAKAKO LAMINACIONES FABRIKAN AMIANTOA ZEGOENIK»

32 urtez Lesakako lantegian aritu zen Pako Terrerosen denbora luzez amiantoarekin lanean aritu zela aitortu dio TTIPI-TTAPARI. LAB sindikatuko Asier Calderonek, bere aldetik, enpresa haren ondorengoa den Arcelor-Mittali kalteak zuzentzeko eskatu dio / 10



30 urteren ondotik Xistor etxean

Frederic Haranburu Xistor Senpereko presoak azaroaren 24an utzi zuen espetxea. Hasierako hilabetean baldintza zorrotzak izanen ditu. / 59


SINADURAK

 KORO IRAZOKI ARBURUA / 3	 AITOR AROTZENA ALBIZU / 3
 GABI GOIA IPARRAGIRRE / 4	 MAITANE MARITORENA AZKARATE / 4

EGUBERRI ON!

Hauxe da aurtengo azken aldiakaria. 2020ko urtarrilaren 14an hartuko duzue hurrengo TTIPI-TTAPA!

Urte
berri
on!



**la 30 urtez herri
kiroletan egin duen
ibilbidea solasgai
Xabier Urrutiarekin** / 8



**Alfredo Zugarramurdi
San Tiburtzioko
presa kentzeko
eskariarekin bat** / 24



**Gaztealdia
ekimenean parte
hartu du Xabat
Illarregi Marzolek** / 48

BERA LESAKA

Agenda 2020

**ABENDUA
URTARRILA**

www.berakoagenda.eus
www.lesaka.eus

ABENDUA

12
LARUNBATA

**KONTZERTUA
CIENTO VOLANDO**

19:00 Harriondoa Kultur Etxean Sarrera 5€
Antolatzailea **LESKA** **948 KULTURA**

13
IGANDEA

**ANTZERKIA
ILARGIAREN
ATZEAN**
(Malaspulgas konpainia)

17:30 Kultur Etxean Sarrera 5€ Iraupena 55 min
Publikoa Familiarra (5 urtetik aitzinera)
Antolatzailea Nafarroako Gobernua
Laguntzailea Berako Udala
BERA

MUSIKA

20
IGANDEA

**GOSPEL
KONTZERTUA:
ISPIRIT**

18:00 Kultur Etxean Sarrera 5€ Iraupena 75 min
Antolatzailea Berako Udala eta Berako Kultur Batzordea
Argibide gehiago www.gospelzikloa.com
BERA

IKUSKIZUNA

26
LARUNBATA

**BEMOLA IPUIN
MUSIKATUA**

18:00 Harriondoa Kultur Etxean
LESKA

MUSIKA

30
ASTEAZKENA

**SUAKAI; LUCES,
MÚSICA Y ACCIÓN**

Lekua Harriondoa Kultur Etxean Sarrera 5€
LESKA

URTARRILA

2
LARUNBATA

**ANTZERKI ETA
MUSIKA IKUSKIZUN
FAMILIARRA
ROUTE 6.6**
(Pasadas las 4)

18:00 Kultur Etxean Sarrera 3€ Iraupena 60 min
Publikoa Familiarra (6 urtetik aitzinera)
Antolatzailea Berako Udala eta Berako Kultur Batzordea
Laguntzailea Nafarroako Gobernua eta Nafarroako Antzoki Sarea
BERA

9
LARUNBATA

**MERKATUA
BERTAKO EKOIZLEEN
MERKATUA**

10:00-13:30 Beralandetan

AUDITEK
Centro Auditivo - Entzumen Zentroa

auditekcentroauditivo.com

Zure hurbileko kuttunak entzutearen gozamenak

Auditeken zuri egokituriko irtenbide eta tratamenduekin bidez
komunikatzen laguntzen zaitugu.

EZ GALDU AUKERA, LEHENENGO KONTSULTA DOAN

BAI, HITZORDUA NAHI DUT:

IRUN
Paseo Colón, 27
943 633 305

HERNANI
Elkano Kalea, 35
943 386 962

Asociación Nacional
de Audioprotesistas
AUDIÓLOGOS PROTESISTAS

GADA
Asociación Española
de Audición



NIRE TXANDA

KORO IRAZOKI ARBURUA

Igel baten komeriak

Erreka bazter batean bizi zen igel bat hartu, eta esperimentu bat egin zuen zientzialari batek. Eltze haundi batean eman zuen igela, eta han eroso bizi ahal izateko behar zituenak paratu zizkion: ura, harri-kozkor haundi bat, eta gosea kentzeko egunero euliak. Igela eroso bizi zen toki hartan, eta ahanzi zuen lehen erreka bazter batean bizi zela. Orduan hasi zuen esperimentua gure gizonek: igela bizi zen eltzea su gainean eman zuen. Hasieran ura epeldu zen, eta igela orduan eta kontentago bizi zen ur epel gozo hartan. Pixkanaka, tenperatura berotzen hasi zen, eta igela kezkatzen hasi zen, baino hala ere, jateko nahikoa bazuen, eta oraindik eroso sentitzen zenez, ez zuen kasurik egin. Tenperaturak goiti segitu zuen, igela ia ez zegoen batera eroso, eta eltzetik salto egitea pentsatzen hasi zen, baina beroarekin erdi tetelduta, eta euliz aseta, beti biharamuneko uzten zuen eltzetik salto egitea. Azkenik eltzeiko egoera arrazaila bihurtua zen, eta ederki larrituta, bere burua salbatzeko mugitzen hasi zen, baino beranduegi zen. Eltzean egosita hil zen. Argi dago nor garen igelak, eta nolako eltzean bizi garen...

**«ARGI DAGO NOR
GAREN IGELAK ETA
NOLAKO ELTZEAN
BIZI GAREN...»**



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Hiztegi berri on!

Wuhan, Covid-19, koronabirus, SARS-CoV-2, pangolin, PCR, gaixotasun-bektore, patogeno, antigeno, berrogeialdi, etxeratze-agindu, musuko, triaje, NBE, R₀ zenbaki, FFP1, pandemia, sindemia, itxiera perimetrala (*ik. ataka*), ARN mezularia, Pfizer, Astrazeneca... Urte berrirako nire desioa: 2021ean ez dezagun aurtun haina solas berri ikasi.

NABARMENTZEKOAK



**PANTALEON
ERRANDONEA
HILBERRIA**




**MAITANE
MARITORENA
ANIZ BURUZ LIBURUA**

Euskal Herrian arpanlari gisa ezaguna, Arantzan herrigintzan eta kirola sustatzen ere ibili zen. 1991n Nafarroako Herri Kirol Federazioak omendu zuen eta 2017an Arantzako Udalak.

Aniz, 11 etxe, 11 labe, 22 zetabe, bat bertzearen behartu gabe goiburupean sorterrari buruzko liburu mardura argitara eman du, «Aniz zena eta gaur egun denaren ligin ttipi bat».

ATZERA BEGIRA



2010-12-16 · TTIPI-TTAPA · 532 zk.

Zalaingo Lulu-Park skate parkea irekia

«Bizikleta, skate edo patinak urte osoan erabiltzeko aukera dugu». Horrela mintzo zen Hegoi Ado, duela hamar urte Berako Zalain auzoko industrialdean Lulu-Park Skate Park Indoor aretoa inauguratu berri. Eskualdean gisa honetako lehenbiziko parkea zen. Adok zioenez, «betidanik izan da modalitate hauetarako afizioa inguruan, eta horri esker beti mugitu izan gara gauzak sortzeko. Halere, partikularra izatearen arazoetariko bat, instalazioak ez direla jendearen esku gelditzen da, eta honek kirolaren garapena moteldu egiten du». Horrelako instalazio batek sortzen dituen gastuei aurre egiteko «bazkide edo erabiltzaileak behar-beharrezkoak» zituztela ere azpimarratu zuen Adok.



erran.
eus



Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Nerea Bazterrika,
Izaskun Rekarte, Eneritz Iraola
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Usa Vicente
Berriemaileak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,
Arantza eta Iraia, Irune Elizagaien,

Maider Petirena, Oihana Kalparsoro, Fermin Etxekolonea,
Aintzane Leiza, Pablo Irastortza,
Maite, Ana eta Itziar, Juan Mari Barriola, Marga Erdosain, Maitane Maritorena, Arantza Gamio, Jaione Ariztegi,
Jaione Zabalo, Nerea Mortalena,
Virginia Oteiza, Pierre Bastres,
Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier Maritorena, Maialen Iantzi, Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea
Pello Apeztebea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia
Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko udalak,
Malerrekako Zerbitzuaren Mankom.,
Zugarramurdi Aklarre elkarte
2020ko harpidetza sariak
Baztan, Urdazubi 39€
eta Malerreka 28€
Leitza 28€
Hego Euskal Herria 47€
Ipar Euskal Herria, Europa 86€
Amerika eta Australia 139€





KOLABORAZIOAK

GABI GOIA IPARRAGIRRE

Erretiroaren gazi-gozaak

Duela urte bat erretiratu nintzen, 38 urte lan egin ondotik irakaskuntza munduan. Orain, hilabete hauek pasa direlarik, begirada gibelera egin nahi dut eta erretiratzeak ekarri dizkidan argi eta itzalen balorazioa egiteko aukera aprobetxatu nahi nuke. Ez diot inori aholkurik eman edo deus adierazi nahi. Nire esperientzia kontatu bertzerik ez, norbaiti entretenigarri izaten ahal zaiolakoan.

Erretirora ailegatu izana berez pozgarria da, zorioneko momentua dudarik gabe, baina ezin ukatu bizitza goitik beheiti aldatu zaidala.

Nonbaitetik hasi behar eta, denboraren bizipen diferentea nabaritu dut: nahi dudana egiteko denbora dut, gaur ezin badut bihar egin dezaket, lasaitasunez ohatzera joan naiteke biharkoarekin estutu gabe. Sentipen hau zoragarria da!

Eguneroko ohiturak erabat aldatu ditut, behar adina lo egiteko aukera dudanez, nahiko lo egin dezaket. Otorduak ere zuzenago egiten ditut, beti ordu bertsuan, behar den denbora hartuz, kalitatea zainduz, erosketak egiterakoan ere behar bezala pentsatuz, aukeratuz eta elikagai sanoak erabiliz. Honek guztiak bizi kalitatearen hobetzea dakar, dudarik ez!

Honainokoak ikusita bizitza hagitz sinplea eta erraza

bilakatzen dela dirudi...

«ZER GALDU DUT ERRETIROAREKIN? ETA ZER IRABAZI DUT?»

eguneroko oinarrizko beharrak ase eta listo!

Baina ez da horrela, pertsona naizen heinean konplexua naiz eta neurri honetako bizimodu aldaketak, giblean utzi dudanaren dolu prozesu

bat eskatu dit. Urteetan zehar, lanaren bidez lortu dudana asebetea, estatusa, harremana, bat-batean eten da eta momenturen batean krisi pertsonala bezala bizitzea ere ekarri dit. Urteetan irakaslea izan naiz eta orain, erretiratu ondotik, nor/zer naiz? Ez da erraza galdera honi egun batetik bertze erantzutea, garai berri honetan poliki-poliki neure burua birkokatu behar baitut.

Nire kasuan, bizimodu aldaketak ingurune soziala eta harremanak aldatzea ekarri dit. Lanbideak ordu aunitz bete dizkit, lankide eta lan munduko lagunarteak sozializazio aukera ugari zituen eta erretiroarekin bertze espazio batzuk bilatu behar izan ditut etxean zokoratuta ez gelditzeko.

Eta beharbada garrantzitsuena, 60 urtetik goitik bidean, bizitzaren azken txanpan sarturik ikusten dut neure burua. Arriskuko taldean kokatuta nago hainbat gaixotasunetarako, txertoak hartzeko, gida-baimenerako, depresioan erortzeko... Nire osasun fisikoak eta psikologikoak duen garrantzia inoiz baino gehiago ohartzen naiz eta nire bizi kalitatea egunero zaintzera eramaten naiz.

Zer galdu dut erretiroarekin? Eta zer irabazi dut? Ongi pentsatuz gero, galdera hauen erantzunek ez dute garrantzirik. Ongi merezitako garai berri bat bizi behar dut, ahalik eta gehiena disfrutatuz. Horixe dut argi!



MAITANE MARITORENA AZKARATE

Zer egiten duzu asteburuetan herrian?

Ez dakit egundaino aditu ote duzun izenburuko galdemodua, nik anitzetan. Hamaika aldiz galdetu izan didate ea nire denbora librean, asteburuetan, zer egiten dudan herrian. Herrian hitza azpimarratu dut, espresuki, galdera egiten duenari ez baitaio inporta zer egiten dudan asteburuetan, ezpada, herri batean zer egiten ahal den, herri batek zer eskaintzen duen.

Galdemodu hori egiten duenak erantzuna bere baitan du, galdemodu gisa moztortzen duten horren giblean, uste bat dago: herri batek ez du deus eskaintzeko. Hiritar pentsamendu hori da galdemodu gisa moztortzen den «zer egiten duzu herrian?» horren giblean dagoena.

Erran gabe erraten dute, galdemoduaren giblean beraien erantzuna dago: herri batean bizitzeak ez du inongo eskaintza kulturalik, herri batean bizi denak ez du zinemarik, herri batean bizi denak ez du ostatueta poteoan aritzeko aukerarik, herri batean bizitzeak kaiku bihurtzen zaitu, hitz batean errateko.

Bizi dugun egoerak orde, nork nori zer galdemodua norabidez aldatu du, eta akaso bakarren baten pentsamendua ere bai:

-Zer egiten duzu hirian asteburuetan (kontsumitzeko aukera kendu zaizularik)?

Erantzuna: -*hiritik ihes egiten dugu, edozein herritarat, naturaz gozatzerat, ibilaldiak egitera, herriak bisitatzera, lasai*

«ZER EGITEN DUGUN GALDETZEN DUENAK ERANTZUNA BERE BAITAN BILA DEZALA»

egotera, askatasunaz gozatzerat... Bistan da erantzuna nire dela, bistan utzi du hiritarrak bere burua, herritarrok asteburuetan ikusi baititugu hiritarrak gure herriko karriketan, orain artio herrian zer egiten dugun galdetzen duten horiek berak dira, orain herrietarat heldu direnak.

Bizi dugun egoerak argi erakutsi du hiriak zer eskaintzen duen, hiriak zertarako diseinatu diren: kontsumitzeko. Adituek diotenez, mendez mende osasun publikoaren arazoak izan dira hiri birpentsatzera eraman dutenak. XVIII. mendean hilerriak hirigunetik kanpo eramateko eta karrika nahiz plazetan iturriak paratzeko joera nagusitu zen. Hondar hilabeteetako egoera daukagun hirigintza eta etxebizitza ereduaz hausnartzeko baliatzea komenigarria litzateke, horretarako hiri eredu ekonomiko hutsetik haratago lantzea ezinbertzekoa da. Pandemia honek bertze gauza anitzen artean hiriak kontsumitzeko diseinatutakoak direla argi erakutsi baitu. Hemendik goiti herri batean zer egiten dugun galdetzen duenak erantzuna bere baitan bila dezala, bitartean, herritarrok herrietan BIZITZEN segituko dugu.

11 GALDERA LABUR

ANE TELLETXEA IGOA GAZTE LESAKARRA

«Emakumeek aurrerapauso ederra eman dute bertsolaritzan»

Nola aurkeztuko zenuke zeure burua?

Lesakako hemeretzi urteko neska alai, bestazale eta saltsera samarra!

Zein dira zure zaletasunak?

Zaletasun anitz ditut, baina lau aipatzearren bertsolaritza; musika, edozein motatakoa; besta eta mendia erranen nituzke.

Noiztik zabilta Bortzirietako Bertso Eskolan?

Bederatzi urte nituenetik nabil Bortzirietako Bertso Eskolan.

Zer da bertsolaritzatik gehien gustatzen zaizuna?

Orokorrean dena: sortzen den giroa, jendearekin duzun harremana, bertsoetako inprobisazioa... Bertsolaritzaren mundua anitz gustatzen zait!

Bertsolaritzan erreferenterik baduzu?

Bertsolari bakoitzak bere xarma du, eta zail egiten zait bakararra aukeratzea. Baina, aukeratu beharko banu, Estitxu Arozena aukeratuko nuke, bera izan baitut irakasle betitik.

Nola ikusten duzu emakumea bertsolaritzan?

Emakumeek izugarritzko aurrerapausoak eman dituzte. Hori ukazina da. Baina oraindik egiteko anitz dago, eta horrek zeregin handia du.

Besta ere gustuko duzula aipatu duzu, zein da gustukoen duzun besta?

Besta herrikoak dira gehien gustatzen zaizkidanak. Inprobisatuak, besta egiteko intziorik gabe aterata eta eguna



argitutakoan etxera itzultzen zaren horietakoak. Horiek dira hoberenak! Tamalez, aurtun horrelako gutxi egin ahal izan ditugu.

Mendian ibiltzeko ohitura omen duzu, eskualdeko mendietan edo kanpokoetan ibiltzen zara?

Beti hemen ibiltzen naiz, bertakoa beti nahiago izaten da (irri artean).

Zein da gehien gustatzen zaizun eskualdeko mendia?

Lesakako Agiña mendia anitz gustatzen zait, nahiz eta, ber-

tara gehienetan kotxez joaten naizen. Toki polita da oinez egun pasa lasai bat egiteko.

Zer da Lesaka herria berezi egiten duena?

Bertze herriek zer duten ez dakit, baina Lesakak bere leku, giro, jende eta bestengatik xarma berezia duela erranen nuke.

Amets bat?


Anitz ditut. Baina bat erratekotan, nire ingurukoak eta nik momentuaz gozatzen segitzea!

opari praktikoak! Zorionak!

1951tik Casa Cambra
lentzeria-etxea

edredoi fundak • albormozak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak • mantelak • kuxinak • toailak

Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634



IRAKURLEAK MINTZO

Eztabaidak

ESTEBAN IRUSTA MALLEA

Bizitzak eztabaidatzeko aukerak etengabe ematen ditu. Arlo guztiak, garrantzi handi edo txikikoak izan, denak dira eztabaidagarri. Gizakiok ziurtasun gutxi dugu, eta ziurtasun-gabezi horrek etengabeko eztabaidak sortzen ditu. Denok egia bera bila gabiltza, eta bitartean erabaki egokienak aukeratzen ahal gintzen gara. Belaunaldi bakoitzak bere eztabaidak izaten ditu, baina gai batzuk beti dira eztabaidagai komunikabideetan.

Politikak ez digu atsedenik ematen. Alderdi politikoaren arteko eztabaidak egunerokoak dira. Askotan herritarren arazoei irtenbide egokienak aukeratzen baino beraiekin arteko ika-mikatan dabilta, kirol lehia bailitzan. Ohituta gaude, baina ez ditugu ondo ikusten eztabaidak horiek. Beste eztabaidak erlijioari lotutakoak dira. Hedabideetan, egun, ez dira hainbeste agertzen baina historian, erlijioak garrantzi handia izan du, eta asko eztabaidatu da. Gaur egun ere, ez da eztabaidarik falta, nahiz eta askotan nahasten diren erlijioa eta eliza.

Zientzialarien artean, beti eztabaidatu izan da Jainkoaren izateaz. Sinestun

eta sinesgabeen zerrenda kontaezina da. Zientzialari askoren artean, Kant, Voltaire, Descartes, Miguel Unamuno, Albert Einstein eta Antony Flew, unibertsoaren egilearen Jaungoiko baten sinestunen zerrendan ageri dira. Beste asko, berriz, kontra daude. Hauen ustez, unibertsoa kasualitatez sortu zen. Hori defendatzen ezagutzen egin da Stephen Hawking.

Gai honek, zalantzarik gabe, eztabaidan jarraituko du, baina batzuek, egunotan, itxura denez, zalantza guztiak 'argitu' dituzte, eta hor dabilta abesti tradizionalen letrak aldatzen. Ez dirudi aukera egokia denik, gehiegizko ausardia baizik, zientzialari ospetsuenak ez duten 'argitasun' hori bereganatzean.

Musikarekin jarraituz, Euskadiko Ereserkia eztabaidatzen ari gara nahiz eta, aspalditik daukagun Cleto Zabala Aranbarri musikariak eginga. Orain, berriz, musikari talde batek J.M. Iparragirreraren *Gernikako arbola* proposatu du. Musika aldeetik, biak dira ederrak, baina gaurko musikari hauek baino askoz lehenago, Aita Madina musikagile ospetsuak egungo ereserki ofizialaren alde egin zuen, *Gernikako arbola* baino solemnitarekin eta handitasun sakonagoa duela esanez. Eztabaida honetan, musikak

BOTA BERTSOA

MIKEL ALTZUART ZALDAIN
ARIZKUNGO BERTSOLARIA

Osasuna eta eskubideak

Doinua: Euskaldun nekazariak



*Bi mila hogeia omen da
urte berezia
'virus' batek irauli
egin du guzia (ber)
nora zuzendu zure
galderen gezia
nork du galera eta
nork irabazia
bi hitzetan erranda
hori da auzia (ber).*

*Baina Euskal Herrian
zer dugu nagusi
hipokresia frango
nonahi dut ikusi (ber)
zientziak mintzo direnak
gaur ez dira gutxi
beldurra sortzeari
nahi diote eutsi
gure osasuna ezin
digute ebatsi (ber).*

*Munduan agintzeko
den erabakia
gizatasun osoa
kolpez ebakia (ber)
gure osasuna omen da
norbaiten jakia
zuk ere ez al duzu
erruan zatia
norendako ari zara
Euskadi irratia (ber).*

*Orain jarri digute
EITBn maratoia
horren alde jarri da
Kriston pelotoia (ber)
herritarren dirua
biltzeko arrazoia
katuari laguntzen
dabil arratoia
Ikertu ezazue
zein den hor gidoia (ber).*

*Kultur ahotsak dio
ez negarrik egin
kirolariak berriz
beldurra ekidin (ber)
neurri denak bete
zuhurtziarekin
zuen negarra zer den
nahiko nuke jakin
hori konpontzen al da
txertaketarekin (ber).*

*Berriak zabaltzeko
euskaraz Berria
zer jarrera hartu duzun
ez da hain berria (ber)
horrenbertze aditu
ikaragarria
haientzat beti dago
nahi duten orria
ta herritarrendako
non duzu gerria (ber).*

*Ezker abertzalea
neurri gogorrak
orain gu ez baikara
lehen bezain jatorrak (ber)
begirik gabe ibiltzen
dakite satorrak
sortzen ari direnak
bai zulo kozkorrek
ordainduko al dituzu
gero horren zorrak (ber).*

*Bukaezina baita
sumisoen zerrenda
Kritika egitea
gaur hemen herren da (ber)
segi zazue segi
zuen bide-senda
txertoak ezin baitu
zuen gaitza senda
guk jarraituko dugu
geronen agenda (ber).*

baino zeresan handiagoa du politikak.

Beste askotan, ezjakinak sortzen ditu eztabaidak. Hau gertatu da berriki *vizcaino* hitzarekin. Garai haietan, hitz horren esanahia 'euskalduna' zen. Hor daukagu,

Bizkaiko Golkoa euskal golkoa adierazteko. Baten batek zalantzak baditu Cervantesen *El Quijote* irakur dezake. *Instituciones vizcainas* edo *fueros vizcainos* esatean, euskal instituzioak eta euskal foruak adierazten zuten.

Zaindu maite duzun hori...

Kalko ustelak

***LEHENIK, ERRAN...'**

Esan/erran aditza laguntzailerik gabe erabiltzen da batzuetan (egia/erran esan, egia esateko/errateko...) eta, behar bezala erabilita, esamolde egoki-egokiak dira. Euskaltzaindiaren arabera, ordea, bada baztertu beharreko molde kalkatu bat:

-*Bukatzeko, bakarrik erran, hamabortz egun daudela errekurtsua aurkezteko > Bukatzeko, bakarrik erran nahi dut hamabortz egun daudela errekurtsua aurkezteko.

-*Lehenik, esan, joera hau berri samarra dela. Bigarrenik, esan, ez duela heldulekurik euskaraz. Amaitzeko esan, gaztelaniaz ere txartzat joa dela.

Molde horretako esaldietan, aditzek (bai esan/erran aditzak, bai haren gisako aditz adierazpeneko (deklaratibo) deituek —adierazi, komentatu, gogoratu, gehitu, baieztatu, aditzera eman, azpimarratu, berretsi, jakinarazi, aitortu, erantzun, zehaztu...—) modu jokatuan joan behar dute: esan/erran dezagun, esan/erran nahi nuke, esan/erran beharra dago, esan/erran dezadan, gogora dezagun... Hona hemen bertze adibide bat:

-*Azkenik, azpimarratu... Azkenik, azpimarratu behar da/ nahi dugu...

Nola erran?

Lot ezazu bakoitza bere bikotearekin!

Egundaino

Umerri

Osagarri

Xatar

Ilupa

Pixoihal

Osasun

Axolagabe

Inoiz ez

Bildots

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!



info@ttipi.eus



744 48 43 61

Zein da zuzena?

***Gustura joanen nintzen Kubara**
ala **Gustura joanen nintzateke Kubara?**



Iragan-geroa, izenak adierazten duenez, iraganari buruzko aditzaldia da beti. Eta ez da zuzena iragan-geroa erabiltzea gertakari hipotetikoak baina gerta litezkeenak aipatzeko.

-*Gustura joanen nintzen Kubara > Gustura joanen nintzateke Kubara).

-*Oraintxe bertan txuleta eder bat janen nuen > Oraintxe bertan txuleta eder bat janen nuke.

Baina iragan-geroa zuzena eta egokia da ezinezko baldintzen ondorioan erabiltzeko. Bi moldeak baliokideak dira:

-Hori jakin (izan) banu, etorriko nintzatekeen (= etorriko nintzen).

-Hori jakitera, berehala erranen niokeen (= erranen nion).

-Garaiz erran (izan) bagenio, lehenago etorriko zen (= etorriko zatekeen).

«Herri kirolen bueltan mugitzen den guztia da polita»

XABIER URRUTIA BENGOTXEA NAFARROAKO HERRI KIROL TALDEKO LEHENDAKARI OHIA

2013tik 2019ra Nafarroako herri kirol elkarteko lehendakari eta ia 30 urtez kirolari izan da Xabier Urrutia. Kirolaz gozatuz eta herri kirolak sustatuz segitu nahi du

N.BAZTERRIKA ARRAIOZ

Lan isila, lan umila egin du herri kirolen alde Xabier Urrutia Bengotxeak (Arraioz, 1980). Gazterik hasi zen Nafarroako kirol jolasetan. Lehenbiziko urteetan, anaiarekin batera, arpanlari ibili zen. Gerora, orde, orga-eramaileak falta zirenez, horri lotzea erabaki zuen. Lesio larri bat tarteko, orga utzi behar izan zuen eta, gaur-gaurkoz, pentatloietan jarria du begirada. Zaletasunari eusteko eta herri-kirolak sustatzeko eginahalak eta bi egin ditu Urrutiak, herri kirolak kirol hutsa baino gehiago direlako eta «Euskal Herria eta euskaldunak, gure kultura eta aitzinekoen historia» ezagutzeko bide ematen dutelako. Horretan aritu direnen pausoak estimatzen ditu eta bide horretan segitu nahi ditu Urrutiak, itzal ez daitezen: «eskerrik asko Panttaleon, goian bego».

2013tik 2019ra Nafarroako herri-kirol federazioko lehendakari izan zara... Ardura handia izan al da?

Lehendakaria ni izan arren, talde bat ginen eta taldearen babesa izan dut beti. Sartu ginelarik egoera ez zen ona, dirulaguntzak dezentetatu zizkiguten eta ekonomikoki estu ibili ginen. Horrez gain, lanorduetatik kanpo denbora aunitz eskatzen du. Alde horretatik etxekoan eta ingurukoan laguntza handia izan dut eta hori eskertzekoa da. Pixkanaka, jendea indarra galduz joan zelako utzi genuen, baina lan ona egin genuela uste dut: txapelketak antolatu genituen, jendea hurbiltzeko lan egin ge-

nuen eta ateak jotzen saiatu ginen, batzuk ireki ziren, bertzeak ez...

Lehendakaritzan zinelaren lehenbiziko Nafarroako herri kirol txapelketan trontza mistoa antolatu zen...

Argi genuen probarik politena ez zela emakumezkoak alde batetik eta gizonezkoak bertetik aritzea. Ahal bazen, nahasita, elkarlanean, ikusi nahi ge-

«ARPAN MISTOA IZATEA IZAN DA GURE LORPEN POLITENETARIKOA»

«NAFARROAN GOI MAILAKO KIROLARI AUNITZ DAGO ETA HORI NABARITU DA»



Harri-jasotzaile, orga-eramaile, arpanlari... ibili izan da Urrutia.

nituen. Lortu genuen gauza politenetako bat hori izan zen. **2018an eta 2019an Nafarroako herri kirol taldeak Euskal Herriko zazpi herrialdeetako txapelketa irabazi zuen... Nola bizi izan zenuen garaipen horiek?**

Zazpi herrialdeetako izena izan arren, ez da hala izaten. Hori da gustatuko litzaigukeena, baina lau herrialdeetako biltzen gara. Hala ere, txapelketa horiek irabazten direlarik, gibelean lan ona dagoela pentsatzen dugu. Nafarroan goi mailako kirolari aunitz izan da eta hori txapelketetan nabaritu da. Irabazi zein ez, lehenbiziko postuetan izan gara... Gainera, txapelketetan elkartasun eta laguntza handia sumatzen da eta hori ederra da.

Arpanean hasi zinen arren, hondarreko urteetan organ ikusi zaitugu. Zer dela eta etorri zen aldaketa?

Lehendakari izan nintzen lehenbiziko urte hartan organ aritzeko bi lagun falta ziren. Dirulaguntzak emanak zituzten eta lehendakaria izanik neure burua eskaintzeko beharra sentitu nuen, txapelketa ateratzea nahi nuen... Ordutik beti organ aritu naiz. Txapelketetan arpanean aritzeko aunitz entrenatu behar da. Nahiz eta ez irabazi, prestututa eta entrenatuta joan behar da, ikusleak gibeletik lan bat dagoela ikus dezan. Organ aritzeko, berriz, entrenamenduak bakarrik egiten ahal nituen...

Txapelketa batzuk irabazi dituzu...

Lehenbiziko urtean atera eta irabazi egin nuen. Ordutik, nire marka hobetzen saiatu naiz. Txapelketa irabazi edo ez hori izan da urtetik urtera neure buruari paratu diodan erronka. Lau urtetan txapela lortu dut eta 2019an Euskal Herrikoan Ousmane Dramé bizkaitarrak irabazi zidan, buelta laurden bateko aldea aterata.

Aurten Euskal Herriko txapelketa Nafarroan jokatzekoa zen, baina ez da egiterik izan...

Larriagoa den afera bat dago eta kontu hauek bigarren mailan gelditu dira. Ahal dena egiten da. Egoera ez da batere erraza, antolatuta ere azken

momentura arte ezin baita jakin jokatzetik izan den... Neurri guztiak betez antolatzea ere zaila da. Euskal Herrikoaz gain, arpan mistoa jokatu beharra zen eta ez zen egin, ezta emakumezkoena eta gizonezkoena ere, aizkora, sokatira... Gutti batzuk bakarrik jokatu dira.

Hala ere, I. Binakako Euskal Pentatloia egin zen eta bertan parte hartu zenuen, Julen Kañamare-sekin batera...

Bai, egitekoa zela aditu zuenean biok batera parte hartzea proposatzeko deitu zidan. Entrenatu eta fundamentua eginez gero, baietz erran nion. Ez genuen aunitzik entrenatu, azken momentuko kontua izan zen eta... Menperatzen ez ditudan borts kiroletan aritzea ez zen erraza izan. Hala ere, esperientzia izugarria izan zen.

Harri altxatzea, giza proba, aizkora eta lasterka izan zenituzten probak. Zein izan zen gogorra?

Aizkora eta lasterka. Aizkoran ohitura falta izanez gero, leher egiten duzu eta lan horiek guztiak egin ondotik lasterka has-tea gogorra izan zen. Harria altxatzen eta harri tiran gustura ibili nintzen, fresko nengoen eta... gozatu nuen.

Nola ikusi zenuen zeure burua?

Ongi, gure maila zena izan zen. Aunitz hobetzeko beharra dugula argi dago eta horretarako entrenatzea beharrezkoa da. Esperientzia aldetik ona izan zen. Hurrengo urterako entrenatuko dugula eta ateratzeko moduan izanen garela uste dut.

Beraz, uzteko asmorik ez, ezta?

Orga bai, lesio larri bat izan nuelako. Ezkerreko besoa atera zitzaidan Baigorri. Arras gaizki hartu nuen karroa eta goititzean ezkerreko besoa atera zitzaidan. Banakako pentatloian ateratzeko nintzen baina abuztu erdialdean pasatu zitzaidan eta ezin izan nuen. Orga kirol erasokorra da, lesio larria izan nuen eta utzi dut. Pena da joan den urtean Euskal Herriko txapelketan borts itzuli eman nituela ikusita marka hobetu eta txapelatutua nahi nuelako baina...



Herri kirolek ekarpen handia egin diote Urrutiari: «txoko aunitz, lagunak eta emaztea herri kirolei esker ezagutu nituen».

Zein da orain begiz joa duzun txapelketa?

Ekainean egitekoa den pentatloia. Gustukoena behintzat hori dut orain. Hor ezagutu ditut benetako aurkariak, egia aitzinetik daramatenak. Horrelako jendearekin plazaratzea plazera da, nahiz eta hobeak izan... Zaldua, Arria, Peña... izan ditugu aurkari, eta giro arras ona izan dugu, bai aitzinetik baita ondotik ere, baina bitartean... egurra!

Nola ikusten duzu herri kirolen etorkizuna?

Ez dago etorkizun argirik. Na-farroako Kirol Jolasetan haur aunitz izaten dira, kadeteetan kopurua jaisten da. Bertze kirolak

letara jotzen dute. 18 urtetan aukera arras txikia da. Zerbait pentsatu beharra dago baina ez da erraza. Ez herri-kiroletan ezta kirol gehienetan ere. Errugbia ere hurbiletik ikusi dut eta hor ere arras zaila dago. Haurrak bi kirol dituzte begiartean, gurasoek horietara bultzatzen dituztelako akaso. Horiek ere, aitzinera egiterik ez dutela sentitzen dutelarik, utzi egiten dituzte eta pena da. Pena da bertze kirolekin ez saiatzea, batez ere gurean.

Ez da saiatu faltagatik izanen...

Herri kirola eta crossfita uztartuz, herri kirolak sustatzeko hitzordua antolatu zenuen Donezteben...

Crossfitekoei herri-kirolak ere badaudela erakustea zen hel-

burua. Indar proba aunitz herri-kiroletakoak zirela erakutsi nahi izan genien. Harri bolarekin aritzen dira, sokarekin... Gauza aunitz herri kiroleetatik ateratakoak izan daitezke. Ateak ireki nahi izan genituen. Saiatu mila gauzetan saiatu gara, baina arras zaila da. Herri Rugby kirolak ere egin izan ditugu. Herri kirolekin eta errugbian aritzen nintzen, Baztan Rugby Taldeko Mariano Iribarrenekin eta hasi eta Erratzun, Iruritan... egin genuen, herri kirolak mugitzeko. Entrenamenduetan ordu erdiz errugbian eta bertze ordu erdiz herri kirolekin aritzen ginen, ortziraletan.

Eta hori ere eten behar izan zenuen...

Konfinamenduarekin ezin entrenatuz gelditu ginen eta aurtengoa bertan behera utzi dugu. Arrazoiak izan badiren arren, bertze behin egoera zaildu du horrek. Horrez gain, gurasoak herri kirolekin aritzen garenok astakeriak egiten ditugula erraten aditu izan ditut eta horrek ere ez digu laguntzen. Aldaketa hortik etorri beharko litzateke. Herri kirolen bueltan mugitzen den guztia da polita: herriak ezagutzea, jende euskalduna, gure kultura eta historia... Horri eutsi beharko genioke.

Motzean

Zeure burua hitz gutxitan.

Kirolariak laguntzeko prest dagoena.

Zer eman dizu herri-kirol munduak?

Ezaugarria.

Beti oroituko duzun egun bat?

Bizkaitarren aurkako apustua.

Egunik txarrena?

Lesioa izan nuen eguna.

Herri kirolak ez den kirol bat?

Errugbia.

Plaza bat?

Doneztebeko frontoia eta Iruñeko Foruen Plaza.

Aurkari gogorra?

Norbera. Geure buruagaitza eta urduritasuna eta beldurrak alde batera uztea.



Irailaren 29an, Teo Vilaren kasuaren epaiketa egitekoa zen egunean, elkarretaratzea deitu zuen LABek Iruñean.

Amiantoaren aurka pausoak emanez

Lesakako Laminaciones lantegiaren ondorengo enpresetako batek langile bat amiantoaren ondorioz hil zela onartu du eta hori positibotzat jo du LABek. Halere, oraindik amiantoa badagoela eta, ardurak eskatu dizkio Arcelor-Mittali. Pako Terreros langile ohiak, berriz, amiantoa «aunitz» erabili zutela dio

G. PIKABEA

«Lesakako Laminaciones fabrika amiantoa zegoenik ezin du inork ukatu». Hori argi eta garbi utzi nahi izan du Pako Terreros Arcek. Sortzez errioxarra da, aspaldian Lesakan bizi dena, eta 32 urtez Lesakako lantegian aritua, 1995ean erretiroa hartu zuen arte: «hasierako hiru urtetan muntatzaile, gero hamar urtez elektrikari eta ondotik produkzioan». Ezaguna du fabrika barreneko orduko martxa, eta amiantoaren erabilera «hagitz ohikoa» zela azaldu digu: «aunitz erabiltzen genuen produktua zen. Isolatzaile ona zen, beroarekin erabiltzeko material ona, eta gainera, merkea». Tailerrean ikusi zuen lehenbizikoz amiantoa: «amianto-biribilkiakizaten genituen, moztu eta horiek erabiltzen genituen, bertzeak

bertze, labeetako junturretan. Hausten baziren edukiontzietara botatzen genituen bertze hainbat materialekin batera, handik zabortegira eramateko. Hagitz erabilia zen eta edozeinek erabiltzen genuen. Kasu jakinetan erabiltzen genituen eskuzorroak ere amiantozkoak ziren eta egituraren ere amiantoa zegoen». Erran digunez, «bagekien amiantoa zela, baina ez gagekien benetan zer zen».

Teo Vilaren kasua aurrekari
Terreros baino sei hilabete beranduago hasi zen Teo Vila

«KALTEAK ZUZENTZEKO ESKATZEN DIOGU ARCELORRI»

ASIER CALDERON, LAB SINDIKATUA

Lesakako lantegian.30 urtez Laminacionesen aritu ondotik, duela lau urte, pleurako mesoteliomaren edo pleura minbiziaren ondorioz hil zen Vila.

Asier Calderon Baztan-Bidasoko LABeko koordinatzailearen hitzetan, «Vila amiantoarekin aritu zen lanean eta horrek eragindako patologia baten ondorioz hil zen. Hil baino hilabete gutti batzuk lehenago diagnostikatu zioten gaixotasuna eta bat-bateko heriotza izan zen». Orduan erabaki zuen «bere alargunak, ardurak eskatuz, enpresaren

«URTETAN AUNITZ ERABILI IZAN DUGU AMANTOIA»

PAKO TERREROS, LANGILE OHIA

aurkako borroka» abiatzea. «LAB sindikatuarekin eta Zuzenki bulegoarekin batera senarraren heriotza lanari lotutako gaixotasuna izan zedin onartzeko bideari ekin zion».

Lau urte beranduago ailegatu da erantzuna. Baina Calderonen hitzetan, bidea «luzea eta zaila» izan da, «bertzeak bertze, ez Lesakako Laminaciones, ez ondorengo enpresak ez daudelako RERAnedo amianto arriskua duten enpresen erregistro ofizialean sartuak. Zerrenda horretan agertu izan balitz, eta langile ohiaren heriotza amiantoaren ondoriozko patologia batek eragin izan balu, ardura enpresarena izanen litzateke». Kasu honetan, ordea, horren faltan «Vilaren lankideen testigantzak» eta «amiantoarekin lan egin zela erakusten zuten egiaztagirak ezinbertzeak» izan omen dira «Lesakako plantan amiantoa non, zein garaitan eta zein modutan landu zuten zehazteko».

Bide horretan bere aletxoa paratu du Terrerosek eta kontent dago Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak Vilaren heriotza Laminaciones amiantoaren eraginpean egon izanaren ondorio izan zedin bere ekarpena egin duelako: «2016an nire testigantza jasotzeko deitu zidatenean, ez nuen zalantzarik izan». Bere irudiko, «aunitzek gaiari buruz solastatzerakoan beldurra sentitzen dute». Berak, ordea, ez: «nik ez dut gezurrik erran. Inork ezin du ukatu lantegian amiantoa zegoenik eta Vilaren emazte eta alabari justizia pixka bat egiten laguntzeko balio izan badu, hagitz kontent nago. Kalte-ordainak jasoko dituztela adituta izugarritzko poztasuna sentitu dut».

Hiru borroka

Calderonek hiru borrokatan bereizi du Vilaren prozesua eta horietako bitan «garaipena lortu» izana nabarmendu du. «Lan heriotza aitortzearen ondorioz lortu zen lehen garaipena, alargunari alargun pen-

tsioa handitu baitiote. Bigarren garaipena familiak eskatutako kalte-ordainak jasoko dituela baieztatzea izan da». Hain zuzen, epaiketarik gabe, Laminacionesen ondorengo enpresetako batek, Cofivacasak, alargunari 133.000 euro eta alabari 27.000 euro ematea onartu zuen irail hondarrean. Prozesua, ordea, oraindik ez da bukatu. Hirugarren epaiketarik falta da: «enpresak segurtasun neurriak ez betetzeagatik jasotako prestazioen errekargua onartzeko eskaera». Berez, azaroan egitea aurreikusia bazen ere, osasun egoera tarteko gibelatu behar izan dute, baina LABekoak «epe motzean egingen den epaiketa» izanen dela argitu du.

Arcelor Mittali eskaera

Calderonen ustez, «frogatuta» gelditu da «Lesakako Laminacionesen urte luzetan amiantoarekin lan egin zela». Eta «aurrekari garrantzitsutzat» jo du enpresak langile bat amiantoaren ondorioz hil zela onartu izana. «Urte aunitz daramatzagu hori aldarrikatuz, urte aunitz hori aitortzeko eta arazoari irtenbidea emateko bitartekoak eskatuz eta Vilaren kasuarekin aurrekari hori lortu da». Baina «Vilarena ez da kasu isolatu bat», azpimarratu nahi izan du: «ehunka langile dira fabrika horretan amiantoarekin lan egindakoak. Diferentzia bakarra Vilaren alargunak borrokari ekitea erabaki izana da».

Bide horretan, Arcelor-Mittali luzatu dio LABek mezua, «bera baita orduko lantegiaren produkzioa edo jarduera ekonomikoa heredatu duena eta ezin dio bere ardurari uko egin». Hori horrela dela iritzita, «kalteak zuzentzeko» eskatu dio enpresari; alde batetik, «amiantoaren eraginpean izan diren langile guztien zerrenda» eta bertzetik, «langileen osasuna prebenitu eta zaintzeko plana» exijituz. Lesakako langileetatik haratago luzatu du mezua: «fabrika horretan urteetan



Pako Terreros 81 urte ditu eta 32 urtez Lesakako lantegian aritu zen. Denbora luzez amiantoarekin lanean aritu zirela dio.

bertze lantegietako langileek lan egin dute eta horiek identifikatu behar dira».

Langileen zerrenda eta aldiskako mediku azterketak exijitzeaz gain, «amianto non izaten ahal den identifikatzeko eta garbitzeko plana» nahi du LABek: «ziurtzat jo dezakegu oraindik ere amianto arrastoak badirela eta arriskuak hor segitzen du. Labeetako jurentan amianto erabiltzen bazen, labeak aktibo egon edo ez, amianto hori egon da. Egituran ere badira amianto izan dezaketen hainbat elementu, uralitazko plakak, adibidez».

Amianto eta gehiago

Terreros amiantoaz eta gehiagotz mintzatu da. Bere hitzetan,

«segurtasun indibiduala Lesakan adina toki guttitan zaindu izanen zen: arnesak, tapoiak, botak, antiojoak, eskularruak, kaskoak, buzoak... Enpresak eskatutako guztia ematen zuen. Baina amiantoarekin ez zen inolako segurtasun neurriarik hartu; ez amiantoarekin, ez zianuroarekin, ezta azido sulfuriko edo klorhidrikoarekin ere». Elektrodeposizioan, erraterako, «mila kilo zianuro» izaten zirela dio: «materialak itsasgarritasun ona izateko zianuroa erabiltzen genuen». Langile ohiak «basakeriatzat» jo ditu «lantegian egin ziren ekintza aunitz. Tximiniatik ikusi egin behar izaten zen nolako kea ateratzen zen, edo azido sulfurikoa solido egiten

zenez kamioiak eraman arte mukuru batean uzten zen. Hai-zeak zenbat zabaltzen ote zuen... Zintzurrean pixka bat pikatzen zuela kexu zen jendea, baina gainerakoan, lanik gabe gelditzeko edo fabrika ixteko beldurrez, denak isilik. Hori guztia irensten aritu gara orain gutti arte eta onartezina da». Aitortu digunez, 26 urte badira jubilatuz zela, eta «orain ez dakit zer martxa duten fabriketan», baina «bai airean bai urean kontrol gehiago jarri beharko lituzketela» iruditzen zaio, «azidoak eta olioak kontrolatzeko».

Egiteko lan handia

Calderonek, bere aldetik, «positibotzat» jo du «amiantoaren aurkako borrokan» orain arte lortutakoa, baina aitzinera begira «lan mardula» gelditzen dela dio. Vilaren kasuak «jendea motibatuzko» balio izatea nahi luke. Eta horregatik, senideei «halako patologien ondorioz izan diren heriotzen kasuan, aitortza exijitzeko» eskatu die, eta «patologiarik garatu ez duten langileei beharrezkoak diren mediku probak exijitzeko» deia egin die: «eta ez Lesakako fabriketan aritu direnei bakarrik. Bakoitzak badaki amiantoaren aritu den edo ez».

Amianto arriskua duten enpresak

Nafarroako Gobernuak urtero eguneratu eta argitaratzen du RERA edo amianto arriskua duten enpresen erregistro ofiziala. Azaroan egin du aurtengoa, Nafarroako Gobernuaren webgunean ikusgai dagoena, eta zerrenda horretan dauden Nafarroako 63 enpresen artean Laminaciones lantegia ez da ageri, ezta bere ondorengoak ere. Eskualdeko bertze bi ageri dira: Sunbillako Sasoi Eraikuntzak eta Alkaiagako Transbidasoa enpresa. Erregistro horren arabera, Sunbillako enpresa 2012ko apirilaren 26tik zerrendan erregistratua dago eta Transbidasoa 2016ko apirilaren 22az geroztik.

Eguberrietan lehen aldiz kantu eta marrazki lehiaketak

Aurten Olentzero eta Mari Domingi Herriko Etxeko Plazara etorriko ez badira ere etxeetan opariak utziko dituzte

IZASKUN REKARTE

Aurten ospakizun guztiak ezberdinak izanen dira, baita Eguberriak ere. Covid-19a dela medio, Olentzero eta Mari Domingi herrira bisita ez egitea erabaki dute. Hala ere, abenduaren 24ko gauean, ongi portatu direnen etxeetan, opariak utziko dituztela abisatu dute. Helduei dagokienez, Eguberri bezperako arratsean Gure Txokoa Elkarteak antolatzen duen kalejira musikatua ez dela eginen iragarri dute.

Berrikuntza gisa, aurten udalak bi lehiaketa abian ja-

rriko ditu: Eguberrietako kanten eta marrazki lehiaketak. Bi lehiaketen oinarriak hurrengo egunetan plazaratuko dituzte.

Musika eskolako kontzertua

Aurten Musika Eskolako Eguberrietako kontzertua ere alde batera utziko dute.

Urtezahar eguna

Abenduaren 31n, Urtezahar egunean ere, ohiko ospakizunak ez antolatzea erabaki dute. Aurten etxeko txikiek ez dituzte karrikak Glin-Glan hotsez



2019an Olentzero eta Mari Domingi herrian egindako bisita. ARTXIBOKOA

alaituko. Eta, ilunabarrean Berako Abesbatzak eta herri-tarrek ez dute Diostesalbea kantatuko.

Antzerki emanaldia

Urtarrilaren 2an, 18:00etan, kultur etxean familia guztia-
rentzako *Route 6.6* euskaraz-
ko musika eta antzerki ikus-
kizuna izanen da. Sarrerek
hiru euroko kostu izanen dute.

Errege Magoen kabalgata

Azkenik, ilbeltzaren 5ean ez da errege kabalgatarik izanen.

Eguberriak ospatu, baina tentuz

Bizi dugun osasun egoera kontuan izanda, udalak Eguberriak «tentuz» ospatzeko oharra helarazi die herritarrei. Aurten, Eguberriak, «etxekoe-kin» eta «osasunez» ospatzeko gonbita luzatu du.

URKILA

Harategia | Urdaitegia

Orain Eztegarara kalean gaude baina laister...

M. 666 407 210 ☎ · Kanttonberri, 12

Etxean egindako produktuak

948 630 786
Altzate, 21 · BERA

· INGENIARITZA ELEKTRIKOA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK

T. (0034) 636 617 450

· BOLETIN INDUSTRIA
· INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Legia, 23 - BERA

SMAZIZIOR

edariak

ESKAERA EGITEKO:

M. 676 051 660 ☎
T. 948 631 557
Ordutegia. 10:00-13:00 eta 16:00-18:00
Helbidea. Ziobi, 3 ALKAIAGA
eposta: maziziorsenper@gmail.com

- IBERIKOAK
Urdaiazpikoa, Saltxitxoia,
Solomoa, Txorizoa
- IRULEGIKO AHATEKIAK
ETA PATEAK
- NAFARROAKO KONTSERBAK
- OLIBA-OLIO BIRJINA ESTRA
- ARDOAK, CAVAK, TXANPAINAK,
PATTARRAK, SAGARDOAK
- BIO ETA MSC* KONTSERBAK (*arrantza jasagarria)

**ENPRESA ETA
PARTIKULARRENTZAT**

***Zure neurrira
prestatzen ditugu!***

***Eguberrietako eskaerak
etxera eramaten ditugu!***



Abenduaren 1ean memoriaren parkean ezarri zen oroigarri plaka.

Herriaren memoriaren parkea osatu dute

Parkea udalaren eta herritarren ekimenez osatu dute eta herrian pasatutako hiru gertakari jaso dituzte

IZASKUN REKARTE

Abenduko bigarren asteburuan, Mikel Zabalza hilik agertu zen dataren urteurrenarekin batera, zenbait herritarrek asteburu osorako ekitaldiak antolatuak zituzten. Baina, osasun egoera dela medio, ez egitea eraba-

ki dute. Hala ere, herritarrek eta udala ez daude geldirik eta herrian gertatutako zenbait gertakari azaltzen dituzten oroigarri plakak ezarri dituzte.

Azaroan eginiko Kottoren horma-irudia, Mikel Zabalza-
ren horma-irudiaren ondoan

paratu dute. Bertzalde, Manuel Andueza Elizalderen omenez memoria plaka bat paratu dute.

Hiru bizipen, herri bat

Memoriaren lorategi honetan hiru herri ekintzaileri gertatutakoa gogorarazi nahi izan dute. 1970eko ekainaren 15ean Manuel Andueza Elizalde beratarrak, Donostiara bidean zihoala, auto istripu baten ondorioz errepidean gelditu behar izan zuen. Guardia Zibilak, momentu hartan, hiru tiro eman zizkion bularrean.

1985eko azaroaren 25ean Mikel Zabalza Donostian atxilotu eta Intxaurrondoko komisaldegian bortizki torturatua izanaren ondorioz hil egin zen. Bere gorpua hogeita egun beranduago Bidasoa ibaian, Endarlatsan, azaldu zen, oraindik, eskuburdinak paratuak zituela.

Azkenik, 2005eko urriaren 31n Jose Angel Kotto Alzugurenak Soriako kartzelan bere buruaz bertze egin zuen, jasandako tortura eta tratatuaren ondorioz.

Ekimen honen sustatzaileek «hainbat bizipen, baina historia bakar bat osatzen» dutela aldarrikatu nahi izan dute honela.

Udalak onartutako bi adierazpen instituzional

Azaroaren 23an eginiko osoko bilkuran bi adierazpen instituzional onartu zituen Udalak. Alde batetik, azaroaren 13an, Marokoko Erresumak Fronte Polisarioarekin 1991n sinatutako su-etenen bukaera iragarrita, «elkartasuna eta babesa» adierazi die udalak Saharako Errepublikari Arabiar Demokratikoari, SEAD, eta Fronte Polisarioari». Bertzalde, Euskararen Nazioarteko Egunaren harira, udalak «euskara bertako hizkuntza gisa babestu eta sustatzearen aldeko» apustua egin du.

478 herritarrek parte hartu dute Euskaraldian

402 ahobizik eta 76 belarriprestak parte hartu zuten abenduaren 4an bukatu zen Euskaraldian. Herriko 28 entitatek ere izena eman zuten arigune gisa. Orain, erronka, hamabortz egunetan hartutako hizkuntza ohiturak mantentzea da.

ANTZUZELAI S.L.
BERA • T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com
www.antzuzelai.com

HARGINTZA
FATXADAK
TXIMINIAK
ZOLAK
TAILLA ARTISTIKOAK
OBRAK

Anterola
Tekniko instalatzailea
ITURGINTZA • GASA
KALEFAKZIOA
Zerbitzu anitzak &
Gremioen koordinazioa
629 449 602

LABE ZAR
948 631 076 • BERA

Astelehenetik
ortziralerara:
07:15etik
aitzinerara
Larunbata
eta igandea:
08:00etatik
aitzinerara

Alberto RETEGI
abokatua
948 630 763 • Altzate, 17 • BERA

AUZO GO!
ANIMO GUZTIOTI!

- Etxez etxeko zerbitzua egunero BERA eta LESAKAN
- Itxierak irauten duen bitartean.
- Astelehenetik igandera, 12:30etik 15:00etara eta 19:30etik 22:00etara.

ESKAERAK:
www.auzogo.com • T. 948 6315 09

xirgil
jalone goya

ileapaindegia mistoa
Altzate 1, 31780 BERA
948 631 462

Arturo
Mila esker gurekin
bat egiteagatik!

arropa-denda | etxeko osagarriak | lentzeria
Altzate, 30 BERA T. 948 630 136

3.587.865 euroko aurrekontua onartu du Udalak

Datorren urterako aurrekontuak onartu ditu azaroaren 23ko osoko bilkuran eta iazkoan baino 151.278,70 euro gehiago

IZASKUN REKARTE

Covid-19aren pandemia dela eta, 2020ko aurrekontuaren exekuzioa ahalbidetzeko hainbat partidetan aldaketak egin behar izan ditu udalak. «Heldu den urtean egoera berean egon gaitezke, osasun larrialdia anitz hobetzen ez bada behintzat. Ziurgabetasuna da nagusi, osasunak izanen du lehentasuna, eta horretara bideratu beharko dugu dirua ere», aipatu digu Aitor Elexpuru alkateak.

Sarreraren atalean, aipatu behar da, tasarke ez duela igo-

ko udalak. Horrela erabaki dute pandemiaren eraginez herritarren egoera ekonomikoa kaltetua izan delako.

Nafarroako Gobernuak Toki-Ogasun Funtsa, hau da udalei banatzen zaien fondoa, diru-sarrera garrantzitsua da eta aurten 867.764,32 euro espero dituzte.

Dirulaguntzak nahitaezkoak

Inbertsioei aurre egiteko nahitaezkoak ditu dirulaguntzak udalak. Bi iturri izanen dituzte bereziki. Alde batetik, Covid-19a pandemiari aurre

egiteko Nafarroako Gobernutik jasotako 167.000 euro. Bertzetik, Nafarroako Gobernuak eta EH Bilduk sinatutako akordioan Toki Ona Institutuko patioan estalpea egiteko aurrekontua eta Porttu interpretazio zentroaren proiektuarekin jarraitzeko 64.000 euro esleituko da.

Baserrietako pistak moldatzeko dirulaguntzak ere eskatu dituzte Nafarroako Gobernuan, baita mendietako lanetarako ere.

Musika eskolaren kasuan, Nafarroako Gobernuaren aldetik finantziarioa «hagitz eskasa da». Hasieran %33ko dirulaguntza zen eta egun %17 ingurukoa da Iruñetik iristen dena. «Berako Udalak urtero lan eskerga egiten du dirulaguntza eskaerak jasotzeko eta horri esker inbertsio mailari eutsi diezaiokegu, banketxei mailegurik eskatu gabe eta herritarrek sobera estutu gabe. Honek administrazio lan han-

dia eskatzen du baina bertze finantziario sistemarik ez dagoen bitartean horrela ari behar», dio Elexpuru. Irteeren atalean gastu arruntak berdintsu mantenduko dira.

470.000 euro inbertsioetan

Egiten diren inbertsioen artean, mendi garbiketak, Idoia-ko pistaren moldaketa, Zalaingo autobus geltokia, herriko etxean zerbitzari berria, eskolan obrak egitea eta Matzadako kirol gunea egokitzea izanen dira.

Etxebizitzari dagokionez, proiektu garrantzitsu bat du martxan: Kaxernagainekeko babes ofizialeko zortzi etxebizitzaren eraikuntza eta espero dute etxebizitza hauek 2021. urtean eraikiak izatea.

Azkenik, aurrekontu proiektu hau proposamen bat bertzerik ez dela azpimarratu du alkateak, «urtea nola joaki den ikusi behar da, eta horren arabera, aldaketak izan daitezke».

Xulufraia
emakume arropa
osagarriak
dekorazioa

Abenduak 19, 24, 26 eta urtarrilak 2
eta 5 goiz eta arratsaldez IREKIA

Alzate 18, BERA. 948 631 266

Udazken-neguko arropa

Osatz
Psikologia - Psikoterapia
Zaindu zeure burua

Garbiñe Goia Irazoki
Antsietateak, depresioak, dolu prozesuak, tristurak, beldurrak, autoestima arazoak, elikadura nahasketak...

Haurrak, Nerabeak, Helduak
T. 619 343 755 · Alzate 1 · BERA

Gabonetako
deskontu bereziak
-%20
eguzki betaurrekoetan
abenduaren 9tik urtarrilaren 5era

Ostargi optika

Bea Artola Ferran Optiko-optometrista kol.zk: 9812
Bidasoa 8 BERA Tfno: 948 630 753

OPARI TXARTELA
Zure esku



UTZITAKO ARGAZKIA

Mercedes Barrenetxeak ehun urte

Ehun urte bete zituen azaroaren 29an Mercedes Barrenetxeak. Eusebio Iñiguezekin, bere senarra zenarekin, *Leiza* etxetresna dendan lanean aritu zen. Lau seme-alaba izan zituzten, eta hauek zazpi biloba eta lau birbiloba eman dizkiete. Anitz urtez Mercedes, eta segi bizkor!



Ricardo Barojako ikasleak Alkaiagako Garbigunean. UTZITAKOA

Ricardo Baroja ikastetxeko ikasleek Alkaiagako Garbigunea bisitatu dute

Hondakinak Prebenitzeko Europako Astearen harirat, Bortzirietako Mankomunitateak, Bortzirietako ikastetxeekin batera, hainbat jarduera antolatu dituzte hondakinen sorrera murriztearen garrantziaz ohartarazteko.

Jarduera hauen baitan Ricardo Barojako ikasleek Garbigu-

nea bisitatu zuten. Bertan, zer hondakin mota biltzen den eta mankomunitateak hondakin horiekin zer kudeaketa egiten duen ikusi zuten.

Gainera, bisitaren ondotik, kantinplora bana jaso zuten, erabilerarako plastikozko botilen hondakinak murriztea sustatzeko.

amalein
ARRAINDEGIA

948 630 981 • 620 828 757
Itzea, 6 • BERA • NAFARROA

Ainhua Altzuguren Mitxelena

**Abokatutza orokorrean • Herentziak
Alokairuak • Lan aferak**

Zerbitzua euskaraz ematen dut.
Deitu eta solastatuko gara.

BERA - M. 630 97 21 89
ainhoaaltzuguren@gmail.com

Jaurena

Zure oparia hemen!!!

T. denda 948 631 217 • T. 630 136 863 • Julio Caro Baroja, 6-BERA • jaurenabera@gmail.com

Pepito Yanciren musika liburu eta USB batean bildua

Musika bandak 25 eurotan salgai paratu du akordeoilari handiaren partiturak eta doinuak jasotzen dituen lana

AITOR AROTZENA

Pepe Yanci *Aizali* (Lesaka 1917-Donostia 1985) soinularien eta trikitilarien erreferentzia nagusietariko bat izan da Euskal Herrian. Hori dela eta, 2017. urtean (musikariaren jaiotzaren mendeurrenean), herriko musika bandak omenaldi berezia eskaini zion sorterrian, Donostiako Victoria Eugenia eta Iruñeko Gaia-rra antzokietan. *Pepito Yanci, beti bizi* emanaldian, bere musikarekin batera bere bizia ere ikusgai jarri zuten.

Bere jaiotetxean aurkitutako maletatxo batean hainbat partitura eta dokumentu aurkitu zituzten, denera 500 bat obra (fandango, arin-arin...) konposatu baitzituen. Hori dela eta, «amets eta proiektu zoragarri bat» burura etorri zitzaion musika bandako kideei, hau da, «bere musika eta konposizio ezagunenak audio bidez mundu guziri ezagutaraztea eta aldi berean bere obra partituras osatutako liburu baten bidez soinulari eta trikitilari guztiei zabaltzea». Bai audioak baita partiturak ere USB batean



Pepito Yanci soinulari handia.

txertatu dituzte eta hauek grabatzeko gaur egun munduan ezaguna den Iñaki Dieguez soinulariaren laguntza izan dute. Berarekin batera, Xabi Zabala, Antxon Gisasola eta musika bandako kideak aritu dira lan berezi honetan buru-belarri.

Audio-liburua Telletxea liburu-dendan salgai jarri dute (25 euro). Postaz bidaltzeko aukera ere eskaini du musika bandak. Kasu horretan, liburu baten prezioa 33 euro izan da (bidalketa kostuak barne), bi libururena 58 euro eta bi liburu baino gehiago nahi dituenari, *pepitoyanci@gmail.com* helbide elektronikora eskaria bidali eta aurrekontua egingen diote.



UTZITAKOA

Memoria historikorako oroitarriak

1939 eta 1942 urteen artean, Lesaka eta Oiartzunen arteko errepidea bortxan egiten aritu ziren gatuak gogoratzeko, hiru oroitarri paratu ditu udalak: Erdiko-Errotan, Agiñan eta San Antonen. «Historia errepikatu ez dadin, denok ezagutu dezagun gure herriaren eta herritarren iragana».



UTZITAKOA

Presoak etxeratzeko eskaria plazan

Izan Bidea ekimenaren baitan, eta *Bidea gara, bidean gaude* goiburuarekin bat eginez, 200 bat lagun bildu ziren azaroaren 21ean egindako manifestazioan, presoak eta iheslariak etxeratzeko eskatuz. Hori baino lehen, goizean, *patioan bueltan* jarduera antolatu zuten, presoan egoera azalduz.



· Eguberrietako Pazko lore aukera ezberdinak
· Etxea apaintzeko gaiak
· Arropa eta osagarriak

ETORRI ETA IKUS!!!

Albistur 39 LESAKA · T. 948 627 542



Kimaketak | Mantentze-lanak
Lorategiak Diseinatzea eta Sortzea
Ureztatze Sistema Automatikoak
Paisajismoa



T. 619 418 683 | LESAKA | johnntelletxea@hotmail.com
www.telletxealorezaintza.com



Ladis Satrustegi alkatea, Igor Lopez de Uralde, Ainhoa Retegi eta Mikel Valero, aurkezpenean. AITOR AROTZENA

Oinezkoek lehentasuna izateko plana bidean da

Mugikortasun Plana gauzatzeko herritarren konpromisoa nahitaezkoa izanen dela azpimarratu dute aurkezpenean

AITOR AROTZENA

Mugikortasun Planaren aurkezpenean egin zuen udalak azaroaren 19an Harriondoan burututako ekitaldi jendetsuan. Bertan, urte honetan zehar egin den Mugikortasun Planaren emaitzez gain, hurrengo urtean udalak mugikortasun arloan egingen dituen in-

bertsioen berri eman zuten. Gaiaren interesak bultzatuta lesakar aunitz bildu zen.

Ladis Satrustegi alkateak aipatu zuenez, Mugikortasun Planaren helburua «hurrengo urteetan Lesakan mugikortasunaren inguruan egingen diren esku-hartze eta egitasmoen plana definitzea da, irizpide

jasangarri eta inklusiboak erdigunean ezarrita». Udalak apustu handia egin duela azpimarratu zuen, baina helburuak betetzeko herritarren konpromisoa nahitaezkoa dela gogorarazi zuen, «gutako bakoitzak ohitura aldaketa batzuk egin beharko ditu».

Oinezkoek lehentasuna

Herritarrek erantzundako galdetegiaren emaitzetan garbi ageri dago hiru geruzatan oinezkoek lehentasuna ematearen alde dagoela. Espaloiaren egoera ere kezka-iturri da eta hauek zabaltzea eta irisgarritasuna errazteko koskak jaustea eskatzen dute.

Mugikortasun Plana hiru elementuren arabera antola-

tu dutela jakinarazi zuten Hiritik Atko kooperatibako kideek. «Mugikortasun jasangarri bat lortzeko bidean, herria egokitu behar da, zenbait gauza arautzea beharrezkoa da eta herritarrek ere inplikatu behar dute», aipatu zuten.

Herrigunea hiru geruzatan banatu dute horretarako. «Kanpoko aldea, orokorrean mundu guztiarentzat irisgarria izatea bilatu behar dugu, mugitzeko erosoa eta bideak ez dute oztoporik edo etenik izan behar; erdigunetik hurbilago dagoen bigarren geruzan, motordun ibilgailuei ematen zaien espazioak eta oinezkoek ematen zaienak berdinduak egon behar dute eta, herriaren bihotzean, plaza, jubilatuen egoitza eta Zabalera dorrearen inguruak mugatzen duten eremu horretan oinezkoek izan behar dute lehentasunik handiena».

Materialaren erabilerekin arautu nahi dute ibilgailu eta oinezkoen arteko harremana plaza inguru horretan, testura ezberdineko materiala erabiliz: ibilgailuentzako adokin tikiagoa abiadura murrizteko eta oinezkoentzako losa handiagoa erosoago ibiltzeko, baina altuera berean.

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

IRU-BIDE
OSTATU • JATETXEA
Arratzubi Kalea 3
31770 LESAKA
T. 948 63 71 27

Hemen erabili
kattagorria
LESAKA
948 627 514
www.kattagorria.com

PAGOLA
Harategia - Hestebeteak

Altzate Plaza, 2 · Bera · T. 948 63 00 54
www.embutidospagola.es

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Eguberri eta urte berri on!!

Zalain Auzoa z/g 31780 Bera
t. 948 631 106 w. www.zalain.info



Paletak nola egiten diren zuzeneko erakustaldia izan zuten. LANDAGAIN ESKOLA

118 dozena uso harrapatuta bukatu da sare denboraldia

Haizete zakarrak sareetako lau zuhaitz bota zituen eta sasoi osoan hamabortz egunez bakarrik hedatu zituzten sareak

IRUNE ELIZAGOIEN

Azaroaren 20an bukatu zen sareko uso harrapaketa denboraldia. Gorabeheraz jositako denboraldia izan da. Sasoiak irauten duen 50 egunetatik 15etan bakarrik jarri ahal izan zituzten sareak, baina halere 118 dozena uso harrapatu zituzten.

Bisita gidatuei dagokienez, egungo osasun krisiak bisitari kopuruan jaitsiera nabarmena eragin du. Aurten 100 lagunek egin dute bisita gidatua, bertze urteetako erdiak baino guttiago. Bisitari gehienak nafarrak izan ziren, baina

sasoiaren hasieran Euskal Autonomia Elkartetik ere hurbildu ziren. Aurten ezin izan dira ohiko ospakizunak egin eta abenduan egiten den Pirinioetako usazaleen bazkaria ere bertan behera gelditu da.

Bertzetik, Landagain eskolako ikasleek ezin izan dute Usategietara joan Covid-19ak eragindako segurtasun neurriak direla eta. Haurrek hain gustuko duten egun honi keinu bat eginez, nolabait Usategiak herrira jaitsi ziren eta bi egunez hainbat ekintzaz jositako jarduerak egin zituzten eskolan, baita plazan ere.

Ezohiko Eguberriak izanen dira aurtengoak

Abenduaren 24an, jende pilaketak saihesteko, Olentzeroen irudi bakarrarekin 16:30ean herriari itzulua ematea da asmoa. Herriko musikarien laguntzarekin girotuko da itzulua. Urtero bezala, Olentzero menditik etorriko denaren itxaropenik ez dute galduko etxalartarrek. Aurten ez da mezarik izanen egun honetan; Eguberri egunean, ohiko moduan, eguerdiko 12etan izanen da. Egunean indarrean dauden neurrien arabera egun honetako egitaraua aldatu daiteke.

Azaroaren 25ean elkartasun pankarta eta musukoa

Azaroaren 25ean ospatu zen emakumeen indarkeriaren aurkako egunari keinu bat eginez, pankarta bat jarri zen plazan bortxaketen aurka denok bat garela erranez eta eraildako emakumeekiko solidaritate keinu bat eginez. Herriararren artean musuko moreak banatzeko ere aprobetxatu zen momentu hori.



LANDAGAIN ESKOLA

Yolanda Arrieta idazlea eskolan

Azaroaren 20an Yolanda Arrieta idazlea Landagain eskolan egon zen irakurzaletasuna sustatzeko eskola ekimenaren barnean. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren mailetako ikasleek izan zuten saioaz gozatzeko aukera eta primeran pasatu zuten.


BIDASOA
 ascensores



IGOGAILUEN SEKTOREAN ENPRESA LIDERRA GARA



IRUN: Primautzar 19 - T. 943 05 90 53
ERRETERIA: José María Usandizaga 8 - T. 943 96 93 49



INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTOAK



DESINSEKTAZIOAK • ARRATOI-HILTZEAK • EGUR TRATAMEDUAK

T. 948 625 597 • Zalain, 42 B • BERA



USOA
Nekazari kooperatiba

**ORAIN
GASOLINA ERE**

T. 948 635 214 ETXALAR



BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA
GIMNASTIKA ETA FITNESS MAKINAK
bizikleta estatikoak, lasterketako zintak...

2. eskuko bizikletak

Kanttonberri, 1 | BERA | T. 948 631 218 | joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

*Eguberrietako
oparirik ederrena*
ETORRI ETA SOLASTUKO GARA

SCOTT PINARELLO

MASSI
ALWAYS AHEAD

MERIDA
BIKES

BERGAMONT

BH

COLNER

LOOK





Duela 25 urte inauguratu zuten Baratzondo konpontzen ari dira. MAITE, ANA ETA ITZIAR

Baratzondo moldatzeko lanak hasi dituzte

Kanpoko aldeko paretak moldatu eta margotu dituzte eta egoitzara joateko eskailerekin eta barandekin hasi dira

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Heldu den udan piszina irekiko delako esperantzarekin, hasiak dira Baratzondoko eraikuntzan prestaketa lanean.

Kanpoko aldeko paretak moldatu eta margotu dituzte eta orain jubilatuen egoitzara joateko eskailerak, barandak eta bertze osagarriak moldatzen ari dira, erabiltzaileen segurtasuna eta irisgarritasuna hobetzeko asmoarekin.

1995eko maiatzaren 6an izan zen Baratzondoko gunearen inaugurazioa. Urte pare bat lehenago hasiak ziren lanak



Baratzondo eraikitzen. OSKAR TXIOPERENA


egiten. Goiko aretoak, herriko adinekoentzat egin zenak, urte berean ireki zituen ateak, pixka bat beranduago, irailean. Geroztik aunitz erabili den eraikina izan da eta bazuen moldaketaren beharra.



MARTIN LEGARRA

Paris 365erako janari bilketa ederra

Jarri dute martxan aurten ere Paris 365 erakunderako janari bilketa eta arront erantzun ona izan du, Igantzin eta Arantzian 3.260 kilo bildu baitituzte. Batzuek jatekoa emanez adierazi nahi izan dute elkartasuna eta bertzeek dirua emanez. Argazkia Iruñeko biltegian ateratakoa da.



MAITE, ANA ETA ITZIAR

Azaroaren 25eko kartel eta muralak

Azaroaren 25aren harira, herrian barrena mikromatxismoari buruzko zenbait kartel paratu zituzten. Era berean, frontoian mural haundi bat paratu zuten, *Indarkeria matxistaren izeberga*, nahi zuenak bizipenak elkarbanatu edo iritziak eman ahal izateko.

E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
 Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
 tabernabera@gmail.com
 www.tabernaedariak.eus

ZUBIONDO
 JATETXEA-SAGARDETEGIA

*Eguberri
 eta urte berri on!!!*

T. 948 625 472 | Alasta karrika - BERA | zubiondojatetxea.com

- EGUNEKO MENUA
- SAGARDETEGI MENUA
- KARTA
- OGITARTEKOAK
- PLATER KONBINATUAK ...

Pantaleon Errandonea joan zaigu

Euskal Herrian arpanlari gisa egin zen ezagun eta Arantzán herrigintzan ibili zen hainbertze urtez

NEREA ALZURI

83 urterekin azaroaren 22an hil zen Pantaleon Errandonea. Euskal Herrian barna jokatu zituen arpan apustu eta txapelketengatik egin zen ezagun. Tartean, Euskal Herriko txapela ere jantzi zuen. Arantzán, ordea, hori baino gehiago izan zen: zinegotzia, Ekaitza Elkartean edo Bortzak Bat Kooperatibian azkarki egindakoa... Urte aunitzez neska-mutikoei herri kirolak erakusten ibili zen eta herriko bandera urte aunitzez dantzarazi zuen. Borondate handikoa zen, beti laguntzeko



MIKEL LARRETxea

prest izaten zena eta omenaldiak ere jaso zituen: 1991n Nafarroako Herri Kirol Federazioaren omenaldia jaso zuen eta 2017ko trikitixa jaialdian, udalak herriaren alde eginikoa eskertzeko omendu zuen.

181 lagunek parte hartu dute Euskaraldian

Gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan lelopean, Euskaraldiaren bigarren edizioa pasatu berri dugu. Azaroaren 20tik abenduaren 4ra, herriko 174 *ahobizi* eta zazpi *belarriprestek* burutu dute ariketa soziala. Duela bi urte, 153 izen-emate izan ziren, eta beraz, goiti egin du kopuruak. Egoeragatik, *ariguneetan* zaila izan da osotasunean ekimena aitzinera eramatea baina, 15 egunez, txapak, banderolak eta bertze izan dira Euskaraldiaren keinu. Abenduaren 4a eta gero ere, horrela segitu dezagun euskara erabiliz.

Kontribuzioak jende aitzinean paratu ditu udalak

Udalak 2020ko kontribuzioak jende aitzinean paratu ditu herriko etxean. Nahi duenak katastroaren orria nahi izanez gero, kopia bat ere eskatu ahal izanen du.

Udaletik adierazi dutenez, ordainketak banketxeetan helbideratuta dituztenei abenduaren lehenean zuzenean kontutik kobratu zitzaizkien. Banketxeetan helbideratuta ez dituzten herritarrek, berriz, abendu osoan egiten ahal izanen dute ordainketa udaleko kontu zenbakietako baten.



JOSE RAMON AMOROS

Paris 365i laguntzeko 3.260 kilo elikagai

Elkartasun handia erakutsi dute herritarrek aurten ere, Paris 365 elkartera bideratzeko janari bilketan bildu dena handia izan baita. Arantzán eta Igantzín 3.260 kilo bildu dituzte guztira. Herriko bilketa azaroaren 27an egin zuten Bortzak Bat Kooperatibian eta biharamunean Iruñera bidali zuten.



UTZITAKOA

Ezetz beti ezetz dela aldarrikatu dute

Joan den azaroaren 25eko eguerdian, Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Egunean, elkarretaratzea egin zuten hainbat herritarrek plazan. Ez zen aitzineko urteetan adina jende elkartu, baina bildutakoek *ezetz beti ezetz dela* garbi utzi nahi izan zuten.



aterpe

albergea jatetxea ostalua

T. 948 634 179 | ARANTZA
www.arantza.net

AMA KONTXA

GASOLINDEGIA

- ONGI FILTRATUTAKO ERREGAIA (A Gasolioa, B Gasolioa, SP 95, Adblue)
- 24 ORDUKO ZERBITZUA
- TELEFONOA ETA FAXA
- APARKALEKUA
- KUTXAZAIN AUTOMATIKOA
- SUPERMERKATUA
- LABETIK MOMENTUAN ATERATAKO PIZZAK ETA OGIA
- ARROPA GARBIGAILUA ETA LEHORGAILUA

GASOLIOA ETXERA

ETXERA BEREHALA ERAMATEN DUGU. PREZIO LEHIAKORRA

Ctra. N-121-A · Km 48,8 · DONEZTEBE · T. 948 450 272 · 948 450 787

Herrigune historikoa zaharberritzeko gune izendatu dute

Herriarrek zaharberritze lanak egiteko dirulaguntzak eskatzen ahal dituzte

MARGA ERDOZAIN

Nafarroako Gobernuak herri-gune historikoari zaharberritzeko gune izendapena aitortu dio. Ondorioz, herrigune horretan egiten diren zaharberritze lanak diruz lagunduak izan daitezke. Herriko Etxeak horretarako dagokion orde-

nantza onartu du (hirigintza planean jaso dute) eta herriarrek laguntzak eskatzen ahal dituzte. Udalak, gainera, urtero aurrekontu partida bat horretara bideratuko du. Pizgarri ekonomiko interesgarria izan daiteke zaharberritu nahi diren eraikinentzat.

GUTUNA

OLENTZERO, MARI DOMINGI ETA ERREGEAK

Zorionak eta urte berri on!

Esker mila urte gogor honetan hain ongi portatu izanagatik, batez ere txikienak. Zorionak eskolan, dendatan, jatetxeetan, ostatueta, karriketan... ahaleginak egin dituzuen guztiei. Pazientzia eskatzen dizuegu, poliki-poliki dena moldatuko baita. Etxeko txikiak, zaudete lasai, aurtan ere zuen etxeetatik pasako baikara, ez dugu desfilerik nahi, baina etorri, etorriko gara. Utzi dena prest, gure bisita izanen duzue eta!



ERREKA KIROL ELKARTEA

Txikon, Mendiaren Eguneko protagonista

Alex Txikonek *Mendi biluzia* dokumentala aurkeztu zuten Erreak antolatutako Mendiaren Egunean. Mendizale bizkaitarrak eta bere taldekideek 2016an Nanga Parbatera egindako igoera ardatz duen dokumentala 180 lagunek ikusi zuten, hiru emanalditan banatuta.

Udalak Eguberrietako postalak sortzeko deia egin du

MARGA ERDOZAIN

Irudimenaldu eta Eguberriak iragartzeko postala sortzeko deialdia egin du udalak. Parte-hartzaileek formatu eta teknika libre erabiliz egin dezakete postala. Lanak udaletxean (09:00etatik 14:00etara) edo liburutegian (16:30etik 20:00etara)

aurkeztu daitezke, postalarrekin batera izena, telefonoa eta adina zehaztuz. Azken eguna abenduaren 11 izanen da eta ondotik parte hartu dutenen artean herriko saltokietan erositako produktuekin osatutako hiru zarezozketatuko dituzte. Informazio gehiago: 641 58 99 08.



ORBELA
SENDERISMO ALTERNATIBA
BEINTZAKO OSTATUA
Idoia - Mikel
Tel. 948 450 014 · BEINTZA-LABAIEN
info@orbela-beintza.com
www.orbela-beintza.com

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN

facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa

EDERKI tailerra

CITRÖEN ZERBITZU OFIZIALA
'Latigillo' hidraulikoen moldaketa
PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK
24 ORDUZ GRUA ZERBITZUA
Leitzako bidea · DONEZTEBE · 948 450 525

Liburutegia itxita abenduaren 23tik urtarrilaren 4ra

Liburutegia abenduaren 23tik urtarrilaren 4ra itxita egonen da. Abendu hasieratik, Ipuin Txokoa aurrez aurreko jarduerarekin hasia da eta urtarri-laren 12tik aitzinera ere hala segituko du. 0-3 urte bitarteko haurrek Haizea Loiraren kontaketa gozatuko dute.

Ene Kantak ikuskizuna hilaren 27an Donezteben

Ene Kantak taldearen *Liluragarria* emanaldiaz gozatzeko aukera izanen dute herriko eta inguruko txikiek Eguberrietan. Abenduaren 27an, igandean, dute hitzordua, arratsalde. Bi emanaldi izanen dira eta sarre-rak eskuratzeko udalaren jarraibideei adi egon beharko da.

Doneztebeko Udalak pisu baten enkante publikoa egin du

MARGA ERDOZAIN

Doneztebeko Udalak Leitzakarrikan 1. zenbakian duen lehenbiziko etxebizitzaren (1.A, ezkerre) enkante publikoa egin du. Interesdunek eskaerak abenduaren 17ra arte, hau da, ortzegunera arte, aurkeztuzakete. Sarrerako prezioa

71.144,79 euro izanen da, hortaz, baldintza-agiri horretan adierazitakoa baino tasa txikiagoa duen eskaintzarik ez dute onartuko. Informazio guztia eta bete beharreko eranskinak www.doneztebe.eus webgunean daude irakurgai.

Mendian federatu eta aseguru atera nahi dutenei deia egin die Errekak

MARGA ERDOZAIN

Erreka kirol elkarteak 2021ean Errekarekin federatu eta mendiko aseguru atera nahi dutenei dei egin die. Modu berean, momentu honetan federatua dagoenak eta baja eman nahiko lukeenak abenduaren 20a arteko epea du.

Bide batez, federatu ahal izateko Errekako bazkide egin behar dela oroitarazi dute (25 euro ordaindu behar dira).

Bertzalde, elkarteak urtero egiten duen saskiaren zozketa abenduaren 18an egingen dute 20:00etan elkartearen egoitzan.



Azaroaren 25ean indarkeriaren aurkako lanketa egin zuten. ESKOLAK UTZIA

Hainbat lanketa egin dituzte eskolan

Urtero bezala, eskolako egutegia prestatzeko argazkiak atera eta muntaiak egin dituzte

MAIDER PETRIRENA

Osasun neurri guztiak bermatuz, hainbat ekitaldi dituzte eskolan.

Indarkeriaren aurka

Azaroaren 25ean emakumeenganako indarkeriaren aurkako lanketa egin zuten: ipuinak irakurri, eskola apaindu...

Euskaraldia eta Liburuak Gozagarri

Azaro hondarrean hasita Euskaraldiaren unitate didaktikoa landu eta eskola apaindu zu-

ten, euskararen erabilaren garrantzia ageriko eginez. Abenduan, Liburuak Gozagarri programaren barne, Yolanda Arrieta, Pako Aristi eta Lupe Lekuona idazleekin bina saio izan zituzten.

EITB maratokia

Eskolako ikasle eta irakasleek, EITB maratoiarekin bat eginez, kanta zati bat abestu, bideo bat osatu eta bidaliko dute. Bertsoa 5. mailako ikasleek Iker Gorosterrazu irakaslearekin osatu dute.

Eskola Kontseilua

Izen-abizenak	Postua	Iraupena
Marta Mariezkurrena	Kontseiluburua	Zuzendaritza berritu arte
Ana Urroz	Idazkaria	Idazkaritza berritu arte
Oihana Arriola	Gurasoen ordezkaria	2022
Ana Arretxea	Gurasoen ordezkaria	2024
Leire Hualde	Irakasleen ordezkaria	2022
Junkal Iparragirre	Irakasleen ordezkaria	2024
Andrea Mendiburu	Irakasleen ordezkaria	2024
Ana Arretxea	Guraso elkarte kidea	2022
Joxe Bidal Ibarra	Udaleko ordezkaria	Udala berritu arte

Lizun
GAZTANDEGIA

Sunbilla · Tel: 948 450 862

BORDALARRIA

Gure Haragia
Nuestra Carne

Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com



Alfredo Zugarramurdi azken hamarkadetan hainbat uholde eragin dituen San Tiburtzioko presaren ondoan. AITOR AROTZENA

«San Tiburtzioko presa berandu izan baino lehen kendu behar da»

ALFREDO ZUGARRAMURDI ZOZAIA DONEZTEBEKO UHARTEKOA

Datorren urtean beteko ditu 75 urte Doneztebeko San Tiburtzioko presak eta, legearen arabera, gaur egun Iberdrolak daukan kontzesioa epe horretan akituko da

AITOR AROTZENA | DONEZTEBE

AEMS-Ríos con Vida de Navarra elkarteak eskaera bat aurkeztu du Kantauriko Ur Konfederazioan (CHC), Donezteben Iberdrolaren San Tiburtzioko zentral hidroelektrikoaren kontzesioa iraungitzeko. Bidasoa ibaian ditu instalazioak, Doneztebe eta Sunbillaren artean, eta 74 urte daramatza indarrean. Legeriak gehienez ere 75 urteko muga jartzen die instalazio horiei (zehazki, 2021eko urriaren 14an beteko da), eta muga hori bete baino hiru urte lehenago has daiteke iraungitze-espediente. Horregatik egin du orain eskaera elkarte horrek. Oharrean dioenez, instalazio

horrek eta Arrizurriagako presak (San Tiburtzio ere erraten zaio) «izokinak migratzeko eta inguru horretan biodibertsitatearendako sortzen dituen ingurumen-arazoez gain, ia 75 urtez, uholde ugari eta errepikatuak eragin ditu Donezteben, eta, noizbait presa kolapsatuko balitz, Sunbillarendako arrisku larria izanen litzateke».

Idatzian adierazi duenez, Doneztebeko jendea «nazkatuta» dago azpiegitura horrek. Hain zuzen, 1980ko hamarkadan alkate izan zen Alfredo Zugarramurdik lagundu die alegazioekin, eta hamarkada batzuk daramatza presa horrek uholde bat dagoen

bakoitzean sortzen dituen ondorioez kexatzen. Uharte etxeko balkoitik hartu gaitu Zugarramurdik. 1983an altuera horretara ailegatu zen uholdea, eta «behiak ukuilutik atera eta mendira bota behar izan genituen» gogoratzen du.

Aitzinetik ez zela halakorik eta presa eraiki zenetik, ia urtero izaten dituztela uholdeak dio, «elur gehiago egiten zue-nean, baita urtean bitan ere».

**«LEHERTUKO
BALITZ ARRISKU
HANDIA IZANEN
LUKE SUNBILLAK»**

Horretaz gain, 20-30 urtero 'tanta hotza' bezala ezagutzen den fenomeno gertatzen da eta urak dena eramaten du aitzinean. «1953an Bidasoko trenbidearen zati bat hondatu zuen eta nik uste horregatik itxi behar izan zutela hiru urte beranduago, kalteordainik jaso ez zutelako. 1983koa ere gogoan dugu aunitzek, 2009an...». Teknikoki, «inoiz eraiki beharko ez litzatekeen azpiegitura» dela uste du, «hasieratik gaizki diseinatua dago».

«Haize-erota batek Bidasoko zentral guztiek baino energia gehiago sortzen du»

Zugarramurdiren iritziz, horrelako instalazioek ez dute energia aunitzik sortzen, «haize-erota batek gaur egun Bidasoan funtzionatzen duten zentral guztiek baino energia gehiago sortzen baitu». Uste du, gainera, zentral eta presa horiek kentzeak N-121-A errepidea hobetzea erraztuko lukeela, «egungo trazadura neurri handi batean instalazio horiek baldintzatzen baitute. Zehazki, hemen (ibaia berritze aldera seinalatzen du) errepide horretako puntu beltzik handienetarikoa bat dugu, eta bihurgune hori kendu egin liteke San Tiburtzioko presa desagertzen bada».

Ríos con Vida elkarteak CHC-ri egindako eskaeraz gain, Zugarramurdik sinadura bilketa hasi du Donezteben, «batez ere, arazoa ezagutzera emateko, jende aunitzek ez baitu ezagutzen edo ez du kezkarik. Azken hamarkadetan izan diren kolore guztietako Nafarroako gobernuek bezala, ez diote kasurik egiten».

Azpiarratu behar da San Tiburtzioko zentrala dela Bidasoan iraungitzen den lehena, 75 urteko kontzesioa akitzeagatik, «baina hurrengo hamarkadan berrte batzuko iraungiko dira, eta pixkanaka ezabatuko direla espero dugu. Berri bikaina izanen litzateke hori ibaiarentzat, eta betetzea espero dugu».



Trikidantz taldea kontent eta eskertua dago. TRIKIDANTZ

Trikidantzek diskoa kaleratzeko jasotako laguntza eskertu du

Diskoa ez ezik, kamisetak, poltsak, motxilak, puak... egin dituzte eta produktu guztiak eskuragarri daude dagoeneko

TTIPI-TTAPA

2019ko udazkenean, Aurtizko lokalean sortu ziren 'Bizitzaz goxatu' diskako lehenbiziko doinuak eta letrak. Lokaletik estudiora bidean, Covid-19a izan zuen oztopo eta ordura arteko «lan guztia kolokan» gelditu zitzaion taldeari.

Proiektua itzaletik argira ateratzeko Estudios Musiikkira jo zuten eta Malmö designesen laguntza jaso zuten. Bainabi horien laguntzaz gain, «bertze hainbat laguntzaile» behar izan zituen Trikidantzek. Iturri ekonomikorik gabe gelditu zirenez, crowdfunding bat antolatu zuten eta, horren bidez, «Euskal Herriko herritar ugariaren» laguntza jaso zuten. Jendearen erantzun ona «aunitz eskertu» dute taldekideek eta «beraiek gabe diska kaleratzea ezinezkoa» izan zela adierazi dute.

Letrak eta ekarpena

Jendearen babesa ez ezik, Euskal Herriko hainbat bertsolariren ekarpena eskertu nahi izan dute, Eneko Fernandez, Beñat Gaztelumendi, Oihana Iguaran, Sustrai Colina, Xabier

Maia eta Ander Lizarraldekin «doinuak hitzekin jantzi» dituztela oroitaraziz.

Azkenik, diskoa koloreztatzeke jaso dutenen laguntza ere nabarmendu dute: «Jaione Larreren irrintzia, Ainara eta Ekiñe Mindegiaeren panderoa, Baztango hainbat herritarren eta Bertan merkatarik elkarteko hainbat kideren ahotsa adi daitekeelako abestietan».

Diskoa

Guztien lanari esker diskoa «dantzagarria eta dibertigarria» izatea lortu dutelakoan daude. Estilo aldetik ere anitza delakoan daude.

Diskoa ez ezik, bertze produktu batzuk ere plazaratu ditu taldeak: «kamisetak, poltsak, motxilak, puak...». Edozer eskuratu nahi duenak taldearen webgunean, kontzertuetan edo taldekideekin harremanetan jarri lortu ahal izanzen du. Eguberrietarako, gainera, produktu sorta bereziak izanzen dituzte, sare sozialen bidez zabalduko dituztenak. Inguurukoei edo zeure buruari oparitu, «gozatu bizitzaz eta goxatu diska eskuratzuz!».

Eskualdeko 4.094 lagunek parte hartu dute Euskaraldian

Duela bi urte baino 78 lagun gehiagok bat egin dute Euskaraldiarekin: 3.684 *ahobizk* eta 410 *belarriprestek*

	2018	2020	2018	2020	2018	2020	2020
BAZTAN	1.069	1.176	946	1.039	126	137	70*
Almandoz	4	7	4	7	0	0	0
Amalur	39	45	39	40	0	5	1
Aniz	24	23	24	23	0	0	1
Arizkun	63	54	55	52	8	2	2
Arraioz	31	42	29	39	2	3	1
Azpilkueta	17	28	15	27	2	1	0
Berroeta	16	26	19	26	2	0	0
Elbete	23	26	17	21	6	5	1
Elizondo	544	515	466	432	78	83	47
Erratzu	107	143	101	131	6	12	5
Gartzain	28	41	27	34	1	7	0
Irurita	54	116	44	104	10	12	4
Lekaroz	52	48	49	46	3	2	5
Oronoz	46	37	43	35	3	2	2
Ziga	19	25	17	22	2	3	1
BORTZIRIAK	1.192	1.189	1.009	1.056	183	133	90
Etxalar	88	105	82	92	6	13	11
Arantzaz	153	181	144	174	9	7	7
Igantzi	78	95	63	81	15	14	9
Lesaka	355	330	311	307	44	23	35
Bera	518	478	409	402	109	76	28
MALERREKA	590	569	557	520	92	49	21
B. Labaien	16	10	15	10	1	0	0
Bertizarana	59	65	48	59	11	6	2
Donamaria	57	80	47	74	10	6	1
Doneztebe	189	168	156	150	33	18	13
Elgorriaga	19	31	18	28	1	3	0
Eratsun	29	13	27	13	2	0	1
Ezkurra	7	3	7	2	0	1	1
Ituren	79	76	67	71	12	5	0
Oiz	2	2	2	1	0	1	0
Saldias	19	8	17	8	2	0	1
Sunbilla	88	63	78	56	10	7	2
Urroz	25	9	17	9	8	0	0
Zubieta	60	41	58	39	2	2	0
LEITZALDEA	624	854	609	812	54	42	62
Leitza*	477	495	435	467	42	28	42
Areso*	-	56	-	55	-	1	2
Goizueta*	147	275	143	265	4	10	17
Arano*	-	28	-	25	8	3	1
XARETA	440	306	328	257	112	49	12
Urdazubi*	-	82	-	71	-	11	0
Zugarramurdi*	-	-	-	-	-	-	1
Senpere	220	111	157	93	63	18	7
Sara*	220	113	171	93	49	20	4
*2018an aresora batzuek Leitza eman zuten izena; urdazubi eta zugarramurdi batzuek, berriz, Saran. Aurten zugarramurdiak Urdazubin, Saran eta Baztanen eman dute izena. Baztanen ariguneetan epea kanpo izena emandakoak batzordeak jaso ditu.							
GUZTIRA	4.016	4.094	3.449	3.684	567	410	255



Abenduaren 19an herrian barna ibiliko da Mari Domingi. ARTXIBOKOA

Olentzero eta Mari Domingiren bisita izanen dute Zubietan

Osasun neurri guztiak betez, abenduaren 19an eta 24an herrian barna ibiliko dira Olentzero eta Mari Domingi

FERMIN ETXEKOLONEA

Ezohiko moduan, baina Olentzero eta Mari Domingiren bisita izanen dute aurten ere Zubietan. Joan den urteetan bezala, Mari Domingi izanen da herria bisitatzen lehenbizikoa. Haurren eskariak zein diren jakiteko, gutunak biltzera etorriko da abenduaren 19an. 19:00 aldera ailegatuko da herrira eta karrikaz karrika ibiliko da.

Etxez etxeko buelta

Abenduaren 24a izanen da egun handia. Izan ere, Mari

Domingi eta Olentzero etorriko dira. Orain artean es-talpea izan ohi zen haurren eta bisitarien bilgune. Hala ere, koronabirusak eragindako egoeragatik, aurten jende pilaketak saihesteko, herrian barrena ibiliko dira.

Segurtasun neurri guztiak betez

Bizi dugun osasun egoera berezia dela eta, maskara jantzita etorriko dira Olentzero eta Mari Domingi eta haiengana gerturatzen direnek ere halaxe egin beharko dute.



Herritarrei eta bertaratzeko asmoa zutenei ez etortzeko eskatu diete. ARTXIBOKOA

Ituren eta Zubietako Udalek inauteriak ez ospatzea erabaki dute

ARKAITZ MINDEGIA

Ituren eta Zubietako udalek, azaroaren 25eko osoko bilkuran, «aurtengo herriko besta eta hainbat ospakizunekin egin den bezala» inauteriak ere bertan behera uztea erabaki zuten. Gaur egungo egoerazein den ikusirik, «hainbeste jende erakarri eta pila-

tzen duen ospakizun hau bertan behera uztea zentzuzkoa» delakoan daude.

Erabakia helaraztearekin batera, «herritarrei eta hurbiltzeko asmoa zuen jendea-ri ospakizunik ez egiteko eta egun horietan herrira ez bertaratzeko» eskatu nahi izan diete.

Pulunpa eskolako guraso elkarteak hiru zare zozketatuko ditu

ARKAITZ MINDEGIA

Pulunpa eskolako ikasle eta irakasleak ongi ibili dira lehenbiziko hiru hilabeteetan, orain arte ez dute gelarik konfinatu. Hala ere, aurten Eguberrietako jaialdirik ez dute izanen eta, horren ordez, ekitaldi xumeren bat egingen dute. Guraso elkarteak

boletorik ere ez du salduko eta horren ordez herriko komertzioetan laukitxoak erosteko aukera izanen da. Zenbaki bakoitzak bi euro balioko du. Parte-hartzaileen artean ikasleek etxetik eramandako produktuekin osatutako hiru zare eder zozketatuko dituzte.

Felixi eta Laxaro 'Esku begi sormen bizi' saioan

Iciar Mikelperizenak Xaloea telebistan aurkezten duen *Esku begi sormen bizi* programarako grabaketak egin dituzte Iturenen. Felixi eta Laxaro herritarrekin saio ikusgarria grabatu zuten. Ikusi eta gozatu!



UTZITAKOA

569 herritarrek parte hartu dute Euskaraldian

Malerreka eta Bertizaranako 569 herritarrek parte hartu dute Euskaraldiaren bigarren edizioan. Horietatik 520 izan dira ahobiziak eta bertze 49 belarriak prest zituztela aritu dira. Hizkuntza ohiturak aldatzeko pausoa emanda, orain bidea segitzeko aukera dute.

Jon Telletxea da Herri Kirol Federazioko lehendakari

Txapelketa eta erakusketa guztiak aurrera ateratzea dute helburu eta agintaldia bukatzean elkarte «hobe» utzi nahiko lukete

TTIPI-TTAPA

Azaroaren 22az geroztik, Jon Telletxea da Nafarroako Herri Kirol Federazioko lehendakaria. Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutututik deika hasi zirenean erabaki zuten Telletxeak eta bere taldekideek euren burua aurkeztea: «aurrekoek dimisioa aurkeztu zutenetik elkarte lehendakari gabe zegoen eta norbait behar zela esan ziguten. Tarte honetan inor aurkeztu ez zenez, hutsik geldituko zela ikusita, elkarte aurrera ateratzeko biltzea» erabaki zuten.

Momentu «zailak»

Ez dira garai onenak elkartearentzat, baina ilusiorik ez zaio falta Telletxeari. Argitu duenez, «elkarte egoera ekonomiko nahiko larrian» dago: «batetik, dirulaguntzak murriztu dituztelako eta aurrez zegoen diru poltsa azken urteetan desagertuz joan delako; eta bestetik, Covid-19aren ondorioz herri askok ez dituztelako bestak antolatu eta txapelketak, kasu askotan, ikuslerik gabe egin behar izan ditugulako...». Beraz, diru-sarrera horien falta izanzen dute datorren urtean. Hortaz, egoera honetan, «ahal den neurrian txapelketa guztiak aurrera ateratzea» izan dute helburu: «momentuz horretan ari gara, egoera hobetuko dela pentsatuz...».

Aizkoraren egoera «korapilotsua»

Aizkora besapean duela urte asko daramatza Telletxeak eta «azken urteetan bezalatsuko martxa» ikusten dio kirolari: «gazte batzuk sartzen ari dira,



Jon Telletxea.

eta guk gustukoa dugu eta parte hartzen dugu. Horrela, federazioa ere laguntzen dugu txapelketa betez eta...».

Orain, orde, egoera berezia da, aizkolari batzuek, federazioaz kanpo, beste txapelketa bat antolatu baitute: «batzuk ez zeuden ados baldintza ekonomikoekin eta txapelketa bat antolatu dute». Egoera «korapilotsu» horrek Telletxearen ustez «ez du askorik laguntzen». Hala ere, saiakeretan ez dute adostasunik lortu: «federazioa konponbide bat bilatzen saiatu zen baina beraiek hor ikusi dute bidea...».

Dagoena hobetzea helburu

Argi du «modalitate guztietako txapelketak eta erakusketak aurrera eramateko lan egin beharko» dutela, «eta ez gutxi». Hala ere, «talde polita» dira eta denen artean «eusteko» gogotsu daude: «orain dagoen egoera txarra hobetzen saiatuko gara agintaldi honetan». Herri-kirolak «bizirik eusten» saiatzeko eginahalak egiteko prest daude: «herri-kirolak kulturaren zati eta garai bateko lanen erakusle direlako».



UTZITAKOA

Bihotz-biriketako bizkortze ikastaroa

Eskualdeko bederatzi lagun (bi donamariar, bi eratsundar, Ezkurako bi, Iturengo bi eta saldiastar bat) bihotz-biriketako bizkortze ikastaroan bildu ziren azaroaren 28an Donamariako liburutegian. Larunbat goiz osoz hainbat herritan larrialdi kasuetarako paratu dituzten desfibriladoreak erabiltzen ikasi zuten.

Donamariako Udalak ondasunen kontribuzioa ordaintzeko epea ireki du

TTIPI-TTAPA

Landalurreko eta hirilurreko ondasunen gaineko 2020 kontribuzioa ordaintzeko epea abenduaren 30ean akituko dela aditzera eman du Donamariako Udalak. Helbideratuta ez dauden ordainagiriak Udalaren kontuan ordaindu-

ko dira, Nafarroako Rural Kuxan, aipatutako epean. Helbideratuak, berriz, azaroaren 24an kargatu zituzten, titularrak baimendutako banku-kontuetan. Zergaren likidazioak ez dira banaka helaraziko, nahi duenak udaletxean kontsulta dezake.



A. ITURRALDE

126 kiloko basurdea Beintza-Labaien

Inoiz ez bezala, 126 kiloko basurdea ehizatu zuten azaroan ehiztariek. Zakurrak bota ondoren, Sarasola, Irazabal, Arrixurita gurutzatu eta Learburreran barna Urrozko kanteraraino joan zen. Hor ehiztariek tiro batzuk eman ondoren Beintza aldera itzuli omen zen Iturrioz barrena. Goixutan eskurte inguruan menperatu zuten.

Gazteen lan-aktibazioa helburu proiektu aitzindaria

Baztan-Bidasoaldean aztertu du 'Giltza' programa Enplegu Zerbitzuak Nafarroa osora hedatzeko helburuarekin

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak, Nafar Lansarek, Baztan-Bidasoa inguruan gazteentzako lan arreta eta orientaziorako programa bat ezarri du. Programak, epe motzean, lan aukerak eta gizarte berrikuntza sortzea du helburu.

Sistema berriak, 'Giltza'k, prebentzio-ikuspegia du eta ikasketak akitu dituzten edo akituko dituzten gazteentzat da. Metodologia aktiboak eta erronkarako orientazioa erabiltzen ditu, eta orientazioan, enpleguaren sorkuntzan eta

hezkuntza/prestakuntzan aritzen diren eragilean eta erakundeen arteko harremanak lantzen ditu. Doneztebeko agentzian aztertu eta emaitza onak lortu ondotik, Nafarroako bertze enplegu bulego batzuetara eramanen dute, Iruñean eta Altsasun hasita.

Aktibazio proiektua Nafarroako Enplegu Zerbitzuak Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin batera orientazio-langileentzako antolatutako Unibertsitate Aditua ikastaroaren esparruan sortu zen. Prestakuntza horren barnean

esku hartzeko proiektuak abiatu nahi izan ziren. Nafarroako Enplegu Zerbitzuko (NEZ) aktibazio-langileek gazteekin esku hartzeko programa berriak martxan jarri behar zirela ikusi zuten. Doneztebeko agentzia hori gauzatzeaz arduratu zen Emplea Fundazioarekin batera eta Hezkuntza Departamentuarekin elkarlanean, zehazki, Elizondo Lanbide Heziketa Institutuarekin.

Aurkezpena

NEZ-NLko zuzendari kudeatzailea den Mirian Marton Doneztebera joan zen azaroaren 20an, Francisco Javier Martinez Ciarekin, Hezkuntza Departamentuko Kualifikazio Profesional, Enpresa eta Enplegu Zerbitzuko zuzendariarekin, prestakuntza egin duten hamaika gazteak ezagutzeko. Bertan izan ziren Baztan, Lesaka, Bera, Leitza eta Doneztebeko Udaletako eta Male-

rrekako Mankomunitateko ordezkariak.

Programak aktibatze baliabide berria sortu du NEZ-NLn, lehentasunezko talde batentzat espezifikoak; alegia, lan merkatu eta horren dinamiketara egokitutako baliabidea. Profesional batekin egiten den aurrez aurreko orientazioaren aurrean, eredu honetan 20 orduko tailerra sartzen da, aste berean ematen dena, erronkara bideratua eta proiektuetan oinarritutako lankidetzako ikaskuntza-metodologiarekin.

Nafarroan programa zabalitzen hasi dira dagoeneko. 'Giltza' tailerra hiru zonatarako eraman dute dagoeneko: Iruña eta Iruñerria, Altsasu eta Tuter. 2021. urtean, gainerako agentzietara iritsiko da, eta ez dute baztertu bertze talde batzuekin aplikatzeko aukera (iraupen luzekoak, 45 urtetik gorakoak, baztertzeko-arriskuan daudenak...).

**OHI DENA
EDATEA
GEHIEGI
IZAN DAITEKE**

**OHI DENA OSPATZEA
BAITA ERE**

**EGIN DITZAGUN
BESTELAKO OSPAKIZUNAK**

GARAI ZAIL HONETAN



ZAINDU ZAITEZ, ZAINDU GAITZAZU

Eskualdeko gazteen proiektuak



AINARA BEGINO MENDIBURU
IGANTZI, 2000

«Nire herria Enpresa Ttiki-Ertain bat da»

«Gure herrietatik kanpo egiten ditugu erosketa gehienak eta honek, berekin dakar inguruko gazteen lan falta. Gure proiektuak kooperatibak eta elkarteak sortzean datza, enpresa txiki eta ertainen nahiz autonomoen lana sustatuz». Era honetan, «herrian bertan erosketak egitea bultzatu nahi da, baita eskualdeko enplegu tasa igo, eta batez ere, gazteen langabezi tasa jaisteaz litzateke helburu nagusia».



AROA CANABAL ETXARTE
IGANTZI, 2001

«Herri gaztea, herri betea»

Aroa Canabalen proiektuak herri txikien despolulazioa du ardatz: «konturatu ginen herri txikietan gazteek ez dutela elkartzeko espaziorik. Arazo honi irtenbidea emateko, herri txikietan aisialdi zentruak sortzea pentsatu nuen». Gainera, ekimen honek bi funtzio izanen lituzke «herrian aisialdiko espazio bat izateak gazteak herrian gelditzea eta hirietara ez joatea bultzatuko luke, baita lanpostu berriak sortzea ere».



MAITE MUTUBERRIA MINDEGIA
DONEZTEBE, 2001

«Gazteen lanerako sarbidea erraztu nahi da»

Aktibatu gazteak, komertzioa gara proiektua Maite Mutuberría doneztebarrak eta Naroa Iriarte narbartearrak elkarlanean sortu da. Proiektu honen sorreraren arrazoi nagusia «gazteen enplegarritasuna hobetzea eta gazteek lan mundura dituzten aukerak zabaltzea da». Honetarako, «tokian tokiko merkatua eta eros ahalmena sustatu eta indartu behar da», modu honetan «ekonomiaren zirkulazioa ahalbideratzen bai-



NAROA IRIARTE ETXEBERRIA
NARBARTE, 2001

«Tokiko merkatua sustatu behar da»

ta eta lanpostu berriak sortzen dira». Gaineratu dutenez, «lanpostu hauek bertako biztanleentzat izan ohi dira». Lan baldintza «duinak» izateko «kooperatiba bidezko merkatuak sustatzearen aldeko apustua» egiten dute. Azkenik, bi gazteen proiektuak «eskualdeko gazteen inplikazio eta konpromiso maila handitu eta bultzatu» nahi du. Honek, berekin baitakar «bertako merkatuaren etorkizuna bermatzea».

ALKOHOLA KONTSUMITZEAN COVID-19AREN PREBENTZIOAN LASAITZEN GARA

ALKOHOLAK NEURRI GUTXIAGO HARTZEA ERAGIN DAKIGUKE

- 200 ml. SEGURTASUN-DISTANTZIA GAIZKI NEURTZEA
- 400 ml. ARRISKU-SENTSAZIOA MURRITZEA
- 600 ml. EGITEN DENA ETA SENTITZEN DENA ALTERATZEA

IMMUNITATE-SISTEMA AHULTZEN DU. ALKOHOLAK EZ DU COVID-19AREN AURREAN BABESTEN

HARREMANAK HONDATU ETA EMOZIOEN KONTROLA GALTZEA ERAGIN DEZAKE

FAMILIAN KONTSUMITZEN DENEAN ADINGABEEN GARAPENARI ERAGITEN DIO



www.ohidenaedatea.nafarroa.eus

MALERREKA

Gizarte Segurantzaren bulegoa irekitzeko sinadura bilketa abian

Abenduaren 18ra arte sina dezakete udaletxean, mankomunitatean edo osasun zentroan

TTIPI-TTAPA

Malerrekako Mankomunitateak Doneztebeko Gizarte Segurantzaren bulegoa irekitzeko eskatuz sinadura bilketa abiatu zuen. Jakinarazi dutenez, abenduaren 18ra, ortzirralera, bitarteko bilketa indarrean egonen da eta nahi duenak herrietako udaletxetan, Malerrekako Mankomunitatean eta osasun etxean sina dezake. Mankomunitate-tik herritarrek animatu nahi izan dituzte.

Bulegoak Baztan, Malerreka, Bortzirriak eta Leitxaran inguruko 30.000 bat biztanleri es-

kaintzen die zerbitzua eta itxita egoteak eragin zuzena du hauengan. Batetik, herritarrek 70 bat kilometro egin behar dituzte Iruñera joan eta kudeaketak egiteko, «horrek dakarren denbora, gastu eta arrisku-kostuekin». Eta bertetik, herritar gehienek prestazioak modu telematikoan kudeatzeko «behar den ezagutza zein baliabiderik ez dute».

Eskaerarekin bat egiten dutenek Doneztebeko bulegoa egunero eta aurrez aurreko arreta eskainiz irekitzea eskatzen dute.

Osasun etxean maskara kirurgikoak bakarrik onartuko dituzte

TTIPI-TTAPA

Doneztebeko osasun etxera bertaratzaren diren herritarrei, zentroan sartzeko, maskara kirurgikoa janzteko deia egin diete. Zentroan maskara erabiltzea derrigorrezkoa izan den denez, salbuespen kasuetan, telazkoarekin joaten direnei

hori kenduarazi eta kirurgiko bat emanen diotela adierazi dute. Modu horretan, osasun zentroko langile zein erabiltzaile guztien segurtasuna bermatu nahi dute. Kutsatu kopuruak behera egin duen arren, zuzurtiaz jokatzeko segitzeko beharra nabarmendu dute.



UTZITAKOA

Indarkeriaren aurka bildu dira

Azaroaren 25ean *Malerrekan errespetuzko harremanak* lelopean elkarretaratzea egin zuten Mendaur eta San Miguel ikastetxeko ikasle eta irakasleek. Gizarte zerbitzuen eskutik, nerabeei zuzendutako bideo bat zabaltzeko eta txapak eta boligrafoak banatu zituzten.



JAIONE ZABALO

Bizi kalitatea aztertzeko tailerrak Ezkurran

Garbiñe Olazar iturendarra gidari, urrian hastekoak zizutzen adinekoen bizi kalitatea aztertzeko tailerrak Ezkurran. Koronabirusagatik atzeratu ondotik, azaroaren 25ean hasi zituzten. Aurrerantzean, asteazkenetan, 11:00etatik 13:00etara Iratxo ludekian bilduko dira.

Lulu

Hondarribia kalea, 15 Atzeko aldetik
IRUN · Tel. 943 616 165

Aukera zabala

- Gazteentzako eta helduentzako arropak, 36 tallatik hasita 64raino.
- Emakumezkoentzako eta gazteentzako gonak 10 eurotan.

Prezio bereziak

- Soinekoak 35 €-tik hasita.
- Galtzak jantziak %50eko deskontuekin.
- Jaka, beroki eta parkak deskontu handiekin.





Eguberriak ospatzeko kultura bakoitzak bere usadio eta ohitura propioak ditu

Eskualdean hainbat kultura daude eta bakoitzak bere ospakizun propioak ditu. TTIPI-TTAPAK Eguberriei aitzin hartu eta eskualdeko sei familiarekin egin du hitzordua Eguberriak nola ospatzen dituzten jakiteko. Hainbat herrialdeko kideak elkartuta, Eguberriak nola bizi dituzten galdegin diegu. Bildutako kontu guztiak sartzeko gehigarri honetan tokia eskas gelditu zaigunez, Eguberrien bueltan, elkarrizketak osorik izanen dituzue eskuragarri *ERRAN.EUS* atarian.

Covid-19ak gure mugikortasunean anitz eragin duenez, TTIPI-TTAPAK aukera eskainiko dizue etxetik bertatik munduko bertze aldeko ohiturak ezagutzeko.



KULTURKARI
Diseinu grafikoa | Publizitatea

Zure jabetzeko
diseinuarekin menuak, kartak,
mahai-oihalak, musuzapiak,
baso-azpikoak, etab.
pertsonalizatzen ditugu

kulturkari.com

Mendaur Motor

Autoen konponketa eta salmenta | Txapa eta pintura



Zorionak eta Eguberri On!!



ARKUPE
Txokolateak
1984

IRURITA
Dukesa plaza
T 948580059
T 948452021
(Obradorea)

ELIZONDO
Santiago kalea 19
T 948452393

www.arkupagozotegia.com



LOREA
NUTRIZIO ETA DIETETIKA
www.loreanutrizioa.com

Eguberri eta Urteberri on!

Eguberrietan ere zaindu zure osasuna

KIMETZ
Belardenda
www.kimetzbelardenda.com

Leitzako errepidea, 7
31740 Doneztebe

948 451 473
650 779 128



Arma
ESTETIKA

Eguberri Rauean oparitu edertasuna

Tratamendu berriak

- Crema naturalak, ekologikoak eta pertsonalizatuak.
- Larri azala gaztetzeko tratamenduak.

Oparitu goxotasuna!
Altzate 33 BERA · Tel.: 948 63 09 04



Hamady FALL



Goretti ALTZURI

«Senegalgo alaitasuna faltan sumatzen dut»

Hamady Fall Senegaletik etorri eta ategunez Tuteran eta asteburu zein oporraldietan Aurtitzen bizi da.

Hamadyk hainbat urte daramatza Euskal Herrian, baina, oraindik ere, Senegalgo zenbait ohitura mantentzen dituela adierazi du «Senegali terangaren herrialde deitzen zaio, wolof hizkuntzan eskuzabal erran nahi duena».

Bertan, denak ongi etorriak direla argudiatu du eta kultura guztiak errespetatu eta ospatzen direla gaineratu du. «Herriarren gehiengo musulmana da, baina badira katoliko eta animistak ere», eta pentsa litekeenaren kontra «arrazoi kultural eta erlijiosoengatik gatazkarik ez dagoela» adierazi du Hamadyk. Gainera, «arrunt herrialde bestazalea» dela eta «mota guztietako bestak» ospatzen dituztela aitortu du. Horien artean, baita Eguberriak ere.

Bere erlijioari jarraiki «musulmanen besta nagusia tabaskia dela» kontatu du, «katolikoentzat Eguberriak diren bezala». Hala ere, berak, bi kultura eta erlijioetatik onena aprobetxatu eta biak ospatzen dituela gaineratu du, irribarrez.

Senegalen bizi zeneko garaia gogoratuz, «musulmanak bakarrik bizi diren eta hiriguneetatik aldentuak dauden zenbait herrixkatan, anitzetan, Eguberriak direnik ere oroitu egiten ez direla» gaineratu du.

Bai Senegalen baita Aurtitzen ere,

Eguberri bezperan, abenduaren 24 gauean, afaria egiteko ohitura dutela aipatu du, baina, mendebaldeko gizartean ospakizun hauek anitzez ere «arautuagoak» daudela uste du «hemen arau batzuk bete behar direla iruditzen zait eta ez direla mundu guztiaren gus-tukoak izaten. Senegalen ez, han bakoitzak nahi duen moduan ospatzen ditu egun hauek: familiarekin, lagunekin edo lagun katolikoren baten etxean».

Senegal eta Euskal Herriaren arteko bertze alde handienetariko bat Eguberrietako pertsonaiak dira. Hamadyk Olentzero eta Mari Domingi lehen aldiz Iturenen ezagutu zituen eta bertan haur eta helduek zuten ilusioa beti gogoratuko duela adierazi du. Berak, Senegalen, opariak Papa Noelen bidez jasotzen zituen «baina, Papa Noel beltza, noski» dio irribarre zabalez.

«Euskal Herriko Eguberrietatik, eta oro har, edozein bestetatik gehien harritzen nauena bazkalondoan edo afalondoan hainbertze denbora mahai inguruan eserita egotea da». Honi lotuta, «Senegalgo alaitasun eta espontaneotasunaren» faltan sumatzen ditu.

«Han ospakizunak, normalean, etxe atarietan egiten dira. Bertan, lagun zein familiakoekin jan eta edan ondolik, bizilagunekin elkartu eta solasaldi luzeak izaten ditugu. Azkenik, aspertu edo argitu arte lagunekin dantzan ibili ohi gara».



-50%

BIGARREN ALEAN,
FIDELTASUN TXARTELAREKIN

WWW.PERFUMERIASIDOIA.COM

IBARDIN - DANTXARINEA - LUZAIDE



LURRINDEGIAK

Abenduaren 11tik 27ra dendetan. Deskontua ale merkeenean lurrin, makillaje eta kosmetikan. Eskaintza hau ez da bateragarria beste promozioekin ezta Chanel produktuekin ere.

«Eguberrietan arropa gorria estreinatzeko ohitura dut»

Brasilgo Valença Bahia «herri ttiki eta politean» jaio zen duela 48 urte Xanta Souza, baina hogeita borts urte daramatza Lesakan bizitzen. «Ongi gogoratzen dut etorri nintzen eguna, 1997ko otsailaren 19a zen, dena arraro egin zitzaidan, dena ezberdina, hizkuntza ezezagunak, baina batez ere paisaiak harritu ninduen, etxeak, dena berdea...».

Hogeita borts urte hauetan behin baino gehiagotan ospatu izan ditu Eguberriak Euskal Herrian eta honen inguruko zenbait xehetasun partekatu ditu TTIPI-TTA-PArekin. Eguberriak ospatzeko datak Brasilen eta Lesakan egun bera direla adierazi du «Valença Bahian Eguberrietako egun bereziena abenduaren 24a da, egun honetan afari eder baten inguruan biltzen baikara familiako kide guztiak». Gauzak nola diren, Lesakara etorri eta, Lesakako Eguberrietako egun bereziena Eguberri

bezpera izaten da, zeinetan, egun osoko egitaraua izan ohi duten: jaiotza lehiaketa, Olentzero lehiaketa, lagun talde nahiz familiako bazkari eta afariak...

Bertzalde, bi herrien arteko ospakizunetan alde nabaria sumatu du. Brasilen bizi zenean «Eguberri egunean oilar-mezara joateko ohitura» zuela aipatu du, eta Lesakan, jaiotza lehiaketak neurri batean kutsu erlijiosua badu ere, «elizara nahiz elizkizunetarako joateko joera txikia» dagoela adierazi du.

Bi kulturek egun berezi hauek jan eta edari bereziekin ospatzeko ohiturarekin bat egiten dute. «Bai Valença Bahia, baita Lesakan ere egun hauetarako jan eta edari bereziak prestatzea gustatzen zait» eta otordu hauek familiako kideekin partekatzea gustatzen zaiola gaineratu du.

Jantziei dagokionez «egun hauetan arropa berria erosi eta estreinatu ohi dut, eta

ahal bada kolore gorrikoa izaten da».

Bere burua ez ezik, etxea ere goitik beiti apaintzen duela gaineratu du baina, batez ere, «pinua apain jartzea gustatzen zait, girnaldaz apaindu eta gainean izar distiratsu bat paratzea».

Sorterrian, Eguberrietan opariak Papa Noelek ekartzen zizkiola adierazi du. Baina etorri zen urtetik, urtero, pinua azpian «oparitxo» bat jasotzen duela erran du irri zabal batez.

Tamalez, egungo egoera dela medio, aurtan ezin izanen ditu egun berezi hauek bere brasildar familiako kideekin eta lagunekin ospatu «familiakoekin ospatu ezin izateak samina sortzen dit, tristura. Eguberriak familiakoekin ospatu ohi ditudanez, data hauetan beraiekin ez egotea zaila izanen da». Hala ere, hurrengo urtera begira baikor mintzo da eta Eguberriak bi aldiz ospatuko dituela gaineratu du.



Xanta SOUZA

Eguberrietako karta

Enkarguak hartzen dira abenduaren 21a arte

Sarrerak

- Itsaski entsalada
- Entsaladilla errusiarra
- Arrain pastela
- Bieira gainerreta
- Bakailaoz edo onddoz beteriko piperrak
- Arrain zopa
- Ziazerba eta ahuntz gazta hostorea
- Onddo eta foie hostorea
- Porru tartaleta
- Txangurro krepak
- Txangurroa labean errea
- Porru eta ganbaz beteriko kurruskaria

Arrainak

- Zapoa saltsa berdean
- Legatza itsaskiz beteta
- Legatza koxkera erara
- Bakailaoa drunguru erara otarrainskekin
- Bakailaoa saltsa berdean
- Izokin biribilkiak itsaskiz beteak

Haragiak

- Txahal biribilkia saltsan
- Txerri azpizuna onddo saltsarekin
- Ahate azpizuna foie eta mahats saltsarekin
- Txerri masailak saltsan
- Txahal masaiak ardo beltzetan
- Bildots erdia errea (3 kg. ingurukoa)
- Zerrikume errea (5 kg. ingurukoa)
- Ahate confit-a laranja saltsarekin
- Tenperatura baxuan eta hezurrik gabeko bildots errea

Sara karrika, 7 - BERA (Agerran) Dendako ordutegia: 10:00-13:30 eta 17:30-20:00

Abenduaren 24ean 10:00-13:30



DIN DAN DON, DIN DAN DON
EGUBERRI ON!

Aurkitu gure webgunean edo dendetan
promozioak, zozketak, deskontuak eta
gabonetako produktu bereziak.
Ez galdu aukera

NAFARROAN BIDALKETA GASTUAK DOAN

WWW.VENTABIOK.COM

BIOK

ELIZONDOko plazan EROSKI CITY



**Eguberri eta
Urteberri on!**

BEAARRAINDEGIA **esarte**

Astelehenetik Larunbatera

09:00 - 21:00

Foruen Plaza, 3 · ELIZONDO · T. 948 580 005

EROSKI city

TXALUPA, S.I.

ARRANDEGIA

Arrain eta
marisko freskua
aste osoan

Zorionak eta Urteberri on!

ENKARGUAK HARTZEN DITUGU



Kanttonberri, 3 behea · BERA
T. 670 321 202 · 948 631 575



Aliprox



Zure eguneroko supermerkatua
Harategia, urdaitegia, arraindegia
frutategia eta behar duzun guztia!

Eltzeta 16 behea. **LESAKA**. T. 948 637 264



ARRAINDEGIA
LONJAKO
ARRAINA


Eltzeta, 16 · LESAKA · T. 948 637 264 M. 666 212 099



Eltzeta 16 behea
LESAKA
T. 948 637 264
M. 609 068 520

Ukrania-Leitza

«Ohitura gisa haragirik gabeko 12 plater osatzen ditugu».



Yelena MOLCHANOVYCH

Ukraniako Chernovtsy eskualdean jaio eta egun Leitza bizi da Yelena Molchanovych. Sorterrian Eguberriak ospatzeko egun bereziena urtarilaren 7a da. Hala ere, abenduaren 24an gauean ez diote uko egiten familiakoekin bildu eta elkarrekin afaltzeari. Abenduaren 24ean egin ohi duten afaria *Svyatoy Vecher* deritza, hau da, gau santua eta bertan «familia guztia bildu eta elkarrekin afaltzen dutela» azaldu du ukrainarrak. Afari hau familiarentzat «oso garrantzitsua» dela gaineratu du. Abenduaren 25 goizean pinu azpian opariak jasotzen dituzte eta, berriro ere, familiako kideak elkar-tu eta bazkari «oparo» batekin ospatzen dutela aipatu du Yelenak. Egun honi *Rozhdestvo Khristovo* deritza, hau da, Kristoren jaiotza.

Egun hauetan «otordu» bereziak prestatzen dituztela azadu du. «Ohitura gisa haragi eta esnekirik gabeko 12 plater prestatzen ditugu, zeinak 12 apostoluak irudikatzen dituzten». Plater guztietatik garrantzitsuena *kutya* da, «gariz, mitxoleta haziz, intxaurrez eta eztiz osatzen den jakia». Jaki honekin «otordu guztiei hasiera ematen zaie».

Ukrainian Eguberrietan ohitura pila dituztela aitortu du «afaria lehenengo izarra ikusi baino lehen ez hastea» gaineratu du «izan ere, lehenengo izar honek Jesusen jaiotza islatzen du». Beste ohitura kuttun bat leihoan kandela bat piztuta paratzea da «piztutako kandela honen bidez, kalean dagoen edonor edo bakarrik sentitzen den oro gure etxean ongi etorria dela adierazten dugu». Apaingarriei dagokionez, etxean pinua «funtsezko Eguberrietako elementua»

dela gaineratu du. «Pinua naturala izaten da eta Eguberrietako apaingarritz nahiz girlandaz josten dugu. Gainean, urre koloreko izarra paratzen dugu eta zuhaitz azpian Ded Moroz (izotzezko aitaxi) eta Snegurochka (honen iloba den elurrezko dontzeila)».

Ukrainian bizi zenean opariak «Ded Morozen» eskutik jasotzen zituen, «basoan bizi den adineko gizonezko bat zeinak urte osoa egurrezko jostailuak egiten igarotzen duen, ondoren, Eguberrietan, umeei berak egindako opari hauek helarazteko».

Anekdotak gisa «urte batez Ded Moroz ikusi eta bere atzetik lasterka joan ginen eta harrapatzen saiatu ginenean bota kentzea lortu genion. Bota gorde genuen eta hurrengo urtean kolore ezberdineko bi botekin etorri zen, bata guk kendutakoaren pareta eta beste bat».

Bertako Eguberriak asko gustatzen bazaizkio ere, sorterrian bezala «herri erdian Eguberrietako pinu handi» baten falta sumatzen duela adierazi du.

**«Leihoan jarritako
piztutako
kandelaren bidez,
edonor gure
etxean ongi
etorria dela
adierazten dugu»**

Eguberriak ailegatu dira!

Ongi etorri Venta Peio
merkatal zentroetara

*Eguberri
on*



ABENDUAREN 3TIK URTARRILAREN 6RA

«Jaiotza profanoa paratzen genuen»



Virginia SIGNAGO

Aurten, ziurrenik, Virginiak Eguberriak Euskal Herrian igaroko ditu bere familia eta lagunengandik kilometro anitzetara. Jaiotzez kanariarra bada ere, familia argentinarra du eta berak ere ohitura argentinarak dituela aldarrikatu du.

Bere familian Eguberrietako ospakizun garrantzitsuena abenduaren 24 gaueko afaria izaten da. Hitzordu honetan etxekoak ez ezik gurasoen zenbait lagun ere biltzen direla adierazi du. «Afalordu atsegin pasatzen dugu eta jaki goxoz betetako mahaia izan ohi dugu».

Gabon gaueko ajea Kanarie-

tan bizi diren izeba eta lehen-gusinarekin bazkalduz igarotzen du. Bazkaltzeko «aitzineko egunean afal orduan sobratutako jakiak aprobetxatzen ditugu» eta etxekoek «arratsalde goxo eta lasaia» pasatzen dutela plazaratu du.

Etxean, txikitatik, opariak jaso izan dituztela aipatu du: Papa Noelengandik argentinarren ohitura segituz, eta Hiru Errege Magoen eskutik kanariarren ohiturarekin bat eginez. Hala ere, handitzen joan den heinean opariak baino Eguberriak lagun eta familiako kideekin ospatzeak ilusio handiago egiten diola aitortu du.

Etxean Eguberriek kutsu erlijiosoa baino familiarra duela adierazi du «familiakoak ez gara sekula Eguberrietako elizkizunetara joan». Era berean, etxekoak hagitz tradizionalak ez direla aldarrikatu du.

Hala ere, etxean ohitura bat «sakratua dela» adierazi du Virginiak: jaiotza. Txikitan ahizpa eta berak urtero, jaiotza eta pinua ilusio handiz apaintzen zutela adierazi du. Beraien etxeko jaiotza «ezohiko» gisa definitu du «gure jaiotza hagitz barregarria izaten zen, ohiko pertsonaiez gain, bertze hainbertze ere jartzen baikenituen: jostailuzko autoak, playmobileko pertsonaiak, legoak, dinosaurioak... Ahizpa eta biek jaiotza profanoa egiten genuen» kontatu du algara artean.

Anekdotak gisa, kanariarrak ez du sekula ahantziko Hiru Errege Magoak etxetik uste baino lehenago igaro ziren urtea. Lagun batzuen etxean zegoen eta bera etxeratu ordurako Hiru Errege Magoek opariak etxean utzi zituzten.

Aurten, lehen aldiz, Eguberriak Euskal Herrian igaroko ditu eta familiakoen falta sumatuko dituela onartu du. Bertzalde, aurten ilusio berezia du. Berako lagunak Olentzero eta Mari Domingirenren berri eman diote baita haren inguruko istoriak kontatu ere. «Ea niri ere Olentzero eta Mari Domingik Berako etxean oparitxo bat uzten didaten», dio Signagok pozez beteta.

Panettoneak
Errege eroskoak
Turroiak
Txokolateak
Bonboiak
Polboroiak
Pastak

eguberri eta urte berri on!

Ezlegara 25, Bera 31780 Nafarroa T: 948 630 899

@sarobe_okindegia_gozotegia | www.sarobe.net

ROSKOAK ETA EGUBERRIETAKO PRODUKTUAK

Eguberri on !!

Goxune Kafetegia

Sara Kafetegia

IREKIA abenduak 25 eta urtarrilak 1 09:00-13:00
Errege eguna IREKIA 08:00-13:00

ITXITA abenduak 25 eta urtarrilak 1
Errege eguna IREKIA 08:00-13:00

Sara karrika, 7 BERA · 948 630 235

Hurlandeta, 6 BERA · 948 625 673

Martiko
lantaldeak
Eguberri eta Urte
Berri on opa dizu



MARTIKO

gara



Martiko
Pol. Zalain s/n
31780 Bera. Navarra
+34 948 62 50 16
martiko@martiko.com
tienda.martiko.com

DENDAKO ORDUTEGIA

Astelehenetik Ortziralera
9:00etatik 18:00etara
Larunbatak: Abenduaren 12an
eta 19an, 9:00etatik 13etara.

IBARROLA
Haurrendako arropa
0-14 urte
Parrokia kalea 6 • Doneztebe
948 450 463

Familia ugariarentzat -%15eko deskontua
Larunbat arratsalderako hitzordua eskatu:
619 406 556

B-KARO Pimbalina mayoral 3 pommes tuc tuc



Euskarazko Produktuen Katalogoa

Urteko garai honetan ingurukoei euskarazko liburuak, musika edota jostailu eta jokoak erosi eta oparitzeko aukera ezin hobeia izaten dela kontuan hartuz, Euskarazko Produktuen Katalogoaren edizio berria osatu dute, bertze urte batez, Euskal Herriko 105 bat udal eta mankomunitateko Euskara Zerbitzuz. Aurtengoa 22. edizioa da.

Bai webguneak zein paperezko edizioak, biak ere itxura berria estreintau dituzte eta dituen edukiak bi atal nagusitan antolatuak daude: 0-12 urte bitarteko haurrentzako produktuekin osatua bata, eta 12-16 urte bitarteko gazteentzako produktuekin osatua bertzea.

Interneteko bertsioan, produktu gehiago daude, eta urtean zazpi-zortzi buletin sortzen dituzte. Harpidetuz gero, argitaratu diren azken produktuak ezagutu daitezke. Paperezko bertsioa, berriz, urtean behin kaleratzen da.

Aldiz, paperezko edizioa egunotan banatuko dira Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroan eta guti gora behera 70.000 ale banatzea aurreikusten da.

KATALOGOA.EUS maiztasunez eguneratzen den webgunea da. Dagoeneko, euskarazko katalogo honek, 11.000 produktu inguru biltzen ditu.



JOSTAILUAK AUKERATZEKO GOMENDIOAK

- Jostailuak erakargarriak izan behar dira, behin baino gehiagotan erabiltzeko modukoak.
- Irudimena eta sormena garatzen lagundu behar dute.
- Jostailua, umearen adin eta gus-tuetara egokitu behar da.
- Ziurra izan behar da.
- Denek erabili ahal dituzte inolako bereizketarik gabe, eta bien artean erabiltzen badituzte kooperazio eta berdintasun baloreak barneratuko dituzte.
- Sexu, etnia eta kulturen arteko desberdintasunak errespetatzen lagunduko du.
- Jostailua tresna bat da bakarrik, garrantzitsuena jolasa da.
- Jostailuak ez du indarkeriazko portaerarik bultzatuko, kontrakoa, gizarte baloreak sustatu behar ditu.

Kalash
JOYEROS
20€tik aitzinera

Ekarri erabiltzen ez duzun urrea eta nahi duzun bitxia egingo dugu



VICEROY CASIO SANDOZ CITIZEN ECO-DRIVE

Kanttonberri, 6 BERA | 948 630 751
Merkatarien Karrika, 7 DONEZTEBE | 948 451 519

amura
ILEAPAINDEGIA
@amuralesaka

Zuretzako astia hartu nahi duzunerako edo bertzei denbora **oparitzeko**
Etorri Amurara eta probatu **Secretos del Aguarekin** egiten ditugun tratamendu eta koloreak



948 637 797 | Bittiriako plaza, 1 LESAKA



sartu webgunera
www.katalogoa.eus

Urte gazi-gozoa izan da aurtengoa elkartearentzat

Ekitaldi, irteera eta bidaia gehienak bertan behera gelditu zitzaizkien arren, berriz ere martxan da elkarteak

PABLO IRASTORTZA

Nahiz eta urte hasierako egitasmoak hagitz ilusiogarriak izan, berehala etorri zitzaizkigun laino beltzak. Covid-19ak aurreikuspenak zapuztu zitzaizkigun.

Urtero bezala, Zuzendaritza Batzordeak elkarteko kide, erakunde, udaletxe, irakasle eta bertze hainbat boluntarioen lanarekin, urte oparoa prestatua zuen. Hagitz arrakastatsuak izaten diren ikastaro, ariketa, solasaldi, aisialdiko jarduerak, kirol... Berrogeita hamar jardueratik goiti zeuden eskualdean antolatutako. Dena ongi joan zen martxoan argi gorria piztu zen arte.

Ekintzak bertan behera

Etxean gelditzeko deiarekin batera, kiroldegia, areto eta bertzelakoak hetsi zituzten eta jarduerak guztiak bertan behera gelditu behar izan ziren, bi izan ezik. Beran eskaini den frantses ikastaroak eta Arantzaz izaten zen yogak segida izan zuen, aurreikusitako helburuak lortuz.

Ikastaroak martxan

Heldu den urterako zimenduak sendotuak zituen elkartek. Berrikuntza gisa, pirograbatu ikastaroan hasiak dira aurreko lehenbizikoz Donezteben. Horrez gain, bertze hamaika aukera ditu elkartek eta parte hartzeko 948 45 08 78 edo 618 56 78 37 telefonora deitu behar da.

Solasaldirik ez

Jende multzorik ezin denez elkartu, hainbat herritan egitekoak zituzten solasaldiak

gibelatu egin dituzte, osasun egoerak baimentzen duenean egingen dira.

Bidaia bide beretik

Hainbat bidaia zeuden antolatutako akaberan den urterako: zazpi Euskal Herrian barna (sagardotegira, Donostiara, Xabiererra, Aralarra, Arantzazura, Lezora eta Lizarrara); sei Espainiar Estatuan (Andaluzia, Bartzelona, Gandia-Benidorm, Lanzarote-Tenerife...); hiru Europar barrena (Fior doetan itsas-bidaia eta Portugal, erraterako); elkarteko lau besta (mus txapelketa, Euskal Kantu Zaharren Eguna, Soinketa Eguna eta Bazkideen Eguna).

Aurreikusitako bertze ekingen modura, egin ahal izan ziren bakarrak martxoaren 15a artekoak izan ziren: Oiaume sagardotegiko bertso bazkaria, Donostiara bisita gidatua eta Xabiererra martxoaren 10eko irteera. Zoritarrez, hor akitu zen behi emankorraren errapeko esnea eta zerri-goseak ezkurra amets bilakatu ziren, Arkupeak el-

karteko kide eta lagunak ametsak.

Mendi irteerak ere maingu

Erdizka osatu dira hilabeteroko mendizaleen irteera estimatuak ere. Nahitaezko geldialdiaren ondotik, ekainean Arizkundik Xorroxin ur-jauzira egindako joan-etorriarekin berrekin zioten ohitura osasuntsuari, osasun agintarien aholkuak errespetatuz. Guztira, sei-zazpi ateraldi izan dira osatu ahal izan direnak, beraz, bertze hainbat aferen egoera nola joan den ikusirik, franko kontent daude mendizaleak.

Loteria eskuratzeko azken egunak

Ederra izanzen litzateke horrenbertze sufrikarioen ondorengo urteagozamenek akitzea, ezta? Elkartek horretarako Eguberrietako zozketa txartelak atera ditu eta herrietako ordezkariarekin harremanetan jarri edo Donezteboko bulegora joz eskura daitezke. Bi zenbaki dituzten txartelak eskuratu eta zorte on Eguberrietako zozketan!

Bigarren sei hilabeterako buletinak prest

Urteko uzta bilduz, prest da bigarren sei hilabeterako buletina. Abenduan jasoko dituzte herri bakoitzeko arduradunek, eta elkarteko kideen eskuetan izanen dira urtea akitu aitzinetik.



Pirograbatu lan ederrak egin daitezke.



Aurreko ezin izan dute bidaiarik egin.

Zaharberritu zure etxea, sortu zure mundua!



LEHEN



Zaharberritzea. Horixe izan da Nafarroako Gobernuak etxebizitza politikaren lehentasunetako bat. Hain zuzen, asmo horrekin sortu zuen *Biziberri Navarra Rehabilita* saria, Nafarroan egindako zaharberritze-proiektu osatuenak aitortzeko helburuz. Aurten egin dute sariketaren bigarren edizioa, pandemiak gure etxebizitzaren, gure munduen, garrantzia ageriagoan utzi duen garaian. Azken bi urteotan Nasuvinsaren eta Nafarroako Gobernuaren etxebizitzak zaharberritzeko bulegoen bitartez birgaitzeko laguntza jaso duten 2.173 espedienteen artean, zazpi proiektu eredugarri hautatu dituzte sariketarako: tartean, Etxalarko 120 urteko etxe eta Leitzako 1965eko etxebizitza bloke baten proiektuak.

Herritarrei etxebizitzak zaharberritzeko deia egitea du sariketaren xede. Eta horretarako, batetik, etxebizitzak edo eraikinak berritzeko ematen diren laguntzen berri zabaltzea nahi dute, eta bertatik, Nafarroan egiten ari diren zaharberritze-arloko proiektuak ezagutarazi nahi dituzte. Nabarmentzekoa da Nafarroan zaharberritzeko ematen diren laguntzen egungo sistema erreferente bilakatua dela.

Zaharberritzea erraza da. Nasuvinsaren bulegoetara edo zaharberritzeko bulegoetara joatearekin aski da. Interesa duen orok hantxe aurkituko ditu zaharberritzeko espedienteak doan tramitatzen lagunduko dion lantaldea. Laguntza jaso duten ehunka proiektuen artean daude *Biziberri* sariaren bigarren edizioan irabazteko hautagai diren Etxalarko eta Leitzako birgaitze proiektuak.

Etxalarren, harrizko etxe zaharra birgaitzeko proiektua

2017 hasieran Etxalarko Jauregieta karrikan dagoen Antxurdenean jarri zuten arreta Christiane eta Dominique Etchechuri senar-emazteek, Castellon utzi eta duten familiarengandik hurbilago egotea erabaki zutenean.

1900. urteko etxea, ordea, egoera kaskarrean zegoen, erortzeko zorian, aitzinaldea erabat zartatua, kanpoko

arotzeriarik eta kristalik gabe, estalkia konkortua, barrenekiko eroria... Goitik beheiti berritu beharrekoa zen. Lehenbiziko aldiz bulegora dirulaguntza bila jo zutenean, ez zirudien handik zaharberritzeko espediente bat aterako zenik. Izan ere, solairu guztiak bota beharrazkituen, bizitza beheitiko solairuan egin beharra zen, etxebizitza ez zirudien katalogatua ze-

DONEZTEBE / SANTESTEBAN

Mercaderes 6 - 31740 Doneztebe/Santesteban
T. 948 45 61 03 - baztan-bidasoa@nasuvinsa.es

goenik eta gainera eskatzai-leak bertze herrialde batean erroldatuak ziren...

Etxebizitza Etxalarko Hirigintzako Planeko eraikin eta espazio babestuen katalogoanizateak bidea erraztu zuen: solairu guztiak ordezkatu zituzten, eta aldi berean, zaharberritze babestuen behin-behineko kalifikazioa lortu zuen. Horrekin batera, teilatua egokitu eta hiru fatxadak konpondu zituzten, etxearen berezko ezaugarriak aldatu gabe eta udal araudiak kanpoko itxuraz dioena aintzat hartuz. Eta hori guztia inguruko gremioak kontrata-

tuz egin zuten, promotoreek hori hasieratik argi izan zutelako.

Birgaitzen inbertitutako euro bakoitzak aberastasuna sortzen du inguruan

Birgaitze babestuak, sustatzen dutenei ekonomiko ki laguntzeaz gain, tokiko ekonomia bizirik mantentzen laguntzen du.

Gainera, Biziberri sarien bigarren ediziorako sailkatutako obra honek Etxalarko ondare arkitektonikoaren balioa handitu du, jarduera turistikoari mesede egiten dio eta biztanleria finkatzen du orainaldian eta, batez ere, etorkizunean.

ORAIN



LEHEN



ORAIN



Leitza, etxebizitza bloke bat zaharberritua

Patxi Arrazola kaleko 29. zenbakiko bizilagunei itxuraberritua gelditu zaie etxea. Eta gehiago ere bai, etxebizitzaren inguratzaille termikoa hobetu dute. 1965. urteko eraikinean hainbat lan egin dituzte. Besteak beste, iparraldeko, ekialdeko eta mendebaldeko fatxadetan SATE kanpo isolamendu termikoa jarri dute. Hegoaldeko fatxadan, berriz, alde batetik, kanpoaldera pintatutako akabera zuten zatietan SATE isolamendu termikoa aplikatu dute, eta bestetik, harlangaitza bistan zuten zatietan, fatxadako ganbera bete dute zelulosa-injekzio bidez.

Horrez gain, zubi termikoak minimizatzeko helburuz, estalkiko hormigoizko forjatuaren ertzak zein kanpoko habeen puntak SATE bidez forratu dituzte. Balkoietako forjatu guztiak ere forratu dituzte, eta horretarako balkoietako barandak desmontatu edota aldatu behar izan dituzte, baita horien inper-

meabilizazioa ordezkatu eta zeramikak aldatu ere.

Bat ez zetozen elementuak ere fatxadetatik kendu dituzte. Hala nola, kanpoko tximinien erremate hodia, eraikinaren berokuntza zentralako galdaratik zetorren kea ateratzeko hodi zaharrak...

Iparraldeko fatxadako balkoietan lehendik zeuden barandak jarri dituzte berriz; hegoaldeko fatxadan, ordea, lehendik zeuden egurrezko barandak oso egoera txarrean eta arrisku nabarmenarekin zeudenez, aluminioz egin-dako beste batzuekin ordezkatu dituzte.

Hegoaldeko fatxadako piñoian, azkenik, lehendik zegoen egurrezko forruaren ordeztu, isolamendua hobetuz egurraren itxurako aluminiozko panelak jarri dituzte.

Hori guztia Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarekin egin dute. Zehazki, 54.000 euroko dirulaguntza jaso dute, aurrekontuaren %40.

SAKANA

Urizkarea 32 - 31830 Lakuntza
T. 948 57 62 93 · ezabu@sakana-mank.eus

INFORMAZIO GEHIAGO
www.vivienda.navarra.es



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Abenduaren 18an eta 19an inauguratuko dute Herri Aretoa

Hilaren 18an herriko eragileentzat irekiko dute garai bateko zine zaharra eta biharamunean gainerako herritarrentzat

TTIPI-TTAPA

Zine zaharretik Herri Aretora. 2016an bidea hasi zenean hori zen helburua eta lau urteren buruan hori da egin dena. Herri Aretoa abenduaren 18an eta 19an inauguratuko dute.

Abenduaren 18an, ostirala, 19:00etan, eragileentzat zabalduko dute aretoa. Udalak herriko eragileei gonbidapena bidaliko die eta bakoitzetik ordezkari banak izanen du zine zahar berritura joateko aukera. Larunbatean, hilak 19, gainerako herritarrek ezagutuko dute aretoa, 17:00etan. Osasun egoe-

ra tarteko, edukiera mugatuko dute eta gonbidapenak aurrez hartu beharko dira. Abenduaren 15etik aurrera bi liburu-denttan jarriko dituzte eskuragarri.

Momentuko osasun egoeraren arabera egokituko dute edukiera, baina orain artekoak indarrean segitzen badu, 102 lagunek izanen dute sartzeko aukera; eserita 254 lagun sar daitezkeela kontuan hartuz, horren %40. Berez, grada mugikorak jarri dituzte eta, modu mekanikoan eserlekuak atera eta sar daitezke, espazio bera erabileraren arabera egokituz.

Kultur eskaintza zabala prestatu du udalak abendurako

TTIPI-TTAPA

Bertsoak, antzerkiak, dokumentalak, filmak, kontzertuak, haur eta gazteentzako ikuskizunak... Osasun eta segurtasun neurriak hartuta, kulturaz gozatzeko aukera bikaina izanen dute herritarrek abenduan, udalak hainbat hitzordu antolatu baititu.

- Abenduaren 12an, **bertso saioa** kiroldegian, 18:00etan. Amets Arzallus, Aitor Sarriegi, Jone Uria, Xabat Illarregi eta Joanes Illarregi. Aurkezlea Ane Intxausti.
- Abenduaren 13an, **Bakean dagoena bakean utzi bakarriketa** umoretsua, 18:00etan kiroldegian.
- Abenduaren 20an, **eskualdeko azoka**, frontoian eta karpian 10:00etatik 14:00etara.
- Abenduaren 20an, **Orantza-ro dokumentalaren** bi ema-

naldi, 17:00etan eta 18:30ean Herri Aretoa.

- Abenduaren 23an, **Zuhaitza umeentzako ikuskizunaren** bi saio, 17:00etan eta 18:30ean Herri Aretoa.
- Abenduaren 27an, **Zaldi urdina antzezlan**a 18:00etan Herri Aretoa.
- Abenduaren 30ean, **ume eta gazteentzako bi film** emanaldi Herri Aretoa, 17:30etik 20:30era.

Herrian eginiko erosketak sarituz

Merkatariek ere abendua hila bete berezia izatea nahi dute eta hala, hilaren 9tik ilbeltzaren 4ra Kaxkabeltzako saltokietan erosten duten bezeroen artean 47 urdia azpiko zozketatuko dituztela iragarri dute. Zozketa ilbeltzaren 4an, 12:00etan, egingen dute.



GOTZONE SESTORAIN

Elikadura burujabetza eta feminismoa

Baztan, Bortziriak, Mendialdea eta Iruñerriko 20 bat lagun elkartu ziren azaroaren 29an Atekabeltzen egin zuten elikadura burujabetza eta feminismoari buruzko formakuntza saioan. Goizean hainbat gai izan zituzten hizpide eta arratsaldean Tolare baserrira bisita egin zuten.



Jende dezente hurbildu zen Arturo Vinuelaren azalpenak entzutera. JM BARRIOLA

Kutsadura elektromagnetikoa izanen dute hizpide hilaren 17an Atekabeltzen

JUAN MARI BARRIOLA

Herriko eta kanpotik etorritako jende ugariaren aurrean, Arturo Vinuesa Sanz medikuak bere ustetan osasuna nola zaindu behar den azaldu zuen azaroaren 26an Atekabeltzen. *Osasunaz beste begirada bat* formakuntza zikloaren barne, aurreneko saioa eta ikusmina piztu zuen gaiak, jendeak parte hartu baitzuen. Bukaeran, hizlariak idatzi duen liburuaren zirriborroa ere aurkeztu zuen.

Formakuntza zikloko bigarren saioa abenduaren 17an izanen da. Asier Arregi ingeniari agromomo eta geobiologoak eta

elektromagnetismoan aditua denak kutsadura elektromagnetikoa izanen du hizpide. 19:00etan hasiko da Atekabeltzen. Hurrengo saioak urtarilaren 8an eta otsailaren 18an izanen dira. Urteko aurreneko saioan Nerea Mendizabal psikopedagogoak eta gizarte hezitzaileak hartuko du hitza, *Covid-aren aurrean txerto emozionalaz* hitz egiteko, eta otsailekoan Goiuri Alberdi Aresti nutrizioan eta osasunean doktorea denak *Zer da bizitza osasuntsua? Elikaduratik gure interdependentziak arakatzeko* hitzaldia emanen du.



Hainbat izan dira Euskaraldiarekin bat egin dute herritarrak. LEITZAKO EUSKARALDIA

467 'ahobizi', 28 'belarriprest' eta 42 'arigune' utzi ditu Euskaraldiak

TTIPI-TTAPA

Oso harrera ona izan du Euskaraldiak Leitza eta datuak dira horren erakusle. Duela bi urte egin zen Euskaraldiaren aurreneko edizioan baino herritar gehiagok bat egin dute aldi honetan. 2018an Leitza eta Areson 477 lagunek eman zuten Euskaraldian izena: 435

ahobizik eta 42 *belarriprestek*. Aurtun, bi herrietako datuak bereizita eman dituzte eta Leitza bakarrik 495 lagunek bat egin dute Euskaraldiarekin: 467 *ahobizik* eta 28 *belarriprestek*. Datu horiei *arigune* izateko Euskaraldian izena eman duten 42 entitateak gehitu behar zaizkie.



Ezkerrean Galarza eta Saralegi irabazleak goizeko lehen partidari. G. ZABALETA

13 bikotek parte hartu dute frontenis txapelketa ez mistoan

TTIPI-TTAPA

Felisa Pellejero frontenis txapelketaren erantzunarekin «oso pozik» gelditu dira Sastrakak talde feministako kideak. 13 bikotek eman zuten izena azaroaren 28an jokatu zen lehen: goizez ligaxkako partidak eta arratsaldean final-laurdenak, finalerdia eta finala jokatu

zituzten. Emozioz betetako finala izan zen. Leitzako Gorretti Sagastibeltza eta Enara Lasartek eta Lekunberriko Maider Saralegi eta Maddi Galarzak jokatu zuten finala eta 15-16ko emaitzarekin Lekunberri joan zen garaipena. Denaren gainetik «giro bikaina» nabarmendu dute Sastrakatik.



GARAZI ZABALETA

Komunitate feministak aktibatze deia

Burbuila nuklearrik? Ez, eskerrik asko lelopean eta «babes sare anitzak» aldarrikatuz elkarretaratzea egin zuten Lopenea aurrean azaroaren 25ean, Indarkeria Matxistaren Aurkako Egunean. Sastrakak talde feministak «antolakuntza feminista eta herrigintza oinarritzko eskubideak» direla azpimarratu zuen.



LEITZAKO ERNAI

Nazio auzia hizpide Atekabeltzen

Ernaik antolatuta, azaroaren 27an Andoni Olariagak hitzaldia eman zuen Atekabeltzen, *Nazio auzia XXI. mendean* gaia jorratuz. Jende asko bertaratu ez bazen ere, oso gustura gelditu ziren bildu zirenak, Euskal herrian azken urteetan izandako ibilbidea azaltzeaz gain, egun auzia zertan den kontatu zuelako.



izarraga
harategia
gurea, kalitatea

EROSKI CITY
Elbarren, 71 behea
LEITZA - Nafarroa
T. 948 683 134
T. 676 785 768
T. 657 774 641



Haragia, gazta, hestebeteak, pateak, aurretik sukaldatutako produktuak.

Hainbat kultur hitzordu izanen dira abenduan

Hilaren 12an clown ikuskizuna eta argazki lehiaketako sari banaketa izanen dira eta 18an *Luze edo motz* ikuskizuna

TTIPI-TTAPA

Segurtasun neurriak hartuta, kulturaz gozatzeko aukera eman nahi dute udalak, kultur taldeak eta euskara zerbitzuak eta helburu horrekin bi hitzordu antolatu dituzte hilabete honetarako. Aurreneko saioa abenduaren 4an egitekoa zen, Lander Garroren *Bi urte, lau hilabete eta egun bat* dokumentala eskainiz.

Hurrengo hitzordua abenduaren 18an izanen da. Idoia Torregarai eta Mirari Martiarenak *Luze edo motz* generoarekin lotutako umorezko emankizuna emanen dute Ganbaran. 18:30ean hasiko da saioa baina txartelak aurretikerosi beharko dira, abenduaren 10tik 17ra estankotan, bost eurotan.

'Zaintza pandemia garaian' sari banaketa eta clown ikuskizuna

Ez da hilabeteko hitzordu bakarra izanen, prebentzio programak eta berdintasun zerbitzuak *Zaintza pandemia garaian* izenburuan antolatutako argazki lehiaketako sariak



Mirari eta Idoia hilaren 18an ariko dira.

abenduen 12an banatuko baitituzte. Guztira 17 argazki jaso dituzte eta sari banaketaz gain, hitzordu berean Pantxika Lamurren clown ikuskizunaz gozatzeko aukera izanen da.

Hitzordua eskolako frontoian izanen da, 18:00etan, eta Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatetik adierazi dutenez, umoretik pandemia garaian zaintzak bizitzaren sostengurako zenbaterainoko garrantzia duen islatzea izanen da helburua, tratu onak baloreen jarritz. 12 urtetik gorako gaztetxo eta helduentzako ikuskizuna izanen da eta segurtasun eta higie baldintzak bermatuko dituztela jakinarazi dute. Goizueta eta Aranoko herritarrei joateko deia luzatu diete.

Umore Onaren botilak salgai jarri dituzte

Herriko armariaren bereizgarri den oreinarekin irudiarrekin, ur botilak atera ditu Umore-Ona pilota eskolak. Nahi duenak eskura ditzake eta horretarako estankotan eta arropa-dendan eros daiteke. Botila bakoitzaren truke zortzi euro ordaindu behar da.



Eguberrietako tailerrak antolatu ditu udaleko euskara zerbitzuak

TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, Eguberrietako tailerrak antolatu ditu udaleko euskara zerbitzuak. Zehazki, abenduaren 23an, 28an eta 30ean izanen dira eta izenematea abenduaren 9tik 15era egin beharko da, eskolaren bitartez. Covid-19a dela eta,

osasun eta segurtasun neurriak bermatuko dituztela adierazi dute udaletik eta horrekin batera, haurrak bi edo hiru taldetan banatzea aurreikusi dutela jakinarazi dute. Eguberrietako oporretan ongi pasatzeko tartea izanen dute aurten ere neska-mutikoei.



FELIX LOIARTE

Ezohiko Eguberriak

Aurtengo Eguberrietan, zoritxarrez, herritarrek ez dute halako irudirik ikusteko aukerarik izanen, Covid-19ak dena hankaz gora utzi baitu. Hala ere, modu batera edo bestera, seguru Olentzeroren etorrera ospatzeko bidea bilatuko dutela eta seinaleren bat egingen dutela.

275 herritarrek eman dute Euskaraldian izena

Datu onak utzi ditu Euskaraldiaren bigarren edizioak herrian, duela bi urteko edizioak baino hobeak. Aldi honetan, 275 herritarrek bat egin dute euskararen aldeko ariketa sozialarekin, 265ek *ahobizi* rola hartuz eta hamar lagunek *belarriprest* rolean. 2018ko Euskaraldian, berri, 143 *ahobizi* eta lau *belarriprest* izan ziren. Aurtengo Euskaraldiaren beste berrikuntza *ariguneak* izan dira, euskaraz lasai aritzeko guneak eta 17 entitatek eman dute izena herrian.

Guraso elkarteko batzordearen erdia berritu dute

Hauteskunde bidez, azaroaren 20an berritu zuten guraso elkarteko batzordea: Izaskun Makazaga Arratibel (diruzaina), Olaia Lekuona Lujanbio (bokala) eta Mari Jose Zabala Goizueta (bokala) atera dira eta horien ordez Ibon Elizegi Narbarte, Miriam Arozena San Miguel eta Andoni Larralde Etxarte sartu dira. Azken hiruak lehendik batzordean ari diren Juan Jose Indakoetxea Goizueta (lehendakaria), Miriam Makazaga Arratibel (idazkaria) eta Rakel Yarza Arratibelekin (bokala) segituko dute lanean.

Auzolanean kamera erraldoi bat sortuko dute herritarrek

Landarte programaren barne, kamera ilunaren inguruko hiru saio egin ditu Nader Koochakik

AINHOA ANSA

Azken hilabete honetan, Nader Koochakiren gidaritzapean, *camera obscura* edo kamera ilunaren proiektua ibili dugu herrian borborka. Udan, Landartek Nader Aranora erakarri zuenetik, artista honek herriko mendi eta zoko guztiak ezagutzeko gogoia erakutsi du. Hain zuzen ere, ibilian ikusitakotik sortu zitzaion Naderri kamera ilunaren proposamena gure herrirako interesgarria izan zitekeenaren ideia.

Horrela, Landartek bere oniritzia eman ondotik, aranoarroi

kamera ilunaren sekretuak azalduz hiru saio eginak ditu Nader Koochakik herrian. Lehenengoan asmoa plazartu zuen, herritarren aldetik ilusioa eta jakin-mina sortuz. Bigarren saioan, kamera ilunen maketak egiteko materiala ekarri zuen Naderrek, beharrezko segurtasun neurri guztiak kontuan hartuta, gerturatutako familia bakoitzak irudi sortzaile den kaxa ilun hau ezagutzeko aukera izan zezan ahalbideratuz. Hirugarren saioa azaroaren 21ean egin zen, eta kamera ilunak



Herritarrek kamera ilunaren sekretuak ezagutu dituzte. JOXAN RUIZ

bizkarrean hartuta mendira igotzeko eta momentuko argazkien sentsazioaz gozatzeko aukera sortu nahi izan zen herritarrentzat. Kaxa hauetan burua sartuta, barruan gertatzen denak liluratuta utzi gaitu tailer hauetan parte hartu dugun guztiok.

Edukiontzia kamera bilakatuz
Orain azkenburukoa gelditzen zaigu, izan ere, Naderren proiektua, berez, bertan sar-

tzeko moduko neurria duen kaxa edo kamera ilun bat herrian jartzea da. Beraz, orain auzolanean herritarrok kamera erraldoi bat sortzea izango dugu helburu. Ilusiorik ez da falta, beraz, abenduan zehar herriko aparkalekuan jarriko den edukiontzia bat itxuraldatzen ariko gara herritarrek, bere barruan gertatzen dena, edonoren begien goxagarri izango den kamera haundi horretan lanean

DESKONTUAK

LEITZALDEA TTIPI TXARTELA

%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan Huarte Gotzaia, 19 LEITZA T. 948 51 01 73	%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan %10 DESKONTUA 50€tik gorako erosketetan ESTIMEDERM markan ezik Elbarren, 67 LEITZA T. 948 51 02 73	%10 DESKONTUA koltxo, somier eta burkoetan. Eskaintzetan izan ezik Elbarren, 45 LEITZA T. 948 51 02 08	%10 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan Landa Behekoa LEITZA T. 948 51 04 37	%3 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan Elbarren, 21 LEITZA T. 948 51 00 55
%10 DESKONTUA oparitzeko artikuluetan Elbarren, 15 - Herriko Plaza LEITZA T. 948 51 01 46	%5 DESKONTUA 25€tik gorako erosketetan Amazabal, 23 LEITZA T. 948 61 09 74	%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan Elbarren, 36 LEITZA T. 948 61 09 76	%15 DESKONTUA bainugelako osagarrietan Elgoien, 32 LEITZA T. 948 51 00 86	%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan Elbarren, 36 LEITZA T. 948 61 09 76
%5 DESKONTUA erosketa guztietan Elbarren, 19 LEITZA T. 948 51 07 48	%10 DESKONTUA hamar saloko bonoan Uharteko Gotzaia, 8-3.C LEITZA T. 948 51 07 30	%5 DESKONTUA gozotegian 30€tik gorako erosketetan Elbarren, 20 LEITZA T. 948 51 07 20	%5 DESKONTUA erosketa guztietan Elbarren, 19 LEITZA T. 948 51 07 48	%10 DESKONTUA hamar saloko bonoan Uharteko Gotzaia, 8-3.C LEITZA T. 948 51 07 30

«Gazteok euskaraz bizitzeko hautua egin behar dugu»

XABAT ILLARREGI MARZOL LEITZAKO EUSKALTZALE GAZTEA

Euskal Herriko gazteek egunerokoan euskaraz aritzeko dituzten oztopoak aztertzeko ekimena abian jarri dute zenbait gaztek, eta antolatzaileen artean leitzar bertsolari gaztea dago

I. REKARTE LEITZA

Bertsotan taula gainean egin zen ezagun, eta orain euskararen erabilerarekin lotutako proiektu berri batekin dator Xabat Illarregi Marzol (Leitza, 2001). Illarregik, beste unibertsitateko kide batzuekin eta Euskal Herriko hainbat euskara talderekin batera, *Gaztealdia* ekimena aurkeztu du, helburutzat, gazteen euskalduntzea izanik, hau da, «gazteok euskaraz bizitzeko hautua egitea, kontziente izatea euskaraz bizi nahi dugula eta horretarako urrats praktiko bat ematea, esatetik ekitera».

Gaztealdia ekimenaren sorrera uda honetan kokatzen da «duela zenbait hilabete Euskal Herri osoko zenbait euskara talderen saretzea eman zen eta proiektu honen lanean aritu gara». Ideia Euskaraldia-ren II. Edizioarekin lotuta sortu zen «testuinguru honetan, gazteen erabilera sustatzeko proiektu bat sortzea zen helburua».

Aurrekariak

Baina, proiektu hau ez da proiektu isolatu bat, aurrekariak ere baditu. «2015. urtean, Lutxo Egiak hilabete batez euskaraz bizitzeko hautua egin zuen, euskaraz bakarrik, eta logika horretan kokaturik sortu genuen proiektu hau».

Gaztealdian Egiaren proiektuan ez bezala, Euskal Herri osoko bederatzi gaztek parte hartu dute, zeinak egoera so-



Motzean

- **Hizkuntza bat?** Euskara.
- **Gaztealdia ariketa soziala eginen duzun herria?** Leitza.
- **Herri euskalduna dela uste duzu?** Bai, egunerokotasunean euskaraz bizi zaitezke.
- **Gaztealdiaren iraupe-na?** Azaroaren 12tik azaroaren 19ra.
- **Euskaraldiko bigarren edizioan parte hartu duzu?** Bai, noski!
- **Ze roletan?** Ahobizi gisa aritu naiz.
- **Amets bat?** Euskal gazteek euskararekiko konpromezu handiago izatea eta garai bateko hizkuntzarekiko borroka sena berriro ere piztea.

ziolinguistikoa eta kokapen geografiko guztiz ezberdinak dituzten. Gazte hauek, azaroaren 12tik 19ra euskaraz bizitzeko hautua egin zuten «euskaraz %100ean», eta egun

hauetan zehar bizitakoa gorde eta hedatzeko asmoa dute.

Bederatzi profilak

Parte hartzaileek oso profil ugariak izan dituztela adiera-

zi du leitzarrak «hori zen helburua, ahalik eta errealitate osoena eta zabalena hartzea».

Ariketa honen helburua «parte-hartzaile bakoitzak bere errealitatean euskaraz aritzeko dituen oztopoak identifikatzea da». Ondoren, jasotzen diren datuekin analisi bat egin nahiko lukete.

Leitzan euskaraz bizi

Illarregi *Gaztealdia* proiektuaren sortzaileetako bat izateaz gain, parte hartzaileetako bat ere bada. Berak Leitzako herrian egin du zortzi eguneko ariketa. Bere iritziz «Leitzan, euskaraz bizi liteke; denda txiki batera joan eta euskaraz hitz eginen dizute, taberna batera joan eta euskaraz hitz eginen dizute, kiroldegira joan eta berdin, tailer batera joan eta berdin... Hau noski, ez %100ean, baina bai ehuneko altu batean».

Herri euskalduna bada ere, erabilera eta kontzientzia ezberdina dela argudiatu du. «Euskara asko hitz egiten da, ia dena euskaraz, baina iruditzen zait neurri batean kontzientzia galtzen ari garela, eta gazteen artean gehienbat. Euskarak duen balioa, historia eta garrantzia ez da berdina nere ustez denontzan, eta galtzen ari da euskararen aldeko borroka horren kontzientzia, erabilerari begiratuz gero». Beraz, *Gaztealdia* euskararen inguruan hausnartzeko parada bikaina izan daiteke.

Euskaraldian, ahobizi

Azkenik, leitzarrak, Euskaraldian parte hartu: duela adierazi du «Bai, noski, parte hartu dut euskaraldian, ahobizi gisara. Ez luke zentzurik *Gaztealdia* bezalako proiektu batean egoteak ondoren euskaraldian parte hartu behar ez baldin badut».

Gainera, bere hitzetan, *Euskaraldia* eta *Gaztealdia* bateragarriak dira «iruditzen zait bi proiektuak bateragarri direla eta elkar elikatu dutela, bat bestea indartu du».



Herriarrak kantuan joan den urteko abenduaren 24an. ARTXIBOKO IRUDIA

Hilaren 24an kantu eskean aterako dira herriarrak

Eguberrietan ez da ohiko ekitaldi jendetsurik egingo baina Olentzero eta hiru errege magoak bisitan etorriko dira

TTIPI-TTAPA

Ezohiko Eguberriak izango dira aurtengoak, baina jai haue-
tako protagonistak ez dira Aresora etorri gabe geldituko.

Abenduaren 24an, esatera-
ko, herriarrak kantu eskean
aterako dira eta Olentzero
etorriko dela ere iragarri dute,
baina ez dute plaza zaharrean

urtero egin ohi den ekitaldi
jendetsurik egingo. Urte ber-
rian sartuta, bestalde, hiru
errege magoak ere bisitan
etorriko direla aurreratu dute.
Beraz, modu berezian bada
ere, Olentzerok zein erregeek
opariak uzteko modua aurki-
tu eta kukua egingo dute he-
rrira.

Hirigintza Plan Orokorra osatzeko parte-hartze prozesua bukatu da

TTIPI-TTAPA

Hirigintza Plan Orokorra osa-
tzeko bidean, herriarrarekin
elkarlanean egin den prozesu
parte-hartzailea amaitutzat
eman du udalak. Irailaren
23an egin zen aurreneko saioa-
ren ondotik, azaroaren 25ean
egin zen bigarrena eta hamar

bat lagun bildu ziren. Bi saio
horietan egindako ekarpenak
bilduta, hemendik aurrera
udala hirigintza plana idazten
hasiko da arkitektoarekin el-
karlanean. Behin-behineko
proiektua prest dagoenean,
udalak alegazioak idazteko
epea zabalduko du.



Liburutegi ibiltaria ostegun honetan herrian

Azaroko geldialdiaren ondo-
ren, liburutegi ibiltariak aben-
duaren 10ean, ostegun honetan,
egingo du geldialdia herrian. 14:15etik 15:00etara
egina dute hitzordua eta hori
izango da liburutegi ibiltari-
aren aurtengo azken saioa.

Bestalde, gogoan izan, au-
rretik liburu edo DVDren bat
eskatu nahi izanez gero, ho-
rretarako aukera badela. 617
38 58 82 telefonora deituta
edo Whatsappez mezua bi-
dalita edo biblilei@navarra.es
helbidera idatzita egin dai-
teke eskaera.

Ur tasa ordaintzeko epeak zehaztu ditu udalak

Udalak ohar bidez jakinara-
zi duenez, aurtengo urteari
dagokion ur tasa ordaintzeko
epea aste honetan zabaldu
dute, abenduaren 7an. Tasa
borondatez ordaintzeko epea
datorren urteko urtarrilaren
7ra arte luzatuko dute eta
behin epe hori pasatuta or-
daintzen duten herriarren
kasuan, berriz, gainkargua
gehituko dietela aipatu dute
udaletik.

Ordainketa Caixabank, Ru-
ral Kutxa edo Laboral Kutxa-
ko kontuetan egiten ahalko
da.

Urtariletik maiatzera haurrentzako psikomotrizitate ikastaroa

TTIPI-TTAPA

Hiru eta sei urte bitarteko
haurrentzako psikomotrizi-
tate ikastaroa antolatu dute.
Urtarilean hasita maiatzera
arte asteartetan izango dira
saioak, 15:30etik 16:30ra, bai-
na parte hartu nahi dutenek
orain eman beharko dute

izena, abenduaren 25a baino
lehen. Izen-ematea udale-
txean edo [kirolmankomuni-
tatea@gmail.com](mailto:kirolmankomunitatea@gmail.com) helbidera
idatzita egin daiteke. Infor-
mazio gehiago jasotzeko,
berriz, 649 50 23 10 telefonoa
dei daiteke. Ikastaroaren pre-
zioa ehun eurokoa izango da.



UTZITAKOIA

Euskararen Eguna berezia

Urteroko ospakizun handirik gabe, baina aurrean ere Euskararen Eguna seinalea egin dute herriarrak. Ipuin-kontalaria, kalejira, Hesian taldearen kontzertu akustikoa... Kultur eskaintza ederraz gozatzeko aukera izan da. Horrekin batera, Euskararen Egunerako bideoan ere ekarpen politikak jaso dira.

Jostailu bilketa abenduaren 14tik 18ra egingen dute

Gizarte zerbitzuen egoitzan bilduko dituzte 09:00etatik 13:00etara

TTIPI-TTAPA

Gizarte zerbitzuek antolatuta, egoera ekonomiko zaurgarrian dauden familiak laguntzeko jostailu bilketa solidarioa egingen dute abenduan Baztanen. Egoera onean dauden jostailuak bakarrik jasoko dituzte eta, hilaren 14tik 18ra, aste-

lehenetik ortziralera, bilduko dituzte. Goizez, 09:00etatik 13:00etara, Gizarte Zerbitzuen egoitzan bildu ahal izanen dira. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, jostailuak beharra duten familiei banatu aitzinetik desinfektatu egingen dituzte.



OIANKO GARDE

'Ez dok ero' antzezlanaz gozatu dute

Euskaraldiari hasiera emateko, Iruritako Gizarte Bilgunean *Ez dok ero* antzezlanaz gozatu zuten azaroaren 21ean. Birusa tarteko, edukiera mugatua izan zen eta gunea bete zen. Bertaratu zirenek Tartean Teatroa taldearen lanaz gozatzeko aukera izan zuten.

Haurdunaldi subrogatua solasgai abenduaren 9an Elizondon

TTIPI-TTAPA

Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira, Baztango Udaleko Berdintasun Batzordeak antolatuta, haurdunaldi subrogatuari buruz solastatzeko mahai ingurua izanen dute abenduaren 9an, asteaz-

kenean, Elizondon. Oihana Etxebarrita eta Maite Asensio kazetariak eta Josebe Iturrioz aktibista eta transfeminista izanen dira mintzalari eta Miren Mindegia kazetaria izanen dute moderatzaile. Arizkunean kultur etxean elkartzeko dira, arratsaldean, 19:00etan.



UTZITAKOA

Ikasleak eskubideen alde borrokan

Ikasle Antolakundeak egindako deialdiaren harira, ikasleek euren eskubideak aldarrikatzeko elkarretaratzea egin zuten azaroaren 17an Lekarozen. «Jasan beharreko neurri autoritarioen» aurka «borrokan» segitzeko prest agertu ziren eta ikasturte hasierako eskaerei ahotsa eman nahi izan zieten.

BRIKO
BAZTAN, SL

Drogeria · Garbiketa produktua
Ferretaria · Sukaldeko tresnak
Mozorroak · Papertegia
Kiroleko eta mendiko jantziak
Moda · Oinetakoak
Laneko arropa · Bitxiak
Lurrin-denda
Kosmetika, Elektronika
Telefonoak · Poltsak eta maletak
Etab.

T. 608 016 052
San Andres, 66 · NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

asegi asesorías
Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak

- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22-1
31780 BERA
T. 948 631 108

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304



Kanpotik etorritako haurren egoera eta integrazioa lantzen dituzte. KURKULUXETAN.EUS

'Ongi etorri lagun' antzezlanaren 18an

Edukiera mugatua izanen denez aitzinetik 689 03 50 78 telefonora deitu eta izena eman behar da

TTPI-TTAPA

Zirtaka antzerki taldearen eskutik, Koldo Zelestinok zuzenduriko *Ongi etorri lagun* antzezlan musikatua izanen da abenduaren 18an, ortziralean, Iruritan. Damaso Zabalza Gizarzte Bilgunean dute hitzordua, 17:00etan.

Sinopsia

Mari Leka eta Panpoxa ikaskideak eta lagunak eskolara hainbat haur etortzen ari direla ohartzen dira. Batzuk gurasoek ekarriak, bertzeak gerratik ihesi, adoptatuak... Lan horren bidez, egungo gizartea islatu

nahi dute, kanpotik etorritako haurren egoera eta Euskal Herrian integrazioa landuz. Antzezlan musikatua da eta kantak hainbat jatorritakoak dira: Zambia, Angola, Bolivia, Sahara, Errumania... Horren bidez, haur guztien integrazioaren aldeko aldarria egin nahi dute, norberaren kulturatik abiatu eta Euskal Herriko errealitate-
ra hurbilduz.

Izen-ematea

Edukiera mugatua izanen denez, bertaratu nahi dutenek 689 03 50 78 telefonora deituz eman dezakete izena.



UTZITAKOA

Futbolarien prestakuntza saioa

Baztan Futbol Taldeko jokalariek Donostiako Real Sociedad taldearen eskutik prestakuntza saio bat jaso zuten azaroan. Futbolariak eskerrak eman nahi izan dizkiote Errealari egindako ekarpenengatik. Ikasiz eta jokatzuz, futboleko eta futbolaz gozatzen segitzeko gogotsu daude gaztetxoan



UTZITAKOA

Heldu den urteko egutegia eskuragarri

Bertan elkarteko kideen artean eskuragarri dago heldu den urteko egutegia. Aurten Bertan Baztan eta Doneztebarrak elkarrekin Mallerrekako Hondakinen Mankomunitatearekin eta Baztango Udalarekin batera egin dute eta, bertzeak bertze, Nafarroako Hondakinen Patzuergoak eta Nafarroako Gobernuak babestu du.



**PROFESIONALAK
KALITATE-BERMEA
IRISGARRITASUNA
MANTENTZE LANAK**



EZ ZAITEZTE KEZKATU! Gu arduratuko gara proiektu osoa landu, obra baimenak tramitatu, diru-laguntzen eskaerak egin eta gremioak koordinatzeaz.

Santiago, 71 | ELIZONDO | T. 948 580 166 | M 619 424 999
suteia@suteiazaldain.com

1 KANPOKO IGOGAILUAK
Kanpoko fatxadan guztiz integratuak, portal barrutik sarbidea. Inpaktu eta eragozpen minimoak. Mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako sarbidea.

2 BARRUKO IGOGAILUAK
Eskailerako tartean integratuak. Sarbidea portal barrutik, inongo oztoporik gabe. Mugikortasun arazoak dituzten eta gurgil-aulkian daudenentzako egokituak.

3 IRISGARRITASUNA
Mugikortasun arazoak dituzten eta gurgil-aulkian daudenentzako portalerako sarbidea egokitzen dugu. Azkar egiten ditugu lanak, eragozpen minimoak sortuz.





Maitane Maritorenak berak egindako liburua esku artean duela. UTZITAKOA

Anizi buruzko lan mardula egin du Maitane Maritorenak

Alejandro Izkoren dokumentuez eta Maite Lakarren *Baztan solasean* laneko zatiez gain, ahozko lekukotzak bildu ditu

TTIPI-TTAPA

Ordu aunitzetako bilketa eta bilaketa egin du Maitane Maritorenak aniztarrek «Aniz zena eta gaur egun denaren lagin ttipi bat» osatzeko.

Bilketa eta bilaketa lana

Dokumentu zaharrei dago-kionez, Alejandro Izkoren lanetik bildu ditu. Horiez gain, Maite Lakarrek utzitako *Baztan solasean* liburuan ageri diren herritarren lekukotasunak eta ahozko lekukotzak izan ditu ardatz, «gehienak amarengandik jasoak». Hitzak irudiz hornitu ditu, «oroimen

kolektiboa eraikitze inportanteak» direlakoan.

Aurkezpena eta edukia

Egindako lana abenduaren 5ean, joan den larunbatean, aurkezteko zuen herrian. Herritarrek, lan horri esker, herria hobeki ezagutzeko eta herriaren orain arteko historia gordetzeko modua izanzen dute: kokapenetik hasi eta herriko paraje, biztanleria, etxe, armarri, borda, hilerri, eliza, ermita, eskola, bizimodu, elikadura, garraio, ohitura, ospakizunak... ezagutu ahal izanzen dituzte.

Baztan Kantuz abenduaren 20an Anizen

Baztan Kantuz egitasmoaren urteko azken hitzordua abenduaren 20an izanzen dute Anizen. Baztango Udaleko Kultura Batzordeak kantuzaleak parte hartzera animatu ditu. 12:00etan herriko plazatik abiatu eta herrian barna ibiliko dira.

Olentzero herrian izanzen da abenduaren 24an

Orain artean abenduaren 24an etxez etxe ibiltzen ziren aniztarrek. Aurten, ordea, osasun neurri guztiak betez ospatuko dute Eguberri bezpera eta ez dute etxez etxeko bueltarik egingen. Olentzeroren bisita ezohikoa izanagatik, izan izanzen da.

Truke azokak egingen dituzte Erratzun eta Anizen abenduaren 13an eta 20an

TTIPI-TTAPA

Baztango Gazte Asanbladak bigarren eskuko arropa eta objektuen truke azoka antolatzen du abendurako. Ortziraletan gaztetxean bildutakoak plazaratuko dituzte, behar duenak hartzeko aukera izan dezan.

Heldu den larunbatean, abenduaren 13an, Erratzuko plazan (euria ari badu, berriz, frontoian) dute hitzordua. Hurrengo, berriz, abenduaren 20an izanzen da Anizen, frontoian. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, koronabi-



Bilketak Elizondon egin dituzte.

rusak eragindako egoeraren aitzinean, segurtasun neurri guztiak betez, hau da, maskarekin eta distantziak mantenduz, egingen dute azoka.

MARMOLÉS SOULE

www.marmollessoule.com

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmollessoule@gmail.com

LAPIDAK
PANTEONAK
KANPOSANTUAK
HARRI LANAK
ESKULTURAK

ANZABAL
inmobiliaria

- Inmobiliaria
Baserrri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria
- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...



Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

Oharriz Auzoa z/g • LEKARÓZ
T. 948 452 143 • 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN, S.L.
VALLES DE CAJATE

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU



BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE

Lixura garbiketa sortzeko hasierako onespina egin dute

Estatutuei hasierako onespina eman eta aurrekontua moldatu du udalak

TTIPI-TTAPA

Baztango eskolak eta mediku kontsultategiak garbitzeko enpresa publikoa sortzeko bidean, azaroaren 26an, honddarreko ortzegunean, egindako osoko bilkuran, Baztango Udalak entitate berriaren memoria teknikoari eta estatutuei hasierako onespina eman zien.

Lehenbiziko pausoak eman dituzte

Hasierako onespina emanda, jende aitzinean ikusgai egonen dira, legezko ondorioetarako. Horren ondotik, behin-betiko onartuko dira eta enpresa sortzeko ondoko pausoekin aitzinerat egingen da.

Aldi berean, enpresa sortu ahal izateko aurrekontu moldaketa onartu zuen udalak, 3.300 eurokoa; hori izanen



Ornoz-Mugairiko kontsultategia.

baita enpresa berriaren hasierako kapital soziala.

Aipatu erabakiak EH Bildu, Ezkerra eta Geroa Bairen aldeko 10 bozkekin onartu ziren eta Navarra Sumak kontrako hiruarekin.

Bertzalde, enpresaren izena Lixura izanen da, garai batean baserrietan ehunki eta jantziak garbitzeko egiten zen lixibatik gelditzen zen ura, lixura hain zuzen. Ur hori, bertzeren artean, zolak garbitzeko erabili zitekeen.



UTZITAKOA

Irigoien-Rekarte zerri-haztegia saritua

Azaroaren 27an banatu zituzten aurtengo Porc d'Or sariak. Guztira 48 sari banatu zituzten, horietatik hiru Baztan-Bidak bi haztegik irabazi zituzten. Arizkungo Irigoien-Rekarte zerri haztegiak bi eskuratu zituen: zilarrezkoa erditze tasari dagokionez eta brontzezkoa bizitza-luzera kontuan hartuz.

Fabian Barrazaren kontzertua abenduaren 13an Elizondon

TTIPI-TTAPA


Jazzmanouche izeneko ijito jazzak girotuko du Arizkunenea kultur etxea abenduaren 13an, igandean. Arizkunenea kultur etxean izanen da emanaldia 19:00etan eta gonbidapenak 18:00etatik aitzinera jaso ahal izanen dira.



Fabian Barraza.

ferreteria Quevedo

**TXERRI HILTZEAN
ERABILTZEKO TRESNAK**



Santiago 31 • ELIZONDO • Tel.: 948 580 234 • www.ferreteriaquevedo.com

Berriz ere deklaratu du alkateak Aroztegiari buruz

Sustatzaileek prebikazio-delitua egotzita hirugarrenez joan behar izan zuen abenduaren 1ean Iruñeko epaitegira

TTIPI-TTAPA

Palacio de Arozteguia SL-k hirugarren aldiz paratu du Joseba Otondo alkatearen kontrako salaketa, oraingoan prebikazio-delitua egotzita. Hori dela eta, abenduaren 1ean, Iruñeko epaitegian deklaratu behar izan zuen.

Joan den urtean, «isiltasun administratiboari esker» Aroztegiako proiektuaren lehen faserako sustatzaileek lortua zuten obren baimena bertan behera utzi zuen udalak. Erabaki hori hartzeko, Nafarroako Gobernuak Ondare Arkitektonikoaren Zerbitzuko txosten batean oinarritu zen Balleko Etxea. Udaleko zerbitzu juridikoen ustez, txosten hori hotela eta zerbitzu osagarriak eraikitzearen kontrakoa zen, baina Nafarroako Gobernuak Kultura Departamentuaren arabera, «eraikitze osagai arkitektonikoetan aholku batzuk bertzerik ez ziren» eta Baztango Udalarik zuzendu zitzaion, sustatzailea araudi-egokitze eskaria egin zezan. Baztango EH Bildutik adierazi dutenez «oraingo

marko politiko eta instituzionalean alkatea herritarren adierazpide demokratikoaren ordezkaria da, herritarren erranari eta interes publikoari zor zaiona». Haatik, «Palacio de Aroztegiak judizialki, behin eta berriz, zanpatu nahi du, alkatea beren erranetara aparazteko. Beren nagusitasun ekonomikoa erabili nahi dute instituzio eta ordezkari politikoak makurrarazteko. Eta hori ez da onartzen ahal» salatu dute.

Horren aitzinean Baztango EH Bilduk Aroztegiako bultzatzaileen «jazarpen judiziala» gogor gaitzetsi nahi du, «beren jokabide guztiz antidemokratikoa salatu bidenabar».

Joseba Otondori babes eta elkartasuna adierazteko epaitegiaren kanpoko aldean ekarretaratzea egin zuten abenduaren 1ean hainbat herritarrek, azkeneko salaketa hau gaitzesteko. Otondok berak, sustatzaileek «bere ahalmen ekonomiko ikaragarria hamarnaka baztandarren kontrako jazarpen judiziala» egiteko erabiltzen dutela salatu zuen.



ONDIKOL, K.EZKERRA ETA UTZITAKOAK

Emakumeenganako indarkeriaren aurka

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunean, Baztango Udaleko Berdintasun Batzordeak antolatutako elkarretaratzea izan zuten Elizondon. Arratsaldean, berriz, Talde Feministak eta Inarrosi taldeak antolatutako bizikleta martxan bildu ziren.



**ELBETE^{KO}
POSADA**



Eguberri hauetan
OPARITU
Elbete^{KO} Posada



OPARI TXARTELA
Zure esku

ELBETE • Karrikaundi • T. 948 581 519
info@posadaelbete.com • www.posadaelbete.com



**inelsa
ZENER**
ascensores
igogailuak

Igogailuen
instalazioak.

Multimarka
mantentze-lanak
eta erreformak.

T. 948 232 400
[**www.inelsazener.com**](http://www.inelsazener.com)

Kantu herrikoien ikastaroa urtarrilean hasiko da

Asteazkenetan Arizkunenea kultur etxean bilduko dira bi orduz

TTIPI-TTAPA

Kantuzaleek urtarrilaren 13tik martxoaren 17ra bitarte Elizondoko Arizkunenea kultur etxean kantu herrikoiak ikas- teko aukera izanen dute. Asteazken arratsaldetan, bi orduz, 18:30etik 20:30era, bilduko dira Thierry Biscary, Kalakan tal-

deko partaide izandakoa, irakasle dutela. Parte- hartzaileek kantu herrikoiak ikasteaz gain, horiek interpretatzeko baliabideak eskuratuko dituzte. Eta, era berean, kanten testuingurua, kantatzeko guneak eta bertze ezaugarri batzuk eza- gutu ahal izanen dituzte.

Lego tailerra abenduaren 12an Elizondon

Lego piezak eta pertsonaiak erabiliz, Eguberrietako mundua sortzeko aukera izanen dute 5 eta 12 urte bitarteko gaztetxoek larunbatean. Izan ere, Discover Bricksen eskutik, Lego tailerra izanen dute larunbatean Elizondoko Arizkunenea kultur etxean. Goizez, 11:00etatik 12:30era bitarte, elkartzeko dira. Matrikula doan izanen da, baina koronabirusa tarteko plaza mugatuak izanen dira eta izena emateko 636 47 99 65 edo 636 45 07 45 telefonora deitu edo info@discoverbricks.es helbidera idatzi behar da.

Xabier Xubelet eta Xabernaten saioa abenduaren 20an

Xubelet eta Xabernaten eskutik kontzertua izanen da abenduaren 20an, igandean, Elizondon. Baztango Udaleko Kultura Batzordeak antolatutako hitzordua, ilunabarrean, 19:00etan, izanen da, Arizkunenea kultur etxean. Koronabirusagatik, edukiera mugatua izanen da eta musikazaleek sartu ahal izateko gonbidapena aurkeztu beharko dute. 18:00etatik aitzinera egonen dira eskuragarri eta pertsona bakoitzak, gehienez ere, bi gonbidapen jaso ahal izanen ditu.

Igeriketa ikastaro intentsiboa abenduaren 9tik 22ra

Giltxaurdi udal kirol instalazioan abenduaren 9tik 22ra, bi astez, igeriketa ikastaro intentsiboa emanen dute. Astelehenetik ortziratera emanen dituzte klaseak eta guztira hamar saio izanen dituzte. Horrez gain, eskaera handia zegoela ikusita, spinning eta jumping fitness klaseetarako bertze bi talde egin dituzte. Dagoeneko izena emateko aukera zabalik dute eta honako egun eta orduetan bilduko dira: spinning asteartean 17:00etatik 17:50era eta jumping fitness astelehenetan 17:00etatik 17:45era.



ERNAI BAZTAN

'Gure hautua bizitzak' lelopean bildu dira

Ernaik antolatuta, azaroko hirugarren asteburuan Nafarroako ehunka gazte karriketara atera ziren, «gure hautua bizitzak» direla aldarrikatzeko. Elizondon ere «kapitalismoa salbatu eta osasuna alde batera uzten duen elitearen aurka» oihukatu zuten.

Baztanen «izaera konplexua» kontuan hartzea eskatu dio udalak Parlamentuari

TTIPI-TTAPA

Eskaera zehatza egin dio udalak Nafarroako Parlamentuari: «Baztango izaera bereziki konplexua kontuan har dezala eta dagokion trataera ekonomikoa eman diezaioala, dela transferentzia arrunten funtsaren bidez, dela aipatu hel-

bururako adosten den bertzelako neurriren baten bidez». EH Bilduk eraman du proposamena osoko bilkurara eta, gainerako talde guztiek bat egin dute eskaerarekin.

Nafarroako udalen finantziario-iturri nagusietakoa transferentzia arrunten funtsa

izaten da, urtero Nafarroako Gobernuak Foru Lege batean arautzen duena. Modu horretan Nafarroako udalek herrialdeko ogasun publikoak jasotako tributuen zati bat eskuratzeko dute, legez dituzten funtzioak bete ahal izateko.

Baztango udal agintariak jabetzen dira «Nafarroako aniztasuna kontuan hartuko duen lege eta formula boro-bila finkatzea seguru aski ezi-

nezkoa dela, eta, hain segur, udal guztiek arranguraren bat» izanen dutela. Alta, Udalaren uste sendoa da transferentzia arrunten funtsak ez duela Baztango konplexutasuna kontuan hartzen, eta, ondorioz, bailarak dituen beharren arabera ko diru-ekarpena egiten. Baztan da Nafarroako udalerririk handiena (375 km² ditu). Gainera, lurralde antolaketa konplexua du.



Elizondoko Datue poligonoan bota dituzte hondakinak. UTZITAKOA

Datue poligonorako sarbidea hetsi du Udalak

Herritarren portaera desagokiak bultzatu dute udala erabakia hartzera

TTIPI-TTAPA

Lehendik Arizkungo Ordoki poligonoan gertatu zen bezala, oraingoan Elizondoko Datue poligonoko gibelaldean gertatu da. Datuen zabor bakoitza bere tokian biltzeko edukiontziak jarri zituen Hondakin Zerbitzuak eta herritar aunitzek puntua bera eta edukiontzi hauek behar den bezala erabiltzen bazi-tuzten ere, geroz eta gehiago izan dira toki hori edozein zabor klase eta nolanahi botatzeko baliatu dutenak.

Datuen, etxeetako eta komertzioetako egurrezko hondakinak eta komertzioetako film edo enbalaje plastikoa biltzeko edukiontzi handiak daude. Edukiontzi horiek ez dira industria edo aktibitate ekonomiko espezifikoetan sortzen diren hondakinak biltzeko, hondakin horien kudeaketa (eta ondorioz bere kostua) aktibitate edo enpresa horren titularrari baitagokio. Azken aldian ikusi dutenez, edukiontzi handi hauek alde batetik zenbait industri aktibitatek beren mesedetarako erabiltzea erabaki dute.

Gauza bera gertatu da hainbat eraikuntza enpresa eta partikularrekin. Hauetako batzuk ere Datue poligonoa baliatu baitute edozein obra hondakin botatzeko. Portaera desagoki hauek guene horren gainerako erabiltzaileen gain eta poligonoko bertze nabee-tako jabeen gain begibistako arazoak sortu ditu. Horrez gain, batzuek udalak traste handien bilketarako duen zerbitzua erabili beharrean, puntu hau baliatu dute beren etxeko moble zahar, koltxoi, hozkailu, komun eta gisakoak botatzeko.

Arazoa gero eta larriago bihurtzen ari dela ikusita, zuzenki kaltetutako nabeen jabeekin solastu ondotik eta beraien iritzia kontuan izanik, zonaldea ibilgailu ez baimendu- duei ixteko erabakia hartu dute. Behin sarrera itxita, ingurua garbitu du Udalak.

Ondorioz, azaroko bigarren asteaz geroztik, inguru hori ibilgailuei hertsita eta bideoz zaindua dago. Gainera, hemendik aitzinera hor zaborra botatzeko oinez sartu behar-ko da.



UTZITAKOA

Kantu zaharren eguna oroitu dute

Hauspolariek taldeko Jaione Elizagoienek eta Izaskun Iparra- girrek azaroko azken asteburuan Dantxarinean ospatu ohi den kantu zaharren eguna gogoan, 'Euskal Herrian euskaraz' kanta grabatu eta Facebook atarian partekatu zuten. Kantu- zaleek esker onez jaso zuten bikotearen keinua.

1.176 baztandarrek parte hartu dute Euskaraldian

Aitzineko edizioarekin konpa- ratuz, goiti egin du Euskaraldi- ko parte-hartzaile kopuruak. 2018an 1.067 baztandarrek eman zuten izena (946 ahobizik eta 126 belarriprestak); Aurten, berriz, guztira 1.176 izan dira parte hartu dutenak (1.039 aho- bizi eta 137 belarriprest).

Akordeoi eta klarinete irakasleen oposizioak ebatzita

Baztango Udalak euskara eza- gutza duten akordeoi eta klari- nete irakasleen lanpostuan aritze- ko izangai-zerrenda osatzeko egin zuen deialdia ebatzi du. Akordeoi irakasleen lehiaketa eta oposizioaldian Iratxe Etxar- te Alzuri izan da puntuazio al- tuena eskuratu duena eta bigar- ren izan da Izaskun Iparragirre Etxartea. Klarinete deialdian, berriz, Axel Carton Iridoy eta Rosa Vidal Romerok eman zuten izena. Euskara maila neurtzeko proba Carton bakarrik aur- keztu zenez, bera izan da eba- z- penean onartutako bakarra.

Inarrosi Baztango neska* gazteen sarea antolatu dute

Azaroaren 25aren bueltan, Baztango neska* gazteak sa- retzeko eta antolatzeko Ina- rrosi talde feminista sortu eta Instagram bidez horren berri eman zuten. Nahi dutenak taldean sartzera animatu nahi izan dituzte: «antolatu eta batu borroka feministara!».

Haur Txokoa izanen dute abenduaren 28tik urtarrilaren 5era

Lanbide Eskola 3 eta 12 urte bitarteko haurrentzako txokoa izanen da abenduaren 28tik urtarrilaren 5era. Gaztetxoak 10:00etatik 13:00etara bilduko dira Dindaia Fundazioko begi- rale batekin. Haur Txokoa mar- txan paratu ahal izateko gutxie- nez 10 lagun eta gehienez 20 beharko dira eta izena emateko epea abenduaren 21era arte dago zabalik. Haur bakoitzeko 20 euro ordaindu behar dira eta 689 03 50 78 telefonora dei- tuz edo [e.gizartehezitzailea2@ baztan.eus](mailto:e.gizartehezitzailea2@baztan.eus) helbidera idatziz eman daiteke izena.



Zahar etxeko langileek «zaintza duina» eskatu dute. UTZITAKOA

Udalak zahar etxeko langileen aldeko mozioa onartu du

Zahar etxeko langileen esfortzua aitortzeaz gain, lan hitzarmena gaurkotzeko deia eginen du

TTIPI-TTAPA

Francisco Joaquin Iriarte Zahar etxeko langileek aurkeztutako mozioa ahobatez onartu zuen azaroaren 26ko osoko bilkuran udalak. Egoitzako langileek adierazi zutenenez, «Covid-19aren bigarren agerraldiaren bueltan ezohiko egoeran gabilta, martxoan izan zen bezala orain ere bai».

2020ko ekainaren 1ean IDEA-ko burua den Rafael Sanchez Ostizek, M^a Carmen Maeztu Eskubide Sozialetako kontseilariarekin eta LAREsko ordezkaria den Eduardo Mateorekin eskainitako prentsaurrekoan, «eska daitekeenaren gainetik, ezohiko egoera honetan artatutako pertsonei ahalik eta bizi-kalitate onena emateko» langileen dedikazioa eta ahal-lagin pertsonala azpimarratu zituen. Langileek eskatutakoarekin bat eginez, Balleko Etxea publikoki onartu du «zahar etxeko langileen esfortzua, dedikazioa eta inplikazioa». Langileen ustez, «gaur den egunean, horrelako aitortzak, eman diren kasu murritzetan gutiengo batzuen aldetik, eremu pribatuan eman

dira Baztanen eta behin ere ez eremu publikoan».

Langileen Batzordearen idatzia-aren arabera, «jakina da adinekoen zaintzan lan egiten duten pertsonen lan baldintza egokiak, ezinbertzeko zutabea direla, zaintza hori behar bezala gauzatu dadin ziurtatzeko. Jakina da ere hemen ordezkatuak dauden talde politikoak Patronatoko kideak direla».

Beraz langileek udal batzar- rari eskatu zioten «idatziz premiatu dezala Patronatoa, honek eska diezaion enpre- sari langileekin lan hitzarme- naren kontsentsu batera aha- lik eta azkarren ailegatu dadin. Modu horretan gaurkotu de- zaten 2018tik eguneratu gabe dagoen lan hitzarmena, lan- gileen lan baldintza egokiak denboran ziurtatu dezakeen araua dena».

Era berean, IDEA zahar etxe- ko enpresa kudeatzaileari, «fidelki eta aitzakiarik gabe bete ditzan erakunde horrekin, Patronatoarekin, eta baztan- dar guztiekin hartuta dituen konpromiso ekonomiko eta sozialak» eskatuko dio udalak, langileekin bat eginez.



Abenduan hiru saski zozketatuko dituzte.

Bertan Baztan elkarteak bezeroen babesa eskertzeko hiru saski zozketatuko ditu

TTIPI-TTAPA

Bertan Baztan elkarteak, Baz- tango Udalaren eta Nafarroa- ko Gobernuaren laguntzaz, herritarren babesa eskertzeko, Eguberrietan hiru saski eder zozketatuko dituela jakinara- zi du.

Bertan saltokietan egindako erosketen truk, bezeroei datuak

bilduko dizkiete eta, zuzenean, saskien zozketan sartuko di- tuzte.

Zozketak abenduaren 15ean, 22an eta 29an, abenduko azken hiru asteartetan, egingen di- tuztela iragarri dute. Hemen- dik aitzinera, beraz, bertan erosi, bertakoa laguntzeak saria izanen du!



UTZITAKOA

Baztandarra taldekoak Saioan

Baztandarra Txirrindulari Taldeko kaldeteak indartsu daudela erakutsi dute bertze behin. Azaroaren 28an, honda- rreko larunbatean, Saioan izan ziren. Laster bike-parkea ere izanen dute Lekarozen. Pedalkadaz pedalkada aitzinera egiteko gogotsu daude. Ikus informazio gehiago 62. orrian.



Harremanak elkarteko kideak mahai-inguruan eskulanak egiten. ARTXIBOKOA

Idea eta proiektu berriekin dator Harremanak

Adinekoen elkartean, jubilotekaz gain, teknologia berrietan trebatzeko eta fisioterapia saioak egin nahi dituzte

MARIFA ETA KORO

Adinduekin lan egiten duen Harremanak elkarteak zazpi hilabetez itxita egon da, baina orain ideia eta proiektu berriak martxan emateko ilusioarekin dabil. Bi ekimen abiatu nahi dituzte.

Alde batetik teknologia berrietan trebatzeko ikastaroa eman nahi dute (Whatsapp; Internet bidez informazioa lortzea, adibidez egunkaria irakurtzea; memoria lantzeko jokoak ...). Bertze aldetik, gorputza eta osasuna zaintzea hain beharrezkoa denez, fisioterapia saioak ere eskaini

nahi dituzte. Horretaz gain, orain arteko arrakasta ikusita, bistan da jubilotekarekin ere segituko dutela.

Bazkide berriak

Bertzalde, bazkide berriak egiteko kanpaina ere hasi dute Harremanak elkartean. Eta interesatuta daudenek mediku kontsultan aipatzea nahikoa dute, edo telefono honetara deitzea: 659 84 95 70. Urteko kuota hamar eurokoa da, eta jubilotekan ere parte hartu nahi izanez gero, hila-betero 30 euro ordaindu beharko litzateke.

Guraso elkarteak Olentzeroren panpina emanen du plazan

Usaian elkartzeko egunak izaten dira Eguberriak, baina hori da aurtun debekatu digutena. Olentzero ez da karriketan ibiliko, eta eskolako besta ere ez da familietara edekiko, baina guraso elkarteak bederen bere seinalea egingen du, plazan Olentzeroren panpina emanez.

Ateak ixteko eskaria egin dute abeltzainek

Oinezkoak pasatu eta atekak edekiak uzteagatik, aziendak eskapo egin izan dutelako baserriar batzuk kezu sumatu dira herrian azken aldian. Beraz, mendizale, ehiztari, edo naturarat ateratzen den edozeini kasu emateko eskatu dute.

Azarotik hasita asteburuetan bakarrik edekitzen dituzte lezea eta museoa

TTIPI-TTAPA

Aurtengo hizpide nagusia izan dugun koronabirusak eragindako konfinamendua dela eta, gure karrikak usaian baino kalmaxeago ikusten dira, aise bisitari gutiagorekin.

Hori dela eta, lezean eta museoan horretara egokitu behar izan dituzte beraien ordutegiak, bisitariak erdirat jautsi baitira, eta azaroaren lehenetik aitzinera, bakarrik asteburuetan edekitzen dira (lezea ortziraletan ere bai).

Horretaz gain, eta urtero bezala, urtarilaren lehenbi-



Museoa eta ilargia ia betea zeruan.

ziko hamabortzaldian bai lezea, baita museoa ere, biak hetsita egonen dira.



UTZITAKOA

Azaroaren 25eko elkarretaratzea Saran

Azaroaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira, Xaretaldeko kontzentrazioarako, zugarramurdiarrak Sararat hurbildu ziren. *Emakumeen borroka, ez da ez* zioen pankartaren gibelean bildu ziren hainbat lagun plazan.



www.caserresidencial.es

Egonaldi motak

- Egonaldi iraunkorrak
- Aldi baterako egonaldiak familiaren atsedenerako
- Erreabilitazioa, operazio ondokoak eta gaixondoak
- Alzheimerra eta bestelako dementziak dituzten gaixoen zainketa egonaldiak
- Eguneko zentroak:
 - 365 egunetan irekiak
 - Garraio zerbitzua Irún, Hondarribia eta Hendaiara
 - Iparraldearekin hitzartuak APA diru-laguntzak

ANAKA | Anaka, 8 - IRUN | Tel.: 943 667 780
BETHARRAM | Zubieta, 161 - HONDARRIBIA | Tel.: 943 647 169



Euskaraldia bukatzeko kontzertua eman zuen taldea. UTZITAKOA

Umorez eta musikaz borobildu dute Euskaraldia

Xabier Artiedaren bakarriketaren ondotik, Maialen Jaurena herritarra kide duen musika taldea aritu zen hilaren 5ean

ARANTXA ETA IRAIA

Abenduaren 4an finitu zen Euskaraldia eta Urdazubin 82 pertsonak hartu zuten parte. Euskararen aldeko ariketa hau borobiltze aldera, Urdazubiko herri batzordeak abenduaren 5an ekitaldi bat antolatu zuen. Lehenik, 18:00etan *Txor-Txor* bakarriketa umoretsua izan zen Xabier Artiedaren eskutik. Bakarriketa honekin irriak egin ondotik, herriko musika

talde baten kontzertuaz gozatzeko aukera izan zuten hurbildu ziren guztiek. Berez Maialen Jaurena bakarrik da herrikoa, eta berarekin batera, Joanes Altxuk, Kattalin Arizmendik eta Irati Elizalde osatzen dute oraindik izenik ez duen taldea.

Modu honetan, aurtengo Euskaraldia modu polit eta goxoan akitzeko modua izan zuten urdazubiarrek.

Dantxarinean bizitasun gehiago nabari da

Iparraldeko konfinamendua- ren arintzeak eragina izan du Dantxarinean ere. Iparralde- ko lagunak hiru orduz atera daitezke etxetik eta 20 kilo- metroko distantzia mugitu daitezke. Honek, Dantxari- neara jende gehiago etortzeko aukera ekarri du eta hori ba- liatzen hasiak dira aunitz. Honela, azaroaren 28ko aste- buruaz geroztik mugimendu gehiago nabari da benten au- zoan.

Eguberri desberdinak izanen dira aurtengoak

2020ko urte osoa bezala, aur- tengo eguberriak ere desber- dinak izanen dira, halabeha- rrez. Nahiz eta ezin izanen den urteroko ospakizun jen- detsurik egin, etxeko goxota- sunaz gozatzeko aukera izanen da. Honetaz gain, ahal den heinean, herrian lagunak el- kartzeko aukera ere izanen da. Hortaz, urdazubiar guziei eguberri goxo batzuk pasa ditzatela desio diegu. Egube- rri eta urte berri on!

Emaztekien kontrako bortizkeria salatzen argi laranja Herriko Etxean eta elizan

JEAN-LOUIS BESSONART

Emaztekien kontrako bortizkeria salatzen eta kontra egiteko, ekintzak egin zituzten azaroaren 25etik abenduaren 10a artean. Xedea nagusia emazteen kontra erabiltzen diren bortizkeriekin behin-betiko bukatzea da. 2014az geroztik, kolore laranja erabi- lia da, etorkizun hobe eta mundu zuzenago bat irudikatzen. Herriko-Etxeak eta elizak ekimen honekin bat egin dute eta egun horietan, kolore laranja argituziren. Bertalde aldarri honekin bat egin nahi dutenek kolore hortako «korapilo» moduko seina- leak eskuratzen ahal izan zituzten abenduaren 5eko merkatuan.



UTZITAKO ARGAZKIA

Ongi etorri herrira Xistor!

30 urte eta 234 egun preso egon ondoren, *Xistor* etxean da. He- mendik aitzinera bere etxean jarraituko du zigorra betetzen, epaitegiak finkatu baldintzekin. Eskumuturreko elektronikoa eraman beharko du 18 hilabetez eta baldintza zorrotzak ukanen ditu 8 urtez. Zenbait herritarrek ongi etorria desiatu diote.



JEAN-LOUIS BESSONART

Jean Marc Duponten itsas abentura

2020ko azaroan hasi eta 2021eko otsailean amaitzen den itsas abentura hasi du senperetarrak. Bidaia Kanarietako El Hierro irlatik abiatu du eta amaiera Le Marinen izanen du. 4.700 kilometro egin beharko ditu eskala eta asistentziarik gabe. Abentura webgune bidez jarrai daiteke.

Kontseiluko bilkuran herriko etxebizitzaren inguruan jardun dute

Kontseiluan eraikinen espazioak esleitu eta maizter bakoitzak ordaindu beharreko kopuruak zehaztu zituzten

GANEX

Kontseiluko bilkuran herrian libre dauden etxebizitza eta establezimenduan identifikatu eta hauek herritarrei esleitu zizkieten.

Etxebizitzak

Olhain eraikinean bizileku bat hustu eta Mahie Hirigoienei alokatu zioten. Aldiz, Apezetxea eraikina Ludivine Chanbillar deri esleitu zioten.

Bertzalde, beharrean daudenei laguntzeko asmoz, bi bizileku egokitu dira. Bata Denen etxean eta bertzea bulandderi

berrian. Bertako maizterrak urte bete bizi ahal izanen dira bertan, epe hau bete ondoren, bizilekua utzi beharko dute bertze batzuek erabil dezaten.

Establezimenduak

Olhain eraikinean denda eta margo tailerrera bi leku egokitu dira. Bulandderi berrian, aldiz, Atxuri arte erakusketa dago. Azken honek bizi dugun osasun egoera dela medio ez du salmentarik izan, beraz, salmentarik izan ez dituen hila beteetan ez du alokairurik ordaindu behar.

Nizan izandako hondamendiak arintzeko 1.500 euroko dirulaguntza

Azaroaren 20an iragandako Kontseiluko bilkuran hautetsi guztiek aho batez onartu zuten 1.500 euroko dirulaguntza ematea.

Alex ekaitzaren ondorioak

Alex ekaitzak bortizki astindu zituen Italia iparralde eta

Frantzia hegoaldeko hainbat eskualde. Hamar ordutan 500 miliro baido gehiagoko prezipitazioak erregistratu ziren, hau da, eremu horretan urte batean izaten den prezipitazioen haina. Egurats honen ondorioz hainbat hildako eta desagertu izan ziren.

Animainean edukiontzi berriak paratu dituzte

Azaroaren 25ean edukiontzi zaharrak kendu eta edukiontzi berriak paratu zituzten Sarako Animainean errugbi zelaietan. Zaborrontzi berri hauek, aitzinekoek ez bezala, ontziaren erdia lur azpian kokaturik dute eta, modu honetan, tokia aurrezten da.

Konfinamendua arintzeko lehen neurriak

Azaro hondarretik herritarrek egunean hiru orduz atera ahalko dira kanpora, denda ireki ahalko dituzte, eta eskolaz kanpoko aktibitateak berriz egiten ahalko dira. Hala ere, zuhurtziaz jokatzeko mezua errepikatzea ez dago sobera.

Beharrean daudenei laguntzeko janari bilketa iragan zuten azaro hondarrean

Eguberrien atarian gauden honetan beharrean dauden herritarrei laguntzeko elikagai bilketa iragan zen azaroaren 27an, 09:00etatik eguerdira arte, Herriko Etxeko plazan. Bilketan mota anitzetako produktuak jaso ziren: baratze-kari, fruitu, arrain nahiz jaki

eginen kontserbak, kafea, erreximenta, bixkotxak, hortzetako pasta, higiepertsonalerako produktuak, irrisa, olio... Covid-19ak eragindako krisia dela eta, aurten iragandako produktuen bilketa inoiz baino garrantzitsuagoa izan da.



UTZITAKOIA

Indarkeriaren kontra, elkartasuna

Genero indarkeriaren aurkako nazioarteko egunaren baitan elkarretaratzea egin zuten azaroaren 25an Sarako Herriko Etxeko plazan 19:00etan. Bertan, jende andana bildu zen eta indarkeria pairatzen duen orori babesa eta elkartasuna adierazi zioten *Ez da ez!* lelopean.

Herriko Etxeko idazkaria xerkatzen du abenduaren 23a baino lehen

Herriko idazkariaren egitekoa izanen da herriko hautetsiak laguntzea eta aholkatzea zenbait erabakiren inguruan, herriko proiektuen segimendua egitea eta gidaritza segurtatzea eta elkargoak sortzen dituen agiri administratibo eta juridikoen legezkotasuna kontrolatzea. Jakitoteari dagokionez, herrien eskumen-arloak eta horien antolaketa, Lurraldeko Funtzio Publikoaren estatutua eta informatika ezagutzak izan beharko ditu. Azken erabakia hartzerakoan, hautagaiek antzeko lanpostu

batean aritu izana hobetsiko da, baita euskara jakitea ere. Lanean, ahal bezain agudo hasiko litzateke.

Lanpostuaren inguruko baldintza eta informazio gehiago Sarako Herriko Etxeko webgunean eskuragarri daude.

Hautagaitzak

Hautagaitza aurkeztu nahi dutenek curriculum motibazio-gutunarekin batera igorri beharko dute *direction@sare.fr* helbidera edo aurrez Herriko Etxean abenduaren 23a baino lehen.



Alberto Retegi, iazko Felix Errandonea Memorialaren sari banaketan. ARTXIBOKOA

Kirol merituari zilarrezko domina Alberto Retegik

Berako Gure Txokoa elkarteko txirrindularitza taldeko arduradun izan da 40 urtez eta eskola sustatu du

TTIPI-TTAPA BERA

Nafarroako Gobernuak 2020ko Kirol Merituari Zilarrezko dominak banatu zituen azaroaren 25ean. Denetara 22 zilarrezko domina banatu zituen eta horietako bat Alberto Retegi Albistur berata-

rrari eman zion. Covid-19a dela eta ez zen ekitaldi presentzialik egin, baina, aitzine-rago egitea ez dute baztertu.

Alberto Retegi Gure Txokoa-ko Txirrindularitza Saileko arduraduna izan da 1985etik gaur egun arte eta urtero el-

karteak antolatzen dituen probetan lagundu du.

Gure Txokoaren Txirrindularitza Eskolan sartu zen 80ko hamarkadan, eta handik sortu zen, inguruko klubekin batera (Gure Txokoa, Beti Gazte, Erreka, Baztandarra eta Beratarra) Urtxintxa kluba.

Urteetan zehar, gaztetxoak errepidetara eramateaz arduratu zen, talde horretako zuzendari lanak eginez. Eskola horretatik heldu ziren profesionaletara Patxi Vila, Jon Bru eta Joseba Larralde beratarak.

Gure Txokoa Elkarteko Txirrindularitza saileko arduradun bezala, eta teknologia berriak iritsi aitzinetik, inguruko txirrindulari amateurrei fitxak egiteaz arduratu zen, eta oraindik arduratzen da. Eginkizun hau betetzeko Iruñera egin zituen bidaiak ez ziren guti izan, eta beraz, txirrindularitza munduan hagitz ezaguna da.

Gainera, Nafarroako Txirrindularitza Federazioko Zuzendaritza Batzordeko kide izan zen lau urtez.

Gaur egun Beran, kadete eta gazte mailako txirrindularitza lasterketak egiten jarraitzearen arduradun bera da. Zehazki, Errandonea Memorialak 42. edizioa bete du aurrean.

Sherpa.ai txapelketaren finala azkenean abenduaren 13an

TTIPI-TTAPA

Sherpa.ai Aizkolari Txapelketa Nagusiaren finala azaroaren 29an jokatzekoa zen Bilboko Bilbao Arenan. Baina txapelketa honen antolatzaileen helburuetako bat aizkorazaleak eta publikoa biltzea denez, eta gaur egungo egoera kontuan hartuta, abenduaren 13ra gibelatzea erabaki dute (12:00). Egun horretan 400 ikuslerentzako edukiera izanen dela aurreikusi dute.

Mikel Larrañaga, Iker Vicente, Eneko Otaño, Julen Alberdi *Txikia IV.a*, Aitzol Atutxa eta Jon Irazuk lortu dute final nagusirako txartela. Lehen mailako sei aizkolariek gain, bertze zortzi aizkolarik lehen mailarako igoera lortzeko lehia izanen dute: Eneko Saralegi leitzarra eta Asier Pellejero aresoarra izanen dira eskualdeko ordezkariak eta beraiekin batera, Larrea III.a, Corchero, Jauregi, Aratz Mugertza, Ioritz Gisasola Zelai IV.a eta Julen Kañameres ariko dira.

Urrezko Ezteiak ospatzen ari da binakako erremonite txapelketa

TTIPI-TTAPA

Binakako erremonite txapelketa berezia da aurrean, batez ere bi arrazoiengatik: lehena, zalantzarik gabe, osasun krisiagatik edozein ekitaldi, erremonitea barne, baldintzatzen duelako; bigarrena, aurrean 50. edizioa jokatzeko ari delako eta, beraz, bere Urrezko Ezteiak betetzen dituelako. Bortz bikote lehiatzen ari dira eta eskualdeko erremonitistei dago-kienez, Aritz Juanenea saldiastarrak Larrañaga du bikote eta Endika Urrutia saldiastarrak Goikoetxea V.a. Hau idazte-

rakoan, ez zituzten sobera emaitza onak lortu, ez Juane-neak ezta Endikak ere.

Txapelketa azaroaren 21ean hasi ziren jokatzeko eta final handia 2021eko urtarrilaren 2an jokatu dute. Beraz, txapelketa bi urtetan jokatu da, Hernaniko Galarreta pilotalekuan.

Bortz bikote osatzen dute txapelketa eta talde bat osatu dute, non denak denek aurka neurtzen ari diren indarrak. Urriza-Labaka, Ansa II.a-Aizpuru III.a, Juanenea-Larrañaga, Goikoetxea V.a-Endika eta



Txapelketan parte hartzen ari diren bortz bikoteak aurkezpenean. MAIALEN ANDRES

Segurola-Barrenetxea IV.a dira bortz bikoteak. Lehen faseko azken bikotea txapelketatik kanpo geldituko da eta, hortaz, lau bikote sailkatuko dira hurrengo faseko. Abenduaren 26an neurtuko dituzte indarrak

bi finalaurrekotan. Batean ligaxkako lehena laugarrenaren aurka neurtuko da eta bertzean bigarrena hirugarrenaren aurka. Bi irabazleak 2021eko urtarrilaren 2ko final handira pasako dira.



Euskal Herriko hirugarren mailako finalistak Bastidan, azaroaren 29an.

Julen Olano leitzarria txapeldunorde hirugarren mailan

Euskal Herriko aizkora txapelketan bigarren postua lortu ondotik bigarren mailan ari daiteke heldu den urtean

TTIPI-TTAPA

Herri kirol jaialdi bikaina izan zuten azaroaren 29an Bastidako (Araba) pilotalekuan eta aizkora, Euskal Herriko hirugarren eta bigarren mailako txapelketen finalak jokatu zituzten. Hirugarren mailako aizkora txapelketaren finalean

Segoviako Alvaro Garcia Hoyuelos nagusitu zen. 14 minutu eta 38 segundo behar izan zituen hiru kanaerdikoak eta bi 60 ontzakoak mozteko. Julen Olano leitzarria izan zen txapeldunorde. 24 segundo gehiago behar izan zituen lana burutzeko (15:02). Datorren

urtean bigarren mailan lehia-tzeko txartela lortu dute biek. Unai Otaegi gipuzkoarrak osatu zuen podiuma (16:44). Gibeletik sailkatu ziren Etxarri Aranatzeko Goizeder Belza (17:21), Arabako Luis Polanco (17:25), Arribeko Ibai Soroa (17:26) eta Arribeko Txomin Amundarain (19:05). Julen Aranberri lana utzi zuen.

Bigarren mailan Oier Kañamates txapeldun

Euskal Herriko bigarren mailako aizkora txapelketaren finalean, berriz, zazpi aizkolaritari aritu ziren. Arostegiko Oier Kañamates IV.a nagusitu zen. Bi kanaerdiko, bi 60 ontzako eta bi oinbiko mozteko 23 minutu eta 38 segundo behar izan zituen. Luis Mari Txapartegi gipuzkoarra izan zen bigarren (24:19) eta Hodei Ezpeleta bizkaitarrak osatu zuen podiumea (25:09). Lau segundo bertzerik ez zizkion kendu Dorraoko Ibai Resanori (25:13). Xabier Zaldúa gipuzkoarra izan zen bosgarren (25:40) eta eskualdeko bi aizkolariek itxi zuten sailkapena: Oihan Larretxea beratarra seigarren izan zen (26:02) eta Zigako Joxean Etxeberria seigarren (26:13).



UTZITAKO ARGAZKIA

Beti Gazte txapeldun Euskal Herriko 4x4 sokatira txapelketan

Euskal Herriko 4x4 sokatira txapelketako lehen txapelak banatu zituzten azaroaren 28an Getxon (Bizkaia). Beti Gazteko mutilek txapela lortu zuten 320 kiloko kategorian eta emakumeak txapeldunorde izan ziren 260 kilokoan. Abenduaren 19an jokatu da bigarren eta hondar jardunaldia, berriz ere Getxon. Honetan, emakumeak 240 kiloko kategorian eta gizonezkoak 300 kilokoan ariko dira.

Denboraldi berezia Baztandarra Txirrindulari Elkartearendako

TTIPI-TTAPA

2020. urteko denboraldia martxo bukaeran hasi behar zuen CC Baztandarra Txirrindulari Elkartek, baina Covid-19a dela eta, ez zuten ekainera arte hasterik izan. Beraz, entrenamenduekin hasi ziren ekain hasieran, eta urri bukaera arte iraun zuten. Tartean abuztuan hiru asteko atsedena izan zuten.

Entrenamenduak egiteko Lekarozko kanpusean elkartzen dira, eta bertan, bakoitzak bere taldearekin, hainbat ariketa eginen ditu: ginkanak, oreka jokoak, ibilbideak, eta abar...

Baztandarra Txirrindulari Elkartetik aipatu digutenez, «aurtengo urtea arraroa izan da, neurriak hartu izan behar ditugu, elkartzerakoan musukoarekin ibili behar izan dugu eta talde bakoitzak bere eremua izan du entrenamenduak burutzeko. Covid-19a dela eta, joan den urtean egin ziren Baztan-Bidasoaldeko txirrindularitza topaketak ez ditugu burutzerik izan aurtengoa».

Bertze aldetik, Nafarroako Kirol Jokoen proba bat egin da Arizkun. Berroetan eta Gartzainen ere egitekoak ziren, baina ez zen egiterik izan, koronabirusaren ondorioz.

Kadete mailako txirrindulariek, mendi bizikletan egiten dituzten entrenamenduez gain errepidean ere entrenatzen dute eta zenbait egunez Tafallara pista entrenamenduak probatzera ere joan dira.

Probak

Udan zehar Nafarroa burutu diren probetan CC Baztandarra Elkarteko txirrindulariak gero eta gehiago animatu dira parte hartzera, mendi bizikletan nahiz errepidekoan. Gozatu eta ikastea da proba hauen helburua, eta hori egin dute,

BAZTANDARRA TE AURREBENJAMINAK



Urko ALEMAN ETXENIKE	GARTZAIN	Inaxio MURGIA LIZARDI	ELIZONDO
Beñat ANBUSTEGI MIURA	ELIZONDO	Jone OLAZAR IRIGOIEN	ELIZONDO
Itzal ARISTU UZKIAGA	LEGASA	Aimar OPOKA MARITORENA NARBARTE	
Urko ARRUEPA IRIBARREN	LEKAROZ	Aritz OTEIZA LARRE	ELIZONDO
Gaizka AZKARRAGA	ARRIADA AZPILKUETA	Peio PEROTXENA DANBORIENA	IRURITA
Ibai BENGOTXE FERNANDEZARRAIOZ		Jokin RIPA ERITZE	IRURITA
Jon BUSTO DUFURRENA	ERRATZU	Harriet R.LARRINAGA MARITORENA	ANIZ
Eduard COSACEANU SCRIPCĂ	ELIZ.	Patxi SANTXOTENA ETXEBERRIA	ELIZ.
Aimar ETXAIDE OSKOZ	ELIZONDO	Oihan UNANUA PLAZA	ELIZONDO
Mikel ERASO SALABURU	ELIZONDO	Aiert URRUTIA ETXENIKE	IRURITA
Sara ETXANDI DANBORIENA	IRURITA	Nora URRUTIA ERITZE	IRURITA
Mikel ETXEBERRIA ZABALETA	ELIZ.	Laia USANDIZAGA LOZANO	AZPILK.
Ibon IRAZOKI VIELA	IRURITA	Orbara ZABALETA FERNANDEZ	ANIZ
Julen IRIGOIEN DENDARIETA ERRATZU		Ibai ZAPIRAIN KARRIKABURU	ERRATZU
Elai IRISARRI TELLETXEA ELGORRIAGA		Eñaut ZELAIETA AZKARATE	ANIZ
Eiger ITURRALDE ZELAIETA	ARRAIOZ	Ent.: Mikel SOBRINO, Joshe VIELA, Josu	
Hugo MARTINEZ SANCHEZ	ELIZONDO	BUSTO, Karmele ARRIADA, Iñaki ZELAIETA	

BAZTANDARRA TE BENJAMINAK



Aimar AGESTA HERNANDORENA	SUNB.	Sustrai LAKOSTA DANBORIENA	ANIZ
Oier ALZUGUREN BARBERENA	ZIGA	Urtzi MENDIBURU ERASUN	DONEZT.
Junes ALTZURI ERATSUN	ELIZONDO	Eñaut OTEIZA LARRE	ELIZONDO
Joseba ARRAZTOA UGALDE	IRURITA	Aitor RIPA ERITZE	IRURITA
Julen BALDANTA ARRUIZ	ELIZONDO	Elorri R.LARRINAGA MARITORENA	ANIZ
Beñat BARBERENA MEOKI	LEKAROZ	Oihan SALABERRI ELIZANTZIN	NARBARTE
Mikel BIDART PLAZA	LEKAROZ	Izai URRUTIA ERITZE	IRURITA
Oihan BRAÑA GAMIO	IRURITA	Adei USANDIZAGA LOZANO	AZPILKUETA
Oier ETXAIDE OSKOZ	ELIZONDO	Izaro VALER ETXEBERRIA	ARIZKUN
Xabier ETXAIDE BALLARENA	ELIZONDO	Aimar BIKONDOA MARITORENA	IRURITA
Mikel GAMIO JUANKORENA	IRURITA	Igor VIELA ZELAIETA	ARRAIOZ
Sara GARCIA SANZBERRO	SUNBILLA	Iban VILLAFRANCA SOTO	HENDAIA
Iratxe IBAÑEZ APEZETXE	IRURITA	Aitzol ZABALETA FERNANDEZ	ANIZ
Eneko IRAZOKI VIELA	IRURITA	Aiert ZELAIETA AZKARATE	ANIZ
Iker IRIARTE ZESTONA	GARTZAIN	Ent.: Julio ETXAIDE, Ana ZESTONA,	
Xuban JAUREGI GARTXITORENA	SUNB.	Benito MARTINEZ, Eduardo DANBORIENA	

BAZTANDARRA TE ALEBINAK ETA INFANTILAK



Joritz BARBERENA MEOKI	LEKAROZ	Julen VALER ETXEBERRIA	ARIZKUN
Julen ELIZANTZIN ALTZUARTE	IRURITA	Hegoi VAQUERO ALEMAN	IRURITA
Arantxa ETXEBERRIA ZABALETA	ELIZ.	Aimar ARANDIA ELIZONDO	BERA
Oihan GOÑI GALARZA	ELBETE	Ander TELLETXEA ARIZTEGI	ITUREN
Oier IBAÑEZ APEZETXE	IRURITA	Markel AGESTA HERNANDORENA	SUNB.
Xabat MARITXALAR POZUETAORONoz		Oihan ALEMAN AZKARRAGA	IRURITA
Mattin SANTXOTENA ETXEBERRIA	ELIZ.	Ent.: Alberto BARBERENA, Iban VILLORIA,	
Unax TAPIA REKARTE	ERRATZU	Iñaki VILLORIA eta Jon IRAZOKI	
Asier TELLETXEA ARIZTEGI	ITUREN	● Alebinak ● Infantilak	

BAZTANDARRA TE KADETEAK



Hodei ALEMAN AZKARRAGA	IRURITA	Entrenatzaileak:	
Unax ERASO ETXENIKE	IRURITA	Iñaki VILLORIA eta Jon IRAZOKI	
Martin ETXABE AIZPURUA	ARIZKUN	BERTZE KATEGORIAK	
Iraitx ITURRALDE ARRETXE	ZOZAIA	Iñaki IRAZOKI EZEIZA	ELIZONDO
Eneit BERTIZ APEZETXE	SUNBILLA	Imanol ETXEBERRIA ANTIXORENA	ARIZKUN
Aritz BIKONDO ARRETXE	IRURITA	Jon MARITORENA ZENOZ	GARTZAIN
Gaizka VIELA MENA	IRURITA	Jon IRAZOKI EZEIZA	ELIZONDO
Beñat ZAMORA ZELAIETA	ORONoz	Oihan AGERRE ETXEBERTZ	ALMANDOZ
		● Elite ● Master-30 ● Sub-23	

baina baita postu onak lortu ere.

Horren adibidea, Hodei Aleman Iruritako kadetea Kataluniako Irekian parte hartzeko aukeratua izan zen Nafarroako taldearekin. Tamalez, proba hau ere bertan behera gelditu zen.

Aipamenak

CC Baztandarra Txirrindulari Elkartetik eskerrak eman nahi dizkiete gurasoei entrenamenduetan laguntzeagatik, «beraien laguntzari esker entrenamenduak aitzinera atera ahal izan ditugu eta bizi dugun egoera honetan beraien jarre-

ra baikorra eta lagungarri izan da». Zuzendarita batzordea ere berritu dute aurten eta Baztandarra Txirrindulari elkarteak bereziki gogoratu nahi du maiatzean hil zen Txuma Eugi, elkarteko sortzailea: «mila esker egin zenuen lanarengatik, saiatuko gara zuk eginda-

ko lana ahalik eta hobekien jarraitzea».

Babesleen (Josenea, Malkorra eta CEM-2 eraikuntzak) eta bazkideen laguntza ere nahitaezkoa zaie eta eskerrak eman nahi dizkiete elkartetik. Laster bazkideak biltzeko kanpainari ere ekinen diote.

ABENDUAK 10 - URTARRILAK 14

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

OSPAKIZUNAK

LEITZA

Herri Aretoaren irekiera ekitaldia

Abenduaren 18an.

SOLASALDIA

ELIZONDO

Haurdunaldi subrogatua solasgai

Arizkunenean, abenduaren 9an, 19:00etan.

KONTZERTUAK

ELIZONDO

Fabian Barraza Django's Trioren kontzertua

Arizkunenea kultur etxean, abenduaren 13an, 19:00etan (gonbidapenak 18:00etatik aitzinera).

Xabier Xubelet eta Xabernat

Arizkunenean, abenduaren 20an, 19:00etan (gonbidapenak 18:00etatik aitzinera).

ANIZ

Baztan kantuz

Abenduaren 20an, plazatik abiatuta herrian barna, 12:00etan.

TAILERRAK

ELIZONDO

Haurrendako sormen tailerra

Arizkunenean, abenduaren 12an, 11:00etatik 12:30era. Izen-ematea: 636 47 99 60 edo 636 45 07 45.

Haur Txokoa

Elizondoko Lanbide Eskolan, abenduaren 28tik urtarrilaren 5era, 10:00etatik 13:00etara. Izen-ematea: 689 03 50 78.



UTZITAKOA

ELIZONDO Lego tailerra

Discover Bricks-en eskutik.

Arizkunenea kultur etxean, abenduaren 12an, 11:00etatik 12:30era.

IKASTAROA

LEITZA

'Kutsadura elektromagnetikoaren eragina gure osasunean eta ingurumenean'

Atekabeltzen, abenduaren 17an, 19:00etan.

Txerto emozionala

Atekabeltzen, urtarrilaren 8an, 18:00etan.

ARESO

Haurrentzako psikomotrizitate ikastaroa

Urtarriletik maiatzera, astearteetan, 15:30etik 16:30era. Izen-ematea: abenduaren 25era arte, 649 50 23 10 telefonon.

ELIZONDO

Kantu herrikoiak

Arizkunenean, urtarrilaren 13tik martxoaren 17ra, asteazkenetan, 18:30etik 20:30era.

Igeriketa ikastaroa

Abenduaren 9tik 22ra, astelehenetik ortziratera bitarte.

IKUSKIZUNAK

IRURITA

'Ongi etorri lagun'

Damaso Zabalza Gizarte Bilgunea, abenduaren 18an, 17:00etan.

LESACA

'Kimera'

La Banda taldearen eskutik. Harriondoan, abenduaren 13an, 17:30ean. Sarrera: 5 euro.

'ETAren agiri bulegoa'

Keinu Leihoak antzerki zikloaren barne. Arranon, urtarrilaren 8an, 20:00etan.

GOIZUETA

Klown ikuskizuna

Eskolako frontoian, abenduaren 12an, 18:00etan.

'Luze edo motz'

Idoia Torregarai eta Mirari Martiarenaren eskutik. Ganbaran, abenduaren 18an, 18:30ean. Sarrerak abenduaren 17ra arte estankoan salgai, 5 eurotan.

AZOKA

ELIZONDO

Jostailu bilketa

Gizarte Zerbitzuen egoitzan, abenduaren 14tik 18ra, 09:00etatik 13:00etara.

ERRATZU

Truke azoka

Plazan (euria eginez gero frontoian), abenduaren 13an.

ANIZ

Truke azoka

Frontoian, abenduaren 20an.

LESACA

Artisau azoka

Plaza zaharrean, abenduaren 20an.

Nire aukera

«Kazetarion lana polita bezain ardura handikoa da»

IRATI ERRANDONEA ZOZAIA BERA KO KAZETARIA



Eskualdeko herritar aunitzen-dako, aurpegi ezaguna da. Pantailan bertze aldean maiz ikusi dute Irati Errandonea (Bera, 1995). Batzuek martxoan ETBn eman zen Zur eta Lur saiotik; bertzeek, Udak dakarren edo Eztabaidan programatik ezagutuko dute.

Gaur-gaurkoz, azken horretan dabil eta «astelehenetik ortzegunera» horrek hartzen du bere egunerokoa: «goizean Twitterren albisteak irakurri eta telebista adituz gosalduta eta Miramone-ra joaten naiz, lanera». Halere, egunerokoa aldakorra da eta «ez daude bi egun berdin...».

Kazetaritzan murgilduta

Kazetaritza ikasi zuen Errandoneak, baina helburu bakar eta argiarekin: «idaztea pila bat gustatzen zitzaidan eta helburua egunkari batean lan egitea zen. Lotsatia naiz eta jendarean solastatzea ez dut gustuko izan...». Gradu hiru gaurren urtean, ordea, praktikak eskatzeaz zegoela, irakasleak bertze aukeraketa bat egitera animatu zuen: «kamera aitziz-

nean egin genuen lan baten ondorioz, irakasleak bide hori hartzera animatu ninduen eta praktikak bide horretatik egitea erabaki nuen».

Teledonostin eskatu zituen, «komunikabide tikieta alderdi gehiago ezagutzeko aukera dagoelako...». Lehen esperientzia horrek bizitokia aldatu eta Irunera joatea eragin zion arren, «izugarria» izan zen berarendako: «denetarik ikasi nuen, editatzen, idazten, kamera erabiltzen... eta, lehenbizikoz telebistan ateratzen!». Hasierako urduritasuna ongi oroitzen du: «lehenbiziko eguneko grabaketarako bezperan testua prestatu nuen, entseatzeko».

Udako praktikaldia zena lan bihurtu zen gero eta hori ikasketekin uztartzea «ez zen erraza izan». Laneko «gidoia idatzi,

**«ZUZENEKOAK
BERRIZ IKUSTEN
DITUT AKATSETATIK
IKASTEKO»**

gaiak aukeratu, elkarrizketak egin, prentsaurrekoetara joan...» behar izaten zuen eta, horrez gain, «unibertsitateko lanak eta azterketak prestatu». Aitortu duenez, «lehenbiziko hilabeteak ez ziren errazak izan» eta okerrera Gradu Amaierako Lana izan omen zen: «lanean hasi nintzenerako proiektua erdi egin nuen baina aurkezteko denbora banuela eta, alde batera utzi nuen... Kazetari gisa lanean urteak daramatzadan arren, azken lana joan den ekainean aurkeztu nuen, konfinamendua ailegatu behar izan da titulua eskuratzeko...».

Teledonostitik ETBra

Hasiera «gogorra» izan zen arren, pixkanaka, pantailaren bertze aldean lan eginez, bide hori gustuko duela ikusi du beratarak.

Hala, Teledonostin hasitakoari ETBn eman dio segida. *Zur eta Lur* izan zen bere lehenbiziko esperientzia, pandemiaren ondorioz egun guttiren buruan eten behar izan zen saioa. Hilabete batzuk lanik gabe egon ondotik, *Udak Dakarren* saioan aritzeko deitu zioten: «Euskal Herriko txoko politenak ezagutzeko eta pintxo goxoenak probatzeko aukera izan nuen eta heldu den urtean errepikatzea espero dut».

Orain, berriz, *Eztabaidan* programan ari da: «orain artekoetatik hagitz bertzelakoa da eta ikuspegia aldatzea kosta egin zitzaidan baina taldeak aunitz lagundu dit». Momentuz, abenduaren 17ra arte luzatuko da eta «ordura arte taldean segitzea espero dut».

Teledonostitik ETBra «aldaketa handia» sumatu du Errandoneak: «Teledonostin Irunen

egiten nuen lan, Donostian zegoen taldetik urrutit. Lehen ia bakarrik aritzen nintzen, eta orain talde bateko kide naiz». Lan egiteko moduari dagokionez ere, antzeman du aldaketarik: «Teledonostin aitzineko egunean prestatzen genituen saioak; ETBn, ordea, gaurkotatzen du garrantzia». Gainera, «Teledonostin ez bezala, ETBk aitzineko eguneko saioaren audientziaren berri bidaltzen digu. Zenbaki horrekin ez itsutzen saiatzen gara baina beti ez da erraza».

Ikasteko eta aitzinera egiteko gogotsu

Ikusiz ikastea du momentuz lehentasun. Horregatik, grabaketan ondotik, bere burua telebistan ikusten du kazetari gazteak: «behin eta berriz aditu eta ikusiz aunitz ikasten dut. Neure akatsetatik ikasi behar dut. Horregatik, zuzeneko bat egin eta gero, etxera ailegatu bezain agudo, berriz ikusten dut, ongi eta gaizki egindakoa ikusi eta hobetzeko». Lagun eta ingurukoen iritziak ere lagungarri zaizkio: «ia beti zoriondu egiten nauten arren, noizbait elkarrizketa bat ez bazaie gustatu, egia erran didate. Hori aunitz eskertzen dut, hobetzeko moduetako bat da». Ekarpene guztiak gustura hartzen ditu «gure lana polita bezain ardura handikoa» delako eta ikusleek informazioa ahalik eta zuzenen jasotzea merezi dutelako.

Harro dago hartutako bideaz, baita horrek eman dionaz ere: «lagun aunitz egin ditut kazetari naizenetik eta lotsa pixka bat galdu dut. Horrez gain, sare sozialetatik ailegatzen zaigun informazioarekin kritikoagoa naiz orain».

Errandoneak argi ikusi du probatu gabe ez dagoela gustukoa duguna zer den jakiterik. Hortaz, «kazetaritza ikasten ari den edozeini probatzeko erranen nioke. Hori baita gustukoa zer den jakiteko modu bakarra».

**«SARE SOZIALETAKO
INFORMAZIOAREKIN
KRITIKOAGO NAIZ
ORAIN»**

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

LABAIEN. Zaharberritzeko dagoen baserria eta eraiki berria den etxea salgai, bizitzeko prest. 19.000 m²ko lur eremuarekin. Eguzkitsua eta bista ederrekin. ☎630 23 50 64.



LESKA. 5 logelako etxebizitza salgai. 3 komun, sukalde handia eta tximiniarekin. Txoko, garaje eta lorategia handia. Eskaintzak aditzeko prest. Argibide gehiagorako eta konpromisorik gabe ikusteko deitu. ☎609 47 72 77.

ERRENTAN EMATEKO

AZKAINE. 85 m²ko etxe bat errentan emateko, baratze batekin. 850 euro hilabetearen. Xehetasunak : azkaine-lapurdi@gmail.com.

LESKA. Pertsona batentzako logela bat errentan emateko. Erretzailea ez dena. ☎678 85 50 56.

ERRENTAN HARTZEKO

LARRAUNen bikote bat etxe ttiki baten bila. Haurrik eta animaliarik ez dute. ☎674 87 02 73.

GARAJEAK/LOKALAK

SALGAI

BERA. 150 m²ko pabiloia salgai. 130.000 eurotan. ☎648 26 56 63.

ZERBITZUAK

ZURGIN-LANAK

ARANTZA

ZURGINDEGIA

Klase guztietako zurgin lanak

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea - ARANTZA
647 810 144 - 626 093 181

LANA

ESKARIAK

Adinekoak zaintzen esperientzia duen 37 urteko emakumezkoa lan bila, atsegina, erreferentziekin eta prestatua. Sortzez nikaraguarra, paperekin. Lau urtez adinekoekin lanean aritua. ☎602 33 06 85.

Orduka **garbiketa** lanak egiteko edo **adinekoak** zaintzeko esperientzia duen neska lan bila. ☎674 87 02 73.

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

Mutil bat **edozein lanetan** aritzeko prest. Klase guztietako etxetresnak konpontzen esperientzia duena. ☎697 70 48 98 / 674 87 02 73.

ESKANTZAK

Oninart enpresaren **komunikazio alorrean** lan egiteko lagun bat behar dute. Sare sozialak menderatzea eta diseinu grafikoaren inguruko ezagutza baloratuko dira. ☎948 63 71 67.

ANIMALIAK

OPARITZEKO

Katakumeak opari. ☎626 33 53 98.



ETXALAR. Hiru hilabetezko zakurkumea opari. Pastor alemanen kumea. ☎686 67 31 05.

MOTORRAK

SALGAI



BMW X5 salgai. Gasolioa. Extrak. Egoera onean. Prezio negoziagarria. Deitu goizez. ☎679 50 77 81.

IRAGARKIAK INTERNETEN

Ikusi sail honetako iragarkiak Interneten: <https://erran.eus/sailkatuak>

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 3,96
- 1.koa 3,84
- 2.koa 3,69

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,07
- 1.koa 3,93
- 2.koa 3,79

Oharra: prezioak 180-220 kg kana-lean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 130,00
- Idixkoak 150,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 120,00
- Idixkoak 140,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,23/3,33
- Zaldi-behorrak 1,87/2,04

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 7,00/8,30
- 8-10 kilokoak: 5,60/6,00

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 38 €

Zerri gizona 1,165 €

Zerramak 0,370€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua azaroaren 20tik 27ra bitarteko prezioak)



Ardatz edo eje bateko **atoia** edo **re-molkea** salgai, 2m+1,30m. Kartolak urratzen direnak eta lonarekin. ☎690 38 81 34 / 948 59 90 45.

TAILERRAK




DENETARIK

SALEROSKETAK



90 cm-ko **bi ohatze** eta **armairua** salgai. Guztia 300 eurotan. ☎673 54 87 67.



Habia zuriko ohea salgai. 2 oherekin. Goiko ohea 90x190 cmkoa eta beheko ohea koltxoia bame (80x180). 202 cm luze eta 100cm zabal. Egoera onean. 300 euro. ☎666 35 73 97.



Egoera onean dagoen **sukaldea** salgai. Hozkailua, mikroa, labea eta bitrozeramikarekin. Dena 1.850 eurotan. Negoziagarria. ☎650730600

GALDU-AURKITUAK

Urroz eta Labaien artean **bi ardi antxu** galdu dira. ☎678 23 82 46.

SANTESTEBAN TAILERRAK

RENAULT CAPTUR 1.5 DCI 90 CV
2015 urtekoa – 51.500 km

RENAULT SCENIC TCE 115 CV
2017 urtekoa – 8.200 km

RENAULT MEGANE 1.5 DCI 90 CV
2018 urtekoa – 48.000 km

www.talleressantesteban.com

DONEZTEBE - T. 948 450 282 - info@talleressantesteban.com

Sampi Aragón

VOLKSWAGEN TIGUAN R-LINE

SEAT IBIZA

VOLKSWAGEN GOLF

DONEZTEBE | 948 450 354


URTEBETETZEAK




Donamariako **Egoi Ariztegi** 2 urte beteko ditu abenduaren 27an. Aunitz urte Oinatz eta familia guztiaren partetik. Muxu haundi 1 *ttikittiko!*



Igantziko **Patxi Loiarde Petrikorenak** 18 urte bete ditu azaroaren 27an. Zorionak etxekoan partetik!



Manzanoseko **Nahia Martin Portuk** 10 urte bete ditu azaroaren 29an. Aunitz urtez familia osoaren eta bereziki Lesaka eta Leitzako lehengusu eta lehengusinen partetik.



Gure etxeko printzesa den **Irati Perurena Bazterrikak** abenduaren 22an sei urte beteko ditu. Zorionak eta besarkada bat etxekoan partetik, bereziki Udane eta Beñatzen partetik. Ongi pasa!



Arraiozko **Oinatz Arraztoak** abenduaren 15ean 5 urte beteko ditu. Aunitz urtez familia guztiaren partetik eta bereziki Aiora eta Urkoren partetik. Bortz muxu potolo!

BERAKO UDALA

OIHAN ENKANTEA

BERAko Udalak gutun-azal itxiko prozeduraren bidez enkante publikoan salgai jarriko du 'Arranoko Harria' eta beste paraje batzuetako oihan-aprobetxamenduaren 1. lotea –hirugarren enkantea, %20 ko beherapenarekin. Proposamenak 2020ko abenduaren 14ko 13:30ak arte aurkeztuko dira. Baldintza pleguak Udak Idazkaritzan, web-orrian (www.bera.eus) eta Nafarroako Kontratazio Atarian ikusgai egongo dira.

Bera, 2020-11-24
ALKATEA,
Aitor Elexpuru Egaña

DONEZTEBEKO UDALA



DONEZTEBEKO UDALA

ETXEBIZITZA BATEN ENKANTE PUBLIKOA

DONEZTEBEko Udalak Leitza kalea, 1 – 1. Ezker helbidean, etxebizitza bat enkante publiko bidez salduko du. Proposamenak aurkezteko epea: 2020ko azaroaren 17tik 2020ko abenduaren 17ra. Prezioa: 71.144,79 euro.

Baldintzak: <http://www.doneztebe.eus/news/enkante-publikoa/>.

Informazio gehiago: 948 45 00 17



Berako **Aimar Almandoz Tapiak** 7 urte beteko ditu abenduaren 11n. Zorionak familia guztiaren partetik. Muxu handi bat.



Aunitz urtez **Amaia!** Abenduaren 18an urteak beteko ditu eta muxu haundi bat Koskontako bidetik! Ongi-ongi pasa eguna!



Aunitz urtez **Totu!** Gure baztandarrak abenduaren 27an urteak beteko ditu. Ongi ospatu zure eguna eta muxu haundi bat Lesakatik!



Aunitz urtez **Nerea!** Zubietako gure neska gazteak urteak beteko ditu abenduaren 28an. Ongi-ongi ospatu zure eguna, merezi duzu eta! Muxu bat!

ATERA TTIPI TXARTELA eta erabili
pegatina hau ikusten duzun denda eta zerbitzuetan

Aprobetxatu aukera!

ttiipi-ttapa

Josune Sorondo Odriozola
72673152-A
#ttiipi-ttapa
Zk: 372

ttiipi-ttapa



Zorionak **Iratz** eta **Aratz!** Abenduaren 12an eta urtarillaren 16an urteak beteko dituzte.

SORTZEAK

- **Maitane Fernandez Telletxea**, Donamariakoa, azaroaren 12an.
- **Laia Loiarte Banegas**, Igantzakoa, azaroaren 13an.
- **Izadi Zabala Barberena**, Zigakoa, azaroaren 19an.
- **Irati Barandarain Iraola**, Aresokoa, azaroaren 29an.

EZKONTZAK

- **Maxime Hiriart Durruti** eta **Pamel Errandonea**, urriaren 10ean Saran.
- **Christophe Seminario** eta **Christelle Roquessolane**, urriaren 10ean Saran.
- **Xabier Saint Martin** eta **Morgane Krill**, urriaren 17an Saran.

HILBERRIAK

- **Michel Pradere**, Sarakoa, urriaren 15ean.
- **Jean Iturribehere**, Sarakoa, urriaren 29an.
- **Bernardo Elizalde Lournaga**, Erratzukoa, azaroaren 18an, 82 urte zituela.
- **Agustin Goizueta Goizueta**, Goizuetakoa, azaroaren 19an, 88 urte zituela.
- **Concepcion Etxarte Maioara**, Gartzaingoa, azaroaren 19an, 93 urte zituela.
- **Juan Jose Iraizoz Bertiz**, Elgorriagakoa, azaroaren 20an, 81 urte zituela.
- **Fernando Orset Mauleon**, Berakoa, azaroaren 21ean, 75 urte zituela.
- **Ignacio Ziganda Bengoetxea**, Urrozkoa, azaroaren 22an, 75 urte zituela.
- **Ramoni Aristieta Rodriguez**, Berakoa, azaroaren 22an, 78 urte zituela.
- **Pantaleon Errandonea Unsain**, Arantzakoa azaroaren 22an, 83 urte zituela.
- **M^a Ascension Etxeberria Almandoz**, Lesakakoa, azaroaren 23an.
- **Maria Sandin Prieto**, Berakoa, azaroaren 23an, 97 urte zituela.
- **Pepita Oiarzabal Lujanbio**, Lesakakoa, azaroaren 24an, 88 urte zituela.
- **Juan Fermin Agirre Irazoki**, Berakoa, azaroaren 24an, 89 urte zituela.
- **Ana Maria Gartzia Fernandez**, Lekarozkoa, azaroaren 25ean.
- **Pedro Larralde Gaztelumendi**, Lesakakoa, azaroaren 25ean, 88 urte zituela.
- **Ricardo Graña Arranz**, Lesakakoa, azaroaren 25ean, 92 urte zituela.
- **Carmen Martikorena Aramendi**, Berakoa, azaroaren 26an, 74 urte zituela.
- **Emilia Urdangarin Gil**, Lekarozkoa, azaroaren 27an.
- **M^a Dolores Martin Martin**, Legasakoa, azaroaren 27an.
- **Angeles Moreno Calzada**, Berakoa, azaroaren 27an, 88 urte zituela.
- **Paula Bazterrika Monreal**, Sunbillakoa, azaroaren 28an, 90 urte zituela.
- **M^a Jesus Erdocio Zapirain**, Aranokoa, azaroaren 30ean, 63 urte zituela.
- **M^a Dolores Organbide Iriberrri**, Arizkungoa, abenduaren 1ean, 88 urte zituela.

URTEURRENA

Paquita
URTIZBEREA ETXABIDE

1944/08/09 - 2018/01/09

III. urteurrena

Batasun honek iraun dezala
gure bizitza guziko
azken orduan sartu artean
zurekin zeruan betiko.



ZURE FAMILIA

URTEURRENA

Tomas
REKONDO ANDUEZA

Lesakan, 2018ko abenduaren 12an

II. urteurrena

Betirako gurekin eta gure artean
milesker emandako guztiarengatik.



ZURE FAMILIA

URTEURRENA

Isabel
FERRERO IGOA

Bera-Lesakan, 2013ko abenduaren 22an

VII. urteurrena

Larrosak dira gorriak
edo bertzela xuriak.
Hagitez ederragoak dira
neskatilaren irriak.



ZURE FAMILIA



«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

Zerbitzuak Baztanen, Bortzirietan,
Bertizaranan eta Malerrekan
T. 948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

ESKELAK JARTZEKO edo OROIGARRIAK EGITEKO:
948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

OROIGARRIA

**Cornelio
UBIRIA LEIZA**

Arantzan, 2020ko azaroaren 29an, 97 urte zituela

Arizpe bizileku
paraje xarmanta,
langile antzozua
artista galanta.
Zaindu duzu guztia
txukuna, polita,
zurekin bizitzea
luxua aparta,
aunitz maite zaitugu
mila esker aita.



ZURE FAMILIA

OROIGARRIA

**Pantaleon
ERRANDONEA UNSAIN**

Arantzan, 2020ko azaroaren 22an

Sortu ginen enbor beretik
sortuko dira bertzeak.



OROIGARRIA

**Pedro
LARRALDE GAZTELUMENDI**Lesakan, 2020ko azaroaren 25ean hil zen,
88 urte zituela

Gurea izan zarelako pozik gaude,
nahiz eta egunero faltan bota.
Zuk erakutsitakoa ez dugu inoiz ahantziko.
Zuk utzitakoa ongi zainduko dugu.
Zauden lekuan zaudela, ongi izan.



ZURE FAMILIA

OROIGARRIA

**Pantaleon
ERRANDONEA UNSAIN**

Arantzan, 2020ko azaroaren 22an

Hainbertze urtez
kooperatibaren alde
egindako lan guztiagatik,
eskerrak aunitz.



BORTZAK BAT KOOPERATIBA

URTEURRENA

**Jesus M^a
ZELAIETA GANBARTE**Lesakan, 2019ko abenduaren 14an
I. urteurrena

Betirako gure bihotzean.



ZURE FAMILIA

URTEURRENA

**Perpetua
ARBURUA ITURRIA**Etxalarren hil zen,
2019ko abenduaren 11n,
92 urte zituela
I. urteurrena

*Ama, amaxi maitea,
betiko joan zara
baina bizi garen bitartean
zutaz oroituko gara.*



ZURE FAMILIA

IRACHE

tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA (Kanttonberri, 14) | DONEZTEBE (Amezti, 13)
ELIZONDO (Santiago, 52) | LESAKA (Zarandía, 18)

ETXEETAKO ZERBITZUA

Trasladoak Iruñea, Donostia eta Iruñgo ospitaleetatik edozein herritara

948 63 74 04 / 948 19 70 70



BAZTAN
BIDASOA

Ehorzketak Zerbitzuak

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU
365 EGUN

948 48 95 50

info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeka




BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: BERAn San Jose Beilatokia
MALERREKA: DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidasoa.com

PLAZAN BAZAN



DOMINOAN

Osa itzazu lauki zuriak, arrautza frijituaren gaineko domino zati honek zentzua izan dezan.



Marrazkiak: Garbiñe Ubeda (Aizuri)

INTERNETEN ERE BAI !
<http://plazanbazan.eus/>



Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak






top topa.shop

abenduaren 9tik aurrera

Nafarroako tokiko merkatariorik plataforma berri hau eraiki dugu, gure produkturik hoberenak zure etxetik bertatik disfrutatu ahal izateko.

Sartu Toptopan eta topatu Nafarroako top produktuak eta top dendak.



Ttiti Txartela rekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA

ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Koskontako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

771

aleko
irabazleak



Donostiako aquariuma - 2 sarrera

M^a Junkal Andueza Errazkin | LESAKA

Onddo Ta Punto - Kamiseta bat

M^a Jose Sarratea Otxandorena | LEITZA

Martiko - Lote bat

Gorane Artieda Apeztegia | LEGASA

Galaxy Park - 2 sarrera

Jose Ignacio Murua Elizondo | PASAI SAN PEDRO

Irisarri - 2 sarrera

Patxi Mariezkurrena Deskarga | ERATSUN

Arkupe - Lote bat

Margarita Urdaniz Alkasena | ARIZKUN

Baga-Biga - Disko bat

Zaira Latasa Oteiza | ELIZONDO

Baga-Biga - Disko bat

Imanol Lukanbio Larretxea | ARANTZA

Gabonetako zozketak

1. lotea

Martiko lote bat,
Buatxabaleko jertse bat,
liburuak eta CD-ak.



2. lotea

Karting Indoor Irunerako 2 sarrera,
Zugarramurdiko lezerako 2 sarrera,
liburuak eta CD-ak.



BAZTAN ADENTURA PARK



3. lotea

Donostiako Aquariumerako 2 sarrera,
BKZ abenturarako 2 sarrera,
liburuak eta CD-ak.

